



Aurkeztu dute Dorletako Ama

Leintz bailarako klubak 32 txirrindulari ditu, bidean, mendian eta ziklokrosean aritzeko | 25

GR-121 ibilbidea Elgetako kaleetatik pasatuko da aurrerantzean | 11



Inauguratu dute Bergaran eguneko zentroa | 17



'Salomon' en irudia Oñatira itzuliko da berriro 100 urte ondoren | 31

Liburu eta kulturaganako maitemin bila



Aurreko belaunaldiak baino goizago hasten dira umeak irakurtzen, liburutegien lanagatik hein batean | 29

Zomorroak izeneko ipuin kontaketa egin zuten zapatu goizean Aretxabaletako liburutegian. | JULIO CALLEJA

Antzuolarrak Usurbilen, atez atekoaren martxa ikasten

Gustura itzuli dira, espero beste jende joan ez arren | 4



Atez atekoa Usurbilen. | IRATI GOITIA

Bi ikastaro, IKTak landa inguruetara zabaltzeko

Bilkura Eskoriatzan, Ederlaneko istripuagatik

Aramaion bi eskalatzaile zauritu ziren ezbeharrez | 5

Arrasateko aireak kutsatuta egoteari utzi eta kalitate hobea du urtetik urtera

AP-1eko obrak eta harrobi jarduera amaituta hobetu da 2008ko egoera | 15

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

FIDELTASUN SARIA

HOME CINEMA

► Otsailaren 14an, Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartu duzuenon artean.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Urteko kuota: 48 €.

"Internet denondako dela gogorarazi nahi diegu auzotarrei"

- ▶ Baserritarrendako ikastaroak hasiko dira laster
- ▶ Auzoetako ehun etxetik 85ek badute ordenagailua
- ▶ Erronka da 45 urtetik gorakoek erabil dezatela

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Internet eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriek (IKT) beste bultzada bat behar dute, baserri eta landa inguruetan, behintzat.

Hori igarri dute Deba Garaia landa garapen elkarteko arduradunek, eta bereziki baserritarrei eta baserri inguruko bizilagunei zuzendutako bi ikastaro antolatu dituzte, bat Eskoriatzan eta bestea Bergaran. Informatikako gutxieneko jakintza batzuk lortzeko eta Internet ezagutzen has-teko helburuarekin emango dituzte. Eskoriatzako KZgunean, otsailaren 21etik 25era izango da 10 orduko ikastaro bat, 18:00etatik 20:00etara; eta Bergarako KZgunean bestea, 20 ordukoa, otsailaren 28tik martxoaren 11ra arte, ordutegi berean. Izenematea gaur, astelehena, bukatzen da, eta interesatuek Debagoieneko landa garapen elkartearen egoitzara joan behar dute (Urteaga 21, Bergara), edo 943 76 25 47 telefonora deitu edo mkdebagaraia@euskalnet.net helbidera mezu elektronikoa bidali. Formazio eskaintza horrekin, Deba Garaiak lortu nahi duena da "batez ere ordenagailuarekiko eta Internetekiko beldurra kentzen laguntzea, eta baserri ingurunekeo jendeari mezua helaraztea Internet denon-

dako dela, kalekoendako eta auzoetakoendako berdin-berdin", esaten du Deba Garaia teknikari Mari Carmen Iturbek.

Ikastarook LEADER programaren barruan daude. LEADER da Europako Batasunak landa inguruneari laguntzeko daukan programa bat. Euskadin, Mendinet erakundeak eramaten ditu aurrera LEADER programako garapen ekintzak eta laguntzak, eta honako ikastaroak Dinamiza-TIC programaren barruan daude. Itsasmendikoik eta Euskadiko landa garapen elkarteek osatzen dute Mendinet; hortxe dago, beraz, Deba Garaia elkarteak.

Angiozarren, konexio eske

Deba Garaiak, auzo alkateek eta udalek lagunduta, azterketa bat egin zuen iaz, eta alde onak eta hutsuneak aurkitu zituen komunikazioaren teknologia berriek landa ingurunean duten presentzia.

Alde onean, ikusi zuten IKTak nahiko sartuta daudela: "Familia-unitateak hartuta, ikusi genuen %85ek ordenagailua dutela etxean, eta %60ek, Internetera konexioa". esaten du Mari Carmen Iturbe teknikariak.

Ahuleziak ere badaude, eta handienetako bat da auzotar asko ezin direla auzotik Internetera

konektatu: "Leku askotan, fisiko ki ez dute konektatzeko aukerarik, eta baldin badute, konexio oso kalitate eskasekoa da", esaten du Iturbek. Hala ere, horren beste alde positiboagoa da: "Interes handia dago: Angiozarren, populazio aldetik pisu handia duen auzo baten, 60 familiak eskatuta dute Internetera konexioa eman diezaioten; bestalde, 200 lagunek baino gehiagok esan digute informatika eta Interneten gaineko formazioa jasotzeko gertu daudela", azpimarratzen du teknikariak.

Etxean bai, baina erabili ez

Azterketa haren bidez, ikusi zuten adinak ere eragin handia duela: "Gazteei dagokienez, auzokoek eta kalekoen artean ez dago desberdintasunik; denok antzera ezagutzen eta onartzen dituzte teknologia berriak eta Internet. Indar handiagoa egin nahi dugu landa eremuetako 45 urtetik gorako formazioan, horiei gehiago kostatzen zaie-eta. Nahi genuke eurek konturatzea euren dako ere badirela ordenagailuak eta Internet; KZguneak hor daudela eta denondako direla... Izan ere, baserrietatik %85ek ordenagailuak dituzte, baina gehienetan gazteenek bakarrik erabiltzen dituzte", esaten du Iturbek.



Landa ingurunea eta teknologia berriak uztairi berean lotzeko zenbait ahalegin badira gu...

Gehiago dio: "Pena bat da 60 urteko pertsona batek, erretiraturtuta dagoenak eta denbora libre duenak, ez erabiltzea tresna hori, besterik ez bada egunkaria irakurtzeko, entretenimendu modura..."

Izan ere, IKTek asko dute eskaintzeko, baita landa inguruneari ere: "Baserritarrek euren produktuak saltzeko erabil dezakete, eta bailaran badaude esperientzia batzuk. Bestalde, Deba Garaia Ekintza Planean sartuta dago aurrera begira webgune bat sortzea landa ingurunearen zerbitzuak azaltzeko: salmenta zuzena, Debagoieneko baserritarren eskaintza... Auzo batzuek euren bloga badute, Uberak kasu, eta Angiozarrek ere berea egin

nahi du; auzotarren arteko komunikazio tresna izan daiteke Internet, eta baita belaunaldien artean informazioa pasatzeko modua ere. Hala, baserritar edadetu batek ikus dezake bera ere hor azaltzen dela, Internet beretako ere bada- la", esaten du Deba Garaia elkarteko arduradunak.

Harantzago joanda, Internet ez izateak beste mota bateko desabantailan jar ditzake auzoak: "Internet eduki barik, landa ingurunean bizi den batek ezin dezake etxetik lan egin. Internet edukita, distantzia batzuk desagertu egiten dira".

Mari Carmen Iturbek esaten duenez, "dagoeneko inorendako ez dira arrotzak teknologia berriak". Herriar batzuk ezagutzetik erabiltzerako pausoa ematera animatzen ditu.

Erretiratu bat, irakasle

Debagoienean badaude esperientzia onak. Horietako bat Arrasateko Bedoña auzoan dugu. Han, Bedoña Batu auzotarren elkarteak badaramatza urte batzuk auzoko bizitzari eragiten, aisialdi eta hezkuntza eskaintzak antolatzen. Ikastaro horietako bat da, hain zuzen, informatika eta Internetena. Jose Mari Untzueta auzotarrak ematen du. Ez da, beharbada,

DATUA

200

LAGUN

Debagoieneko baserri auzoetako 200 bat lagun IKTen gainean gehiago ikasteko gertu daude.

Landa populazioari eutsi

LEADER laguntzak Euskadiko 2007-2013 epeko Landa Garapen Iraunkor Programaren barruan daude. Mendinet elkarteak bideratzen ditu laguntza horiek; izan ere, helburu horrekin sortu zuten elkarteak Itsasmendiko SAK eta Euskadiko landa garapenerako elkarteek.

Euskadin, LEADER programa martxan jarri dute bere eraginpean dauden guneak sozio-ekonomikoki gara daitezten, landa

eremuetako populazioari laguntzeko edo eusteko nahiarekin. Horretarako, laguntza programa horiekin enplegu aukera gehiago eskaini nahi dute, eta auzotarrei euren bizi-kalitatea hobetzeko ekipamenduak eta zerbitzuak.

Eskualde batzuetan, udaletara zuzentzen dira laguntzak eta programak; baina Debagoienaren kasua berezia da, Mari Carmen Iturbe teknikariak dioten moduan: "Tolosaldean, adibidez, udalerrri asko landa eremuak dira; Debagoienean, landa eremuak auzoetan gorpuzten dira".



re artean. | JULIO CALLEJA

horrelako ikastaroak ematen dituen pertsona mota ohikoena, erretiratu da-eta. Kasu honetan, gainera, bedoñarrek ez zuten urruti bilatu beharrik izan irakasle aproposa topatzeko; izan ere, auzoan bertan zuten bizilagun horrek zaletasun gisa du Internet, eta haren ekimena izan zen ikastaroa ematea.

Bedoña Batu elkartekoei "idea ona" iruditu zitzaion, elkarteko Nerea Arexolaleibak dioskunez. "Auzo-etxean ordenagailu zahar batzuk ipini genituen, eta wi-fi konexioa". Auzokoak gustura daude, baina onartzen dute arazoak daudela: "Konexioa motela da. Konektatzeko bi sistema ditugu auzoan: bat uhin bidezkoa da, Murutik seinalea bidalita. Enpre-

sa batek eskaini zigun eta norbanako asko ere modu horretara konektatzen dira. Beste modua da telefono zerbitzua ematen digun enpresaren bidez. Dena dela, wi-fi bidez ere oso motela da konexioa", esaten du Arexolaleibak.

Euskadin, oso gutxi zabaldua
Eustat erakundearen datuek agerian uzten dute IKTak ez daudela behar adina sartuta Euskadiko landa eremuetan: lehen sektoreko establezimenduak aztertu zituzten 2007tik 2009ra arteko jardunaldian, eta epe horretan ordenagailuak horietatik %14,8ek, Internet %13,6ek eta posta elektronikoa %11,8ek bakarrik erabiltzen zituztela, eta sarean baka-

rrik %2,4 zeudela topatu zuten. Eustaten iritziz, horren arrazoia da lehen sektoreko establezimendu, enpresa edo esplotazio gehienak "oso txikiak" direla -%87ek langile batekoak edo bikoak dira, eta "ia guztiak", 10 langile baino gutxiagokoak- eta horrek "zaildu" egiten duela eurentariko gehienek esandako ekipamenduak eskuragarri izatea.

MARI CARMEN ITURBE | LANDA GARAPEN TEKNIKARIA

"Oinarrizko ikastaroak emango ditugu, eta gehiago ikasteko aukera izango dute"

Deba Garaia landa garapen elkarteko teknikaria da Mari Carmen Iturbe antzuolarra. Antolatutuzten ikastaroen gainean hitz egin digu. Horiek egin eta gero, sakontzeko aukera izango dute ikasleek.

Zela daude bailarako landa auzoak IKT aldetik?

Guk inkesta bat egin genuen, auzo alkateek eta udalek lagunduta, eta ezustea hartu genuen: unitate familiarren %85ek zuten ordenagailua etxean eta %60k, Internetarako konexioa. Dena dela, itzal-guneak daude, Internet ailegatzen ez diren tokiak. Hala, Angiozarrek, populazio aldetik auzo garrantzitsua izanik, ez du konexiorik; ia auzo guztietan dituzte arazoak; eta konektatuta daudenetan ere, konexioaren kalitatea eta abiadura eskasak dira. Hori ez bada konpontzen, oso zaila da aurrera egitea.

Erakundeen aldetik badago interesik?

Bai. Udalek erakutsi dute interesa auzoen arazo hori konpontzeko. Konexiorik ez duten toki guztiak identifikatu ditugu. Eskara egin diogu berriz Jaurlearitari, beste eskualde batzuek ere egin diote, eta ea denon artean zerbaite lortzen dugun. Inbertsioa da, jakina, baina merezi du.

Teknologia berriek zertan lagun diezaiakete baserriarrei euren lanean?

Salmenta zuzenean, adibidez. Baserriarrek zailtasun handiak izaten dituzte produktuok zuzenean saltzeko, eta Internetek asko samurtzen du hori. Bailaran badaude esperientzia on batzuk.

Dena dela, baserri gehienek badiutuzte teknologia aurreratuak...

Bai, hala da, baina gehienek euren jarduerara egokitu dituzte; lanerako behar duten teknologia erabiltzen dute. Horri IKTak gehitu nahi dizkiogu. Oraindik baserriar askok ez dute IKTen beharrik sumatu, eta ikusarazi nahi diegu lagungarriak direla eurondako.

Eta horretarako dira antolatutuzten ikastaroak, ezta?

Bai, hala da. Urte bukaeran egin



Iturbe, bulegoan. | L.K.

genuen Ekintza Planeko helburu bat dira. KZguneek erabateko laguntza eman digute. Eskoriatzako ikastaroa 10 ordukoa da, eta aukera emango diegu ikasleei gehiago lantzeko, nahi badute. Bergarako 20 ordukoa izango da. Itsasmen-dikoirekin landu dugu berak auzo batzuetan ere ikastaroak emateko aukera, baina maiatzera arte gutxienez ezin izango da.

Edozein modutan, KZguneak zabalik daude denondako, eta landa inguruneko auzotarrei ere gogoraziko diegu horixe; hain zuzen, KZguneak, ordenagailuak, Internet... denondako direla, eta euren dako ere bai, jakina. Hala, ikastaro hauek programa orokorrako baten barruan daude, eta honakoa formakuntza ekintza bada, kontzientziario eta sentsibilizazio ekintzak ere egingo ditugu.

Salmentaz gain, ze beste abantaila izan ditzakete IKTek auzotarrendako?

Populazio osoarendako bezala, euredako ere beste tresna bat dira. Gure Ekintza Planaren barruan, webgunea sortu nahi dugu landa eremuen zerbitzuak azaltzeko. Bestalde, auzo batzuek euren bloga badute edo egiteko asmoa agertu dute. Horrez gain, belaunaldien arteko komunikaziorako eta informazio transmisiorako balio du Internetek. Adibidez, nagusiei baserriko jardueraren gaineko galdeketa egin diezaikegu, eta Interneten ipini hori. Horrela, nagusiek ikusiko lukete Internet euredako ere badela, eurak ere hor agertzen direla.

ESANAK

"Auzo-etxean ordenagailu zahar batzuk eta wi-fi konexioa ipini, eta ikastaroak antolatu genituen"

NEREA AREXOLALEIBA | BEDOÑARRA

"Pena da 60 urteko pertsona batek Internetik ez erabiltzea, besterik ez bada egunkaria irakurtzeko"

MARI CARMEN ITURBE | GARAPEN TEKNIKARIA

Mundu osoan salgai

Arkaratzo auzoko Mendibitzu baserriko Gorka eta Felix Lete anaiek salmenta postu birtual bat dute sarean 2007a ezker. "Andaluziatik, Kataluniatik eta beste leku batzuetatik erosi izan digute Internetez", esaten du Gorkak. Albisteak, argazkiak eta errezetak ere badituzte.

Beste bi eredu badaude bailaran: Antzuolako Lapatza baserriarena (www.lapatza.com) eta Gomiztegiko Artzain Eskolarena (www.gomiztegi.com).



Lete anaiek www.mendibitzu-ekologikoak.com webgunea dute. | GOIENA

Antzuolarrak Usurbilera bisitan, atez ateko sistema aurrez aurre ikusteko

Ikusitakoari probetxugarri iritzi zioten, irteerara espero beste jende animatu ez zen arren

IRATI GOITIA | ANTZUOLA

Martxoaren zazpia da eguna eta antzuolarrak jo eta su dabilta data garrantzitsurako prestatzen: hitzaldiak eta bilerak izan dituzte, eta zapatuan Usurbilera egin zuten bisita.

Goizeko 8:00etan autobusera igo eta atez ateko sistema jarri zuen Euskal Herriko lehen herrirako bidea hartu zuten. Usurbilen hondakinen bilketa sistema hori aurrez aurre ikusteko aukera izan zuten. Egin zuten ibilbidetan herriko hainbat toki eta ezaugarri ezagutu zituzten antzuolarrak: zintzilikario guneak, kamioiak bilketa nola egiten duen ikusteko aukera izan zuten eta Larrialdi-Ekarpen deritzon gune baten ere izan ziren.

Bidaia ez zen jende asko animatu, baina joandakoak pozik gelditu ziren ikusitakoaz eta bisita oso baliagarria iruditu zitzaizela esan ziguten. Pedro Iturbe alkatea ere iritzi berekoa da: "Gauza asko esaten eta entzuten dira atez atekoaren inguruan, baina bertatik bertara ikusita argazkia erabat aldatzen da. Ikusi dugu sinplea dela, ohitura aldaketa txiki batzuk eskatzen dituela eta hemen naturaltasun osoz egiten dutela. Orokorrean, Antzuolan etorkizuneko nolakoa izango den ikusteko aukera izan dugu".

Antzuolarren kezak

Antzuolarrek zalantzak eta kezak argitzeko aukera ere izan zuten eta Imanol Azpiroz (Usurbilgo Ingurumen zinegotzia) hainbat galdera egin zituzten: fardelekin zer egin, hondakinak eguneko zein ordutan jaisten dituzten eta kartoia nola lagatzen duten, besteak beste.

Azpirozek esan zuen Usurbilen ere herritarrek zalantza asko izan zituztela hasieran: "Behin hasita, baina, konturatzen dira ez dela horrenbestera eta denbora gutxira jarrera aktibo bat

izatera pasatzen dira eta baita harro sentitzera. Usurbildarrok harro gaude eginiko lanarekin eta beste batzuentzat eredu izateaz".

Usurbil eredu

Imanol Azpirozek azalpenetan esan zuen, baina, herri bakoitzak eredu propioa behar duela eta Usurbilena adibide bat dela.

Horren harira, Pedro Iturbe Antzuolako alkatea zehaztu zuen: "Atez ateko sistema moldagarria da eta guk Antzuolara egokituko dugu, baina asko ikasi dugu Usurbildik, Hernanitik eta Oiztundik. Abantaila handia izan da horren gertu izatea adibide bat". Gaineratu zuen Antzuolak izango duela bereizgarri bat hiru herri horieki: "Antzuolako ez da atez atekoa izango. Gu saiatu gara zintzilikarioak zentralizatzen, kokapenak mugatzen, gure herri egiturara hobeto moldatzen delako".

Datuak

Usurbilgo zinegotziak zaborrak nola kudeatzen diren azaldu zien antzuolarrei, bilketaren prozesu guztia kontatu, Larrialdi-Ekarpen gune batek nola funtzionatzen zuen argitu zien eta Usurbilgo datuak ere eman zituen. "Atez ateko sistema ezarri aurretik hondakinen %28 batzen genuen gaika Usurbilen. Orain %80ko langa gainditzen dugu. Azken finean, errefusa oso gutxi gelditzen da. Lehen Usurbilek 121 tona errefusa eramaten zituen zabortegira hilean. Atez ateko sistemarekin hasi eta hilabetera 25 tona eramatera pasa ginen. Aldaketa ez da sistema ezarri eta bi urtera ematen, baizik lehenengo hilabeteetan" adierazi zuen Azpirozek. Animuak ere eman zituzten antzuolarrei: "Bisitaren helburua izan da gure ereduak erakustea, baina baita animuak ematea ere. Ziur nago gu bezala ondo arituko direla". a



Kamioiak organikoen bilketa nola egiten duen ikusten antzuolarrak. | IRATI GOITIA



AITZIBER LIZARRALDE
ANTZUOLA

"Oso esperientzia polita izan da. Gogotsu nintzen aurrez aurre ateko bilketa ikusteko. Gainera, genituen zalantzak eta kezak argitzeko balio izan digu bisitak. Azalpenak oso interesgarriak izan dira."



MARI JOSE MAIZ
USURBIL

"Hasieran, zalantza asko genituen eta eztabaidak ere izan ziren. Bi urteren ostean egiten dudana balorazio, berriz, erabat positiboa da. Segituan ohitu ginen eta ikusi dugu sistema benetan baliagarria dela."



RAMON ARANGUREN
ANTZUOLA

"Bisita erabakigarria izan da. Nik lehendik nuen aldeko jarrera, baina orain argi ikusten dut atez atekoa ezartzearen beharra. Gainera, Usurbilen jendeak esfortzu berezirik egin gabe egiten duela ikusi dugu."

Etxe tasatuen erdia, jaberik gabe

Urteaga eta San Lorentzeko etxe-tasatuak zozketatu zituzten zapatuan

ANDER MONEDERO | BERGARA

Udaletxeko pleno aretoa bete egin zen Urteagako eta San Lorentzeko etxeen zozkerako. Hori bai, bertan izandakoek aurretik zekiten etxe bat izango zutela, baina zapatuan jakin zuten zein izango zen bakoitzarena. Izan ere, 71 etxe tasatu zozketatzen ziren eta 37 eskaizalek eman zuten izena, beraz,

oraindik 34 etxe jaberik gabe geratu dira.

Zapatuan, jabe berriek, Urteagako eta San Lorentzeko etxeen artean egin zuten aukera. Urteagakoek bi eta hiru logela izango dituzte eta San Lorentzekoek, berriz, hiru eta lau logela. Egiten hasteko dauden bi erakinetan hiru elbarrituentzat egokitutako etxe ere egongo dira; eta horiek

dira jaberik gabe geratu diren-etariko batzuk.

34 etxe libre

Zozketan 34 etxe jaberik gabe geratu zirenez, nahi dutenek etxea eskuratzeko aukera izango dute. Hori lortzeko, Etxebiden izena eman eta Bergarako Udalean informazioa eskatu behar da.



Zapatuko zozketa. | JULIO CALLEJA

Loteria primitiboan 34.521 euro irabazi ditu arrasatear batek

Egueneko loteria primitiboaren zozketan izan zen saritua Arrasaten botatako txartela. Erdiko kaleko Ruiz de Alegria administrazioko makina automatikoan bota eta bost zenbaki eta osagarria asmatuta eraman zituen zorioneko pertsona honek 34.521 euroak. Saritutako zenbakiak izan ziren: 1, 4, 5, 28, 45 eta 49. Osagarria, 11.

Elkarretaratzea egin dute Eskoriatzan, Fagor Ederlango heriotza salatzen

Eguenean izandako lan istripuan Manuel Martin izeneko langilea hil zen

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Joan den astean Eskoriatzako Fagor Ederlanen gertatutako istripua salatzen elkarretaratzea egin zuten zapatu eguerdian Eskoriatzako Herriko Plazan. Herriar talde batek deitu zuen protesta eta haiekin bat egin zuten hainbat eragiletako ordezkariak.

Eguenean izan zen lan istripua, 21:00 inguruan. Pieza bat burura jausi eta kolpearen eraginez hil zen 56 urteko gizonezkoa. Manuel Martin zuen izena, eta, izatez kordobarra bazen ere, Arrasaten bizi zen. Ezbeharrak gertatu bezain pronto langileek larrialdi zerbitzuei deitu zieten, baina ezin izan zuten ezer egin.

Adierazpen instituzionala

Elkarretaratzeaz gain, adierazpen instituzionala ere kaleratu zuen Udalak. Martinen gertuko elkarretaratzea helarazi eta honakoa eskatu zuten: "Udalak enpresako arduraduneri eskatzen die beharrezko diren ikerketa guztiak egin ditzatela gertatutakoaren arrazoiak argitu ahal izateko. Horrez gain, honelako istripuak



Zapatu eguerdian Eskoriatzan egindako bilkura. | JULEN IRIONDO

gerta ez daitezten, laneko segurtasun neurriak zehatz-mehatz ezartzeko eskatzen die". Udal bereko EB-Berdeak taldeko zinegotzi Juan Luis Merinok ildo beretik jo zuen. Gertaera "lehenbailehen iker" dezetela eskatu zuten "erantzukizunak eskatzeko". Aldi berean, "segurtasun plan eraginkorra" exijitu zuten.

Sindikatuak ere gogor kritikatu zuten istripua. LABek enpresetan dagoen "prekarietate" eta

"benetako aurreikuspen falta" salatu zuten, eta gogorarazi zuten egueneko heriotzarekin, 2011n, Euskal Herrian dagoeneko sei lagunek galdu dutela bizia. Bestalde, ELAren esanetan, istripuen arrazoiak zuzeneko lotura dute "merkatuaren gaur egungo egoera prekarioarekin". Salatu zuten, baita ere, "patronala eta administrazioa ados" daudela eta berez legea betearazi beharko luketenez ez dutela halakorik eginen.

Bi zauritu, eskalatzen ari zirela haitza gainera etorrita

Egubakoitzean 15:20ean izan zen istripua; kolpe handiena hartu zuena ospitalean dago oraindik

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko Gantzaga auzoko Hatxetan gertatu zen istripua. Egubakoitzean izan zen, 15:20ak aldera. 27 eta 38 urteko bi lagun eskalatzen ari ziren une hartan eta haitza mugitu eta gainera etorri zitzaion bietako bati. Gazteena herrikoa da eta bigarrena aramaioarra izan ez arren, herriko medikua da duela bi edo hiru hilabetetatik.

Azken horrek hartu zuen minik gehien: tamaina handiko harria etorri zitzaion gainera -4 x 4 ibilgailu baten tamainarekin konparatu zuten harria- eta hormaren kontra buruan hartutako kolpe handiaren ondorioz konortea galdu zuen bost minutu inguruz. Gainera, masailzurra, sorbaldak eta saihestetan hartu zuen min. Haren pisua jasaten zebilen 27 urteko lagunak, berriz,

izterrean hartu zuen kolpea baina zapatuanospitaletik kanpo zegoen dagoeneko.

Santa Kruz apaizaren kobatik gertu, beheraxeago, izan zen istripua; eskalatzailak 60 metroko altueran zintzilik zeuden, eta horrek zaildu egin zuen erreskatea. Bost ordu iraun zuen: 20:30ak aldera amaitu zuten, eta zaurituak Gasteizko Santiago eta Txagorritxu ospitaleetara eraman zituzten. Kolpe handiena jaso zuena Santiago ospitalean dago oraindik.

Helikoptero eta guzti

Ertzaintzaren helikopteroa erabili behar izan zuten. Suhiltzailak eta ambulanziaz medikalizatua ere bertaratu ziren Gantzagara. Jaurlaritzaren Larrialdietarako Zuzendaritzak koordinatu zuen erreskatea.



Anbulantziak iluntzean eraman zituen zaurituak Gasteizera. | JONE INUNTZIAGA



JULIO CALLEJA

Tortura salatu zuten

Torturaren Aurkako Egunaren harira, agerraldia egin eta giza-katea osatu zuten atzo Oñatin zenbait herritarrek. Arrano Eguna ere ospatu zuten atzo, goizean Arranoaitz mendira igota. Tontorrean ekitaldia egin zuten eguerdi partean eta arratsalderako egitarauak bat egin zuten Torturaren Aurkako Egunaren protestarekin.

Oñatin egingo dute irailean Euskal Herriko historialarien biltzarren bigarren edizioa

2011ko irailaren 16tik 18ra izango da Nabarraldeko bigarren antolatuko duen biltzarra. Aurrenekoa Vianan egin eta gero, Oñatiko Unibertsitatean izango da oraingoa. "Euskal lurraldeak eta nafar Estatua" izango da gaia; bertan parte hartu gura dutenek itxaron egin beharko dute oraindik izena emateko. Ekainaren 1ean irekiko dute izenematea, deialdia herritar ororentzako da baina parte-hartzaile kopurua mugatua izango da. Iazko edizioan historialari eta idazle ugari bildu ziren 1512an Nafarroak jasandako konkistaren inguruan aritzeko. Han esandakoekin dezenteko arrakasta izan duen liburua argitaratu zuten.



IKASTAROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**
Erdi/Goi mailako ezagupena dutenentzako.
Hasiera: Martxoak 2.
Klase eguna: asteazkena
Ordutegia: 18:15 - 20:45
Matrikula epea: Otsailaren 26ra arte.

Informazio gehiagorako:
Tel.: 943 76 90 33
info@bergara.uned.es



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

Pili Arin | Kontsumo teknikaria

"Gure akatsetan jausi ez daitezzen gomendioak emango dizkiet ikasleei"

- ▶ Etxeko ekonomia kudeaketa erakusten du
- ▶ Ikasgaiak ikuspuntu kritiko batetik landuko ditu

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Etxeko kudeaketa ekonomiko ikastaroa ematen die Pili Arin elgetarrak 13 laguni joan den martitzenaz geroztik, Bizikasik antolatutako ikastaro baten. Ikasle gehienak etorkinak izanda, Arinek diosku euredako egokitu duela ikastaroa: "Gure gizartearen akatsetan jausi ez daitezzen aholkuak emango dizkiet", esaten du.

Zelako jendea dabil ikastaroan?

13 lagunetik bakarria da Bergarako. Dazkat marokoarrak, boliviarrak, aljeriarrak... Bestalde, daude bikotekidea dutenak, familia eta umeak dituztenak, langabeak... Saiatuko naiz hil bukaerara ailegatu daitezzen laguntzen, eta baita bizi garen jendartearen dinamikan jausi ez daitezzen.

Ze dinamika da hori, bada?

Hipokresiaren eta itxurakeriaren jendartearen bizi gara. Eurak garaiz daude hor ez jausteko.

Eta horretarako ze aholku emango dizkiezu?

Lehenengo, ikusi behar da familiak ze diru-iturri dauzkan eta ze zulo hilean zehar. Erosketak egiten ere ikasi egin behar da: noiz, non eta nola erosi; produktu bakoitzari begiratu eta etiketa, bertako nomenklatura, konposaketa... irakurtzen ikasi. Jantziak zelan erosi ere landuko dugu: etiketa irakurri behar dela; eta hobe dela ez erostea bakarrik tindategian garbitu daitezkeen arropak.

Eta familia burujabea zer den ere ikusiko dugu: kontserbak zelan egin; non eta zer erosi; garaiko jatekoak erosi eta izoztu egin daitezkeela...

Kontsumismoaren aurka dau den joerak ere ikusiko ditugu: 2. eskuko dendak, trukea, etxeko

brikolajea eta konponketak, bizilagunek elkarrendako lanak egitea, trukean...

Zelan kontrola ditzake familiak bere diru-sarrerak eta bere gastuak?

Familia bakoitzak bere modua izan dezake. Baina oinarria da ikustea ze diru-sarrerara ditugun, eta zerrenda bat egitea ezinbesteko gastuekin, hilekoak, bi: hipoteka dela, poltsikoko telefonoa dela... Kenketa hori eginda irteten dena da jateko, janzteko eta gure beste gastuetarako gertzen zaigun dirua.

Ikastaroan dauzkadanez oso diru-sarrera txikiak dituzte, baina konturatzen dira ez dutela ondokoak adina diru gastatzeko. Gure jendartearen, itxuran behintzat denok aberatsak bagina bezala bizi garela konturatzen dira: oporretara joateko kredituak eskatzen direla; ondokoak auto dotorea erosten badu guk ez dugula gutxiago izan nahi, umeek txikitatik lortzen dutela nahi duten guztia erosi diezaiegun...

Seme-alabek zer egin dezakete edo egin beharko lukete, zure ustez?

Etxeko ekonomia denon ardura da. Lehen, seme-alaben soldata etxerako zen; orain, euredako da. Umetatik, nahi dutena lortzen ohitzen dira, baina hori ez da umeen errua, gurasoona baizik. Kontzientzia zioa gurasoongandik hasi behar da. Umeei ezetz esaten ikasi behar dugu, eta garenak, ez daukagunak duela balioa.

Etxean dirua aurrezteko

MATEMATIKAK

Hilean edo bi hilean behin zerrendatu gastu finkoak (hipoteka, fakturak...) eta diru-sarrerak. Geratzen dena erabil dezakegu bestelako gastuetarako; gehiago ez.

JATEKOAK

Garaiko jatekoak izoztu egin daitezke –garaitik kanpo erostea askoz garestiagoa izaten da– eta kontserbak egiten ere ikasi.

IRAKURRI

Etiketak irakurtzen ikastea komeni da: jantzietan, jakiteko zeintzuk garbi ditzakegun etxean eta zeintzuk ez; jatekoetan, ze osagarri duten eta pisu garbia zein den.



Pili Arin, Miguel Altunako ikasgelan. | LEIRE KORTABARRIA

Eguneroko bizitzan, zelan saihestu ditzakegu alferrikako gastuak?

Asteazken ze janari prestatuko dugun programatu egin behar dugu, eta behar ditugun gauzen zerrenda egin erostera joan baino lehen.

Aprobetxatu egin behar dira promozioak, baina gogoratu promozio batzuek soilik lortzen dutela norberak dirua gastatzea.

Bestalde, orain denboraldiz kanpoko produktu asko eskaintzen dizkigute, eta konturatu behar gara horrek produktuaren kostua eta prezioa handitzen dituela.

Etiketak irakurtzen jakitea ere oso garrantzitsua da: adibidez,

"Etorkinak garaiz daude gure itxurakerian ez erortzeko"

atun pote baten pisu netoa edo pisu xukatua (eskurritua) zer den jakin; ze motatako olio duen, koko edo palma olioak koipe saturatuak dituztelako...

Oro har, gehienez 20 euro edo dena delakoa gastatzeko erabaki zintzoarekin bagoaz, hori baino gehiago ez dugu gastatuko.

Kapritxoak non geratzen dira?

Bai; ni neu ere jausten naiz horietan, ez naiz beti nire buruarekin kontsekuentea. Nahi baino gehiago gastatu edo janz gero, egun batzuetan ohi baino gutxiago kontsumitu beharko genuke, hori orekatzeko.

"Zintzo erabaki badugu gehienez 20 euro gastatzea, lortuko dugu"

Arcelorren Bergarako langileek krisian jarraitzen dute

Multinazionalak 2011. urtea ondo ikusten du, baina Bergarako lantegiak lehengo moduan dabilta

L.K. | BERGARA

Arcelor Mittal multinazionalak jakinarazi du 2011rako "aurreikuspen nahiko onak" dituela eta produkzioa handitu egingo duela Hego Euskal Herrian eta Espainian dituen lantegietan. Zehazki, esan du Bergarako eta Olaberriako lantegiak "martxa onean" dabiltzala lanean. Baina Bergarako langileen sentazioa oso bestelakoa da: "Oraingo hilerako lana justu daukagu, eta datorren hilean izango ote dugun kezka daukagu", esan digu enpresa-komiteko ordezkari batek.

ELAko Arcelorrek ordezkari Xabier Garitanok esan digunez,

Begarako langileek "prentsan agertu dena" bakarrik dakite enpresa zuzendaritzaren asmoen gainean. Egubakoitzean batzartuko dira enpresa-komiteko kideak

arduradunengana jotzeko (azken horiek Zumarragan daude).

Baina eurek lehengo moduan jarraitzen dute: "Oraingo hileko orduak betetzeko adina lan badau-

kagu, baina datorren hilean zer gertatuko den ez dakigu". Garitanok gaineratzen du abenduan bukatu zela lehengo EREa, eta enpresak ekainera arte luzatzea eskatu zuela. "Horrek esan nahi du gauzak ez doazela nahi adina ondo", dio ELAko ordezkariak.

Begarako altzairu-labea itxita dago 2009az geroztik. Gipuzkoan beste bi labe ditu Arcelorrek, Zumarragakoa eta Beasaingoa. "Gipuzkoan bi izanda, momentu honetan bat soberan daukate. Esan ziguten aldi baterako itxiko zutela, baina guk ez dugu sinesten aldi baterako denik", esaten du Xabier Garitanok.

ESANAK

"Oraingo hileko orduak justu betetzeko adina lan daukagu"

XABIER GARITANO | KOMITEKO KIDEA

DATUA

6

LANGILE

Begarako sei langile Beasaingo lantaldera lekualdatu ditu Arcelorrek.

Abenduan baino %46 ERE gutxiago baimendu ziren

Urtarrilean, 2010eko abenduan baino %46 ERE gutxiago eta 2010eko urtarrilean baino %38 gutxiago baimendu zituen Euskal Administrazio Publikoak; denetara, 134 espediente, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak jakinarazi duenaren arabera. 1.842 langile hartu ditu eraginpean Enplegua Erregulatzeko Espedienteraren batek, hau da, aurreko hilabetean baino %59 gutxiago. Baimendutako espediente guztietatik, 112 eteteko espedienteak izan dira, 16 lanaldia murrizteko eta 6 azkentzeko.

2010eko urritik hazi egin da lanaldi-murrizketa espedienteen kopurua.

Amaia Diaz de Monasterioguren | Dietista eta nutrizionista

"Animalia bakoitzak sortzen duen esnea bere umearendako da egokia"

- ▶ Amaia Diaz de Monasterioguren haur nutrizioan espezialista da
- ▶ Argitaratu berri duen liburuan errezeta eta gomendioak ematen ditu

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Alfa etxetresna elektrikoek etxearekin eta Imaginarium haurrendako dendarekin elkarlanean atera du Monasterioguren *Mi bebé come sano* liburua. Haurrari jaten eman nola erakutsi azalduko digu.

Gomendioa da sei hilabetera arte bularra ematea.

0-6 hilabete artean, hesteak eta giltzurrunak oraindik heldu barik dituzte; hortaz, gure esnea ideala da. Egunean zehar, koipe kantitate ezberdinak ditu esneak, gauean egunean zehar baino gehiago; substantzia bioaktibo mordoa ditu, gorputza babesteko balio dutenak, eta proteinak ere baditu. Animalia bakoitzak sortzen duen esnea bere umearendako da egokiena. Amaren esnea berezia da. Bestalde, alde emozionala dago: umeak ematen dizuna eta zuk ematen diozuna. Esnea beti daukagu epel eta gura dugun momentuan. Hortaz, bularra eman behar da, lasai eta konplexu barik. Ahal denean, behintzat. Izan ere, ume batzuek ez dute pisua ondo irabazten, edo amak lanera joan behar du... ume bakoitza mundu bat da eta horregatik ez gara tragiko jarri behar. 4-6 hilabete bitarte horretan beste produktu batzuk sar daitezke.

Ondoren, fruta eta zerealekin hasiko gara. Liburuan hainbat errezeta ematen dituzu, aldaketa samurragoa izan dadin.

Behin sei hilabeteren ondoren frutak eta zerealak sartzen hasiko gara. Lortu behar dugu zerbait gozoa eta epela izatea (amaren esnea bezala). Hortaz, errezeta batzuk gomendatzen ditut. Adibidez, sagar eta madari konpota bat amaren esnearekin nahastua. Digestiorako samurragoa izango da, eta egosi ondoren fruktosa horrek indar handiagoa hartzen du.

Kantitate txikiekin hasiko gara, umeak jakin dezan zer den fruta, baina estutu barik.

Garaiaren arabera konbinazio ezberdinak egin daitezke. Baina ez dugu beti esaten diguten bati-doa egingo: laranja-zukua, sagarra eta platanoa. Hori uda partean ondo egongo litzateke, baina negu latzean bularretik laranja-zukura pasatzea latza da.

Zazpi hilabeterekin barazkiekin hasiko gara. Horiek dira zailenak?

Bai, barazkiak eta arraina dira zailenak. Kontuan hartu behar da frutak gozoak direla eta barazkiak ez. Betiko porru-patatekin hasi beharrean nik gomendatzen dut kalabaza-kremarekin hastea; kalabaza eta patatak, adibidez.



Diaz de Monasterioguren, Oñatin duen bulegoan, argitaratu berri duen libururekin. | A.E.

Barazkietan laranja kolorearekin hastea gomendatzen dut, jateko gogoa ematen du-eta.

Umeak emandakoa jaten ez duenean zer egin behar dute gurasoek?

Momentu egokia bilatu behar da. Gu lasai gaudenean eta umea ere lasai dagoen momentua izan behar du. Konpota batek ez dauka zertan izan merienda; izan daiteke bazkaria, goizeko siestaren ondoren. Gu zelan gauden eta umea zelan dagoen da garrantzitsua. Lehenengo egunean ez badu jan, ez du esan gura hurrengoan ere ezetz esango duenik. Ahalegindu

"Umeari errezeta berri bat inoiz ez diot gauean emango"

"Bular asko hartu duenak muskulatura landuagoa eta ahoskera hobea du"

egin behar dugu, baina behartu barik.

Umeari errezeta berri bat eman behar baldin badiot, nik ez diot inoiz gauean emango. Deskantsatuta dagoen momentuan emango diot, eta ni lasai nagoenean; zapatuan edo domekan. Afarirako gauza samurrak utziko ditut: orekatuak direnak, baina umearendako samurrak.

Testura aldaketa ere ona izango da, mastekatzen has daitezten.

Esan behar da purearekin agudo aspertzen direla umeak; eta, bular asko hartu dutenek berehala eska-

tzen dutela testura aldaketa. Hortaz, purea egin beharrean, 9-10 hilabeterekin egokia izaten da barazkiak sardexkarekin txikitzea; hala, mastekatzen hasten dira.

Gainera, ikusi da mastekatzea eta ahoskera oso erlazionatuta daudela. Bular asko hartu duen umeak muskulatura landuagoa dauka, janaria kontrako ezarririk joateko arazo gutxiago izango du eta ahoskera ere hobea izango du.

Gaur egungo bizimoduak umearen elikaduran badauka eraginik?

Bai, batez ere afaritan. Orain, eskoletako jangelekin irtenbide handia daukagu gurasoek. Jantokietako menuak parte-hartze handiago eskatzen dio familiari. Guk izan behar dugu menu horren parte, eta ez bagaude ados esan egin behar dugu. Egunero jaten dute han; hortaz, garrantzitsua da. Afaria da etxean denak elkarrekin egoten garen momentua. Hortaz, niretako oinarritzkoa da afaria izatea orekatua eta goiztiarra. Afarirako erabiliko ditugu kremak edo sopak, eta bigarren plateran arraina edo arrautza.

Ikusten dugu ume askok ez dutela afaltzen; esnea bakarrik hartzen dute, adibidez. Hori izaten da berandu iristen gare-lako etxera, umea bainatu behar dugulako... hortaz, hori guztia pentsatu behar dugu eta ondo antolatu. Gomendatzen dut, adibidez, erosketak astean behin egitea eta aste bukaera aprobetxatzea jaki batzuk gertatu eta asteko afariak prestatuta uzteko.

Hitzaldietan, ze kezka nagusi ikusten duzu gurasoengan?

Irudimen falta dute plateren aurkezpenean, eta kantitatekin zalantzak izaten dituzte. Ni kantitatearekin inoiz ez naiz arduratzen. Umeari igartzen zaio ondo dagoen edo ez.

Komenigarria da guztiek batera jatea?

Bai. Ohitura handia dugu bazkari bat daukagunean lehenengo umei eman eta gero guk jateko. Umei makarroiak prestatzen dizkiegu, baina umeek ez dute ikusten guk zer jaten dugun. Hortaz, umeek ikusi behar dute babak baldin badaude jateko, denendako daudela babak. Eta hori dela bazkaria. Gainera, egun baten ez badute ezer jaten ez da ezer pasatzen.

Beste kontu bat da denen artean antolatzea eta eurei galdetzea zer gura duten jateko. Modu horretan, eurak ere protagonista egiten ditugu.

Elikadurak heziketa fisikoan eta psikologikoan dauka garrantzia?

Elikadura emozionala ere bada, kultura baten bizi gara... umeak sukaldara hurreratu behar ditugu, erosketak elkarrekin egin, baserritarrarekin kontaktua, natura entzun... Umea jaiotzen denean eraiki egin behar den etxea da. Arkitektoak (barazkiak), energia (zerealak, koipea) eta materiala (proteinak) behar dugu horretarako. 18 urte arte materialaren beharra izango dugu, eta hortik aurrera, mantentzea: arkitektoen beharra. Bizitzako etapa bakoitza ezberdina da.

ZABALIK

ENEIDA ITURBE
'http://goiena.net/iritzia/'



Gizartea protagonista

Artikulu hau idazten dudun bitartean Hosni Mubarak boterean jarraitzen du Egipton. Kairoko Tahrir plazan, baina, milaka egiptoarrek haren dimisioa eskatzen dute eta lortu arte protestak ez direla bukatuko diote.

Badirudi Tunisian, Egipton, Jordanian... kontzientzia berri bat pizten ari dela. Gizarteak bat egin du urteetako bidegabekeriei eta inposaketei aurre egiteko. Milaka gizabanakoren gogoak elkartu eta gogo indartsu eta kolektiboa sortu dute, mugak gainditzen dituen eta askatasuna bilatzen duena.

Diktadura orenen armetako bat adierazpen askatasuna mugatzea da. Nola ez, azken egunetako protestak isiltzen saiatu dira, tartean, herritarrak Internet gabe lagata. Baina sare sozialek, Interneteko enpresek eta, batez ere, erabiltzaileek bat egin dute egiptoarren ahotsa sarean hedatu ahal izateko.

Bereziki hunkitu naute Interneten zabalduetako bideo batean gizon bati entzundako hitzek: "Askatasunerako gobernu eta gizarte berriak nahi ditugu, ez bakarrik Egipton, eskualde guztietan baizik. Gure seme-alabek amets egin dezaten itxaron beharrean, gure ametsak egia bihurtzen ari gara".

Eneko marrazkilariak ere oso ondo islatu du herriaren borondatearen indarra 20 minutos egunkarirako egin duen marrazkian: pelikula baten kartela balitz bezala, gizartea erakusten du protagonista eta politikariak filmeko estra gisa. Hemendik aurrerakoan ere, gizarte demokratiko eta askea sortzeko bidean, protagonismoa herriak mantentzea espero dut.

Otsailaren 6tik 11ra Munduko Foro Soziala ospatu da Afrikako beste hiri batean: Dakarren (Senegal). Ez du duela hamar urte Porto Alegreko lehen foroak izandako oihartzunik lortu; hala ere, milaka gizon eta emakumek, ehunka elkarte, sare, mugimendu eta sindikatuk mundu hobe amestu dute, Egiptoko milaka herritarrek bezala.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | 'mbikuna@goiena.com'

Zorriak buruan eta ibili...

Zorriak ditudala egin dut amets. Ez, ez egin barre. Umeak eskola-adinean ditugun gurasoen amesgaiztoa da. Irailan ikasturterako materiala banatzen dutenean, zorriak barra-barra agertzen dira. Hortxe ibiltzen gara xaboi, xanpu eta bestelakoekin. Horietako askok diote burua behin igurtzita zorri eta bartz guztiak hiltzen direla. Gezurra! Ozpina ere produktu ona ei da zorriak akabatzeko. Nik ez dakit zorri izurritea berez sortzen den, edo produktu miragarri horiek egiten dituzten enpresek botatzen dituzten. Kontua da urteroko aurrekontuan partida berezia gordetzen dudala zorri mada-rikatuak hiltzeko. Erremedioren bat ezagutzen duzue?

"Gizarteak bat egin du urteetako bidegabekeriei-eta aurre egiteko"

KALE INKESTA

Zer deritzozu arriskutsuak diren kiroletan arduragabe jokatzegatik erreskatea istripua izan duenak ordaintzeari?



FERNANDO AMOZARRAIN BERGARA

"Gaizki iruditzen zait. Diru asko gastatzen duela dio Jaurlaritzak, hala ere, zerbitzu hori mantendu beharra dagoela uste dut."



MARIA JESUS ELORRIAGA BERGARA

"Norberak bere ardurak hartu behar ditu halako jardueretan; ondo deritzot. Hori bai, muga non dagoen definitzea zaila da oso".



JOSE ANTONIO MARTIN BERGARA

"Alde guztietatik dirua atera nahi dute. Erreskate zerbitzua denon zergekin ordaintzen da eta, beraz, mantendu egin behar da".



ITZIAR IBARRA BERGARA

"Ondo deritzot. Erreskate gehiegi egoten dira azkenaldian; mendira doana ondo prestatuta joan beharko litzateke".

HANDIK ETA HEMENDIK

Sortu

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Andreu Buenafuente umoregileak, telebistan: harrigarria Espainiako hedabideek zenbat adiera eman dizkioten *Sortu* izenari! Eta nik neure kabutan: eskerrak ez duten euskal hiztegiaren begiratu!

Sortu aditzak, adiera eder guztiz erabilienaz gainera, badiu ezezagunago batzuk ere.

Atzo bigarren bat (sor-tu edo gor bihurtu) gogorarazten zidan *Indianoa* blogariak: "Entzuten ez duena etorri zait niri gogora".

Hitzaren beste adiera batek iskanbila eragitea adierazten du, gaztelaniazko *armar* alegia: "sekulako sestra sortu zian".

Laugarren adiera bat, Axularrek erabilia, zentzumenak sorgortzea da: "Kiratsak guztiz sortu nau", hain zuzen.

Bosgarren batek trabak jartzea adierazten du: "Gurdiko gupila sortu zion". Seigarrenak gogortu aditzarekin berdintzen du hitza: "arrainak zituzten hormatu eta sortu".

Nolanahi ere: ez dago adiera berez txar edo onik, testuinguruak —eguneroko politikak!— bihurtzen ditu on nahiz txar...

"... baina geronen putakumea da"

Juanma Sarasola
http://berria.info/blogak/juanma/

Ameriketako Estatu Batuetako hainbat agintari eta estatu idazkariren ahotan jarritako zita ezaguna duzue honakoa, Washingtonen aliatu ziren diktadoreenganako eta hauen politika zapaltzailearekiko sostengua zuzitzeko erabilia: "Putakumea izango da, baina geronen putakumea da".

Besteak beste, Nikaraguako diktadore izandako Anastasio Somoza arengatik (aita) horrelako esaldia ahoratu omen zuen Franklin Delano Roosevelt AEBetako presidentea, XX. mende erditsuan, eta antzeko hitzekin mintzatu zen AEBetako Estatu idazkari Henry Kissinger, artean Saddam Hussein Washingtonen aliatu zelarik

(1980ko hamarkada bukaera arte).

Jakiteko dago gaur egun Etxe Zuriko agintarien eta hauen agindupekoen artean halako esaldirik erabiltzen duten, egungo diktadoreez nahiz botere abusatzaileez mintzo, AEBen interes geoestrategiko, ekonomiko eta politikoak tartean direlarik haiek sostengatzen segitzeko.

Asteotan hainbat herrialde arabiarretan izandako herri protestak eta matxinadak ikusirik, *Geure putakumeak* izaten segituko al dute —AEBetako eta Europako agintarien begietan— Egiptoko buru Hosni Mubarak, Saudi Arabiako errege absolutu Abdula Ibn Abdulazizek, Marokoko errege Mohamed VI.ak, Jordaniako errege Abdala II.ak... eta abarrek?

Publikoki eta ofizialki "buruzagi", "presidente", "monarka"... aliatuak dira. Publikoki eta ofizialki.

Alabaina, bilkura pribatuetan baliatuko al dute Barack Obamaren, Joseph Bidenen eta Hillary Rodham Clintonen laguntzaileek "our sons of a bitch" (geronen putakumeak) esaldi edo zitala?

Esaldi zitala, handia du zitak iztala.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Itziar Iturbe (Diselina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Iriando
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amalia Mundiano, Zorritza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

QJID erakundeak ikuskatutako astekaria.

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

2011n atera etekina txartelari!

<p>AQUARIUM Donostia, 943 44 00 99</p> <p>Bi erosi eta bat ordaindu. (sarrera garestiena ordainduko da)</p> 	<p>AVIA MECA GASOLINDEGIA Arrasate, 943 79 13 39</p> <p>-%2 erregaian. -%2 dendan.</p> 	<p>AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA Eskoriatza, 943 71 45 66</p> <p>-%8 asteburuko egonaldietan. Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, txakolin botila bat opari (Mendraka).</p> <p>-%10 jatetxeko kartan.</p> 	<p>BARCELÓ BIDAIAK Arrasate, 943 79 70 11 Bergara, 943 76 08 43</p> <p>1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI (kontratatuokoren arabera: asteburuko egonaldia, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)</p> 
<p>BEGIONDO OPTIKA Aretxabaleta, 943 79 98 21</p> <p>-%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.</p> 	<p>GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA Eskoriatza, 943 71 43 41</p> <p>-%50 lehenengo kontsultan.</p> 	<p>ESKO SPORT KIROL DENDA Eskoriatza, 943 71 52 96</p> <p>-%10 produktu eta zerbitzu guztietan</p> 	<p>GAES ENTZUMEN ZENTROA Arrasate, 943 71 27 93 Bergara, 943 76 94 55</p> <p>%10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)</p> 
<p>CLÍNICA DENTAL BERGARA Bergara 943 76 05 77</p> <p>-%10 zerbitzu guztietan -%15 inplanteetan Aho-garbiketa doan, 120 eurotik gorako tratamenduetan.</p> <p>Bazkidearentzat eta familiako batentzat.</p> 	<p>IKER SUKALDEAK Arrasate, 943 79 00 43 Oñati, 943 53 35 48</p> <p>Sukalde osoa erosit, mikrouhin-labea opari.</p> 	<p>LILURA EDERTZE INSTITUTUA Bergara, 943 76 31 71</p> <p>-%15 laser depilazioan: hanka osoa+izterrondoa (besapekoak opari).</p> <p>-%20 elikagai-intolerantzia proban.</p> <p>-%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak</p> <p>-%10 fototerapia bidezko aknearentzako.</p> <p>Bazkidearentzat eta lagunarentzat</p> 	<p>MULTIOPTICAS Arrasate, 943 79 29 95 Bergara, 943 76 15 75</p> <p>%15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)</p> 
<p>NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA Aretxabaleta, 943 08 21 89</p> <p>-%15 zerbitzu guztietan</p> 	<p>RENAULT AUTOBERRI Arrasate, 943 71 24 72</p> <p>-%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.</p> <p>-%25 pneumatikoetan Ordezkapeneko autoa, 20 euro.</p> <p>Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.</p> 	<p>TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 79 51 15</p> <p>-Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.</p> <p>-%50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)</p> 	<p>TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA Donostia, 943 46 44 00</p> <p>Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)</p> <p>-%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)</p> <p>-%10 zubi eta oporraldietan.</p> 
<p>ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA Donostia, 943 01 24 78</p> <p>%10 deskontua</p>  <p>ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian. ▶ Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan. ▶ Zozketa eta promozio berezietan parte hartzeko aukera. <p>Eta klubeko kide zarenez, Home Cinema bat irabazteko aukera izango duzu otsailean!</p>		



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jose Mari Urizar | EAko zinegotzia Arrasaten (1984-1987 eta 1999-2003)

- ▶ Agintaldi bietan momentu nahasiak bizi izan zituen
- ▶ Bigarren agintaldia poztasunez gogoratzen du
- ▶ Garai hartakoa da urbanoa eta errausteko zerbitzua

"Udaletxean egon denari osterera ere bueltatzea gustatzen zaio; politikaren lan politena Udalekoa da"



Zerbitzuetako zinegotzi zela urbanoa jarri zen martxan. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Une garrantzitsuak bizi izan zituen udaletxean Jose Mari Urizar Ametzu-k. Bi agintaldi egin zituen han: lehena, 1984tik 1987ra, Alvaro Arregi alkate zela; eta bigarrena, 1999tik 2003ra, Xabier Zubizarreta Txiron-ekin. Garai haien gainean egin dugu berba datozen lerrootan.

Nolatan aramaioar bat Arrasaten?

Aramaio oso herri polita eta giro onekoa da, baina, zoritxarrez, enpresarik ez zegoen, eta, gertuen zegoena Arrasate zenez, hona etorri nintzen. Lehenengo, Aramaion lanean ibili nintzen, baina gero, lanbide bat ikasteko ilusioa neukan eta mekanikari izateko ikastera etorri nintzen.

Semea bezala, zu ere politikan ibilia zara...

Hala da. Arrasaten ondo integratu nintzen, hemen koadrila eta beste hainbat gauza dauzkat. Eta beti izan dut politikan ibiltzeko eta askatasuna lortzeko gogo. Francoren garaian hor ibili nintzen zerbait egiten, eta, partiduak legezatu zirenean, EAJko kide izan nintzen.

Alvaro Arregi zegoen orduan alkatetzan. Zelan gogoratzen dituzu hiru urte haiek?

Ni urtebete geroago sartu nintzen.

Aurrekoek, Forondak eta Igoak, osasun arazoak zirela-eta kargua utzi behar izan zuten, eta haien ordezkari Lorentxo Altube eta ni sartu ginen. Baina sartu ginenerako martxa hartuta zegoen, batzordeak osatuta, eta guk lagundu eta osoko bilkuretan bozkatu egiten genuen, lan askorik barik.

1986an, EAJren eta EAren arteko zatiketa etorri zen. Zelako eragina izan zuen hark Udalean?

Garaikoetxearen aldera lau zinegotzi pasa ginen: hain justu, Bizente Etxebarria, Lorentxo Altube, Jose Zabarte eta laurok. Dena dela, EAJkoekin ez genuen arazorik izan, eta hartu-emanek

onak izaten jarraitu zuten.

Handik urtebetera Txomin Iturberen heriotza izan zen eta tentsio handiko uneak izan ziren, ezta?

Bai. Une gogorak ziren. Alde batetik eta bestetik hilketak zeuden eta bertako semea hiltzen zenean oso gogorra zen. Gu erdian geunden; batetik, EAJk Eusko Jaurlaritzako indarra zeukan eta hark esaten zuena egiten genuen; bestetik, beste pentsamendu bat zutenak zeuden. Osoko bilkuretan izaten genituen iskanbilak.

1999an udaletxera itzuli zinen osterera ere. Zergatik?

Behin udaletxean egon denari osterera bueltatzea gustatzen zaio; politikaren lan politena Udalekoa



Jose Mari Urizar, 2002an, errausketa ikusteko gelan. | ARRASATE PRESS

da. Finean, lana udaletxean egiten da. Lan egiteko gogoia badaukazu, herriko jendearekin hartu-eman zuzena duzu. Proposatu eta onartu egin nuen.

Xabier Zubizarretarekin, Gobernuan egon zinen. Zerbitzuetako buru eta auzoetako arduradun izan zinen.

Nola gogoratzen duzu agintaldia?

Oso urte politikak izan ziren. Lan asko egin genuen. Ezker abertzaleko, Ezker Batuko eta EAko ordezkariak egon ginen Gobernuan. Ondo konpondu ginen, Txiron oso eskuzabala izan zen. Gogoratzen naiz ardura hartu genuenean, kanposantua zelan zegoen ikusten egon ginela. 200 toki zeuden jendea lurperatzeko

eta oraindik hiru urtean ezin genituen atera lehendik lurperatuta zeudenak. Arrasaten 160 lagun inguru hiltzen ziren urtean. Ez geneukan dirurik eta gorpuak errausteko zerbitzua jartzea pentsatu genuen. Txiron-ekin komentatu eta aurrera egin genuen.

Ze beste proiektu egin zen?

Urbanoa garai hartan jarri genuen, eta udaltzainak ere gauean lan egiten hasi ziren orduan. Plan Orokorrearekin ere ibili ginen.

2003an, ezker abertzalearen ilegalizazioa izan zen. Nola bizi izan zenuen egoera hura?

Gaizki. Plan Orokorra onartu genuenean mehatxuak jaso genituen esanez hori aldatu egingo zela. Zoritxarrez, hainbat tokitan aldatu egin zuten, eta horrek min egiten du; adostasun zabalarekin atera genuen hori aurrera. Gelmara begiratu baino ez dugu; etxe libreak saldu barik daude eta babes ofizialekoak falta dira.

Erretiratuta zaude aspaldi; zertan ematen duzu orain denbora?

Oso ondo. Mendizalea izan naiz beti eta goizetan mendira joaten naiz; ehiztaria ere banaiz eta perretxikotan eta susatan ibiltzea gustuko dut. Ametzu baserrira ere inoiz baino gehiago joaten naiz. Ez naiz aspertzten.

"Beti izan dut politikan ibiltzeko eta askatasuna lortzeko gogoia"

"Zubizarretarekin oso urte politikak izan ziren; lan asko egin genuen"

SEGOVIAKO IHESA

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | FILMA ETA TERTULIA

OTSAILAK 16, EGUAZTENA, 20:45 TERTULIA | 21:45 FILMA | TXOMIN MADINAK AURKEZTUTA



HERRIAK

ELGETA

GR-121 ibilbideak herriko kaleetan geldiuinea egingo du aurrerantzean

Gipuzkoako Mendi Federazioa egokitzapenak egiten dabil Gipuzkoako itzulian

MIRIAN BITERI | ELGETA

Elgetako ingurunean mendian ibiltzea gustuko dutenek ibilbide berriak izango dituzte laster geru. Gipuzkoako Foru Aldundiak hala eskatuta, Gipuzkoako Mendizale Federazioa ibilbide homologatuak berrikusten eta egokitzen ari da, eta asteotan Elgetan dabilza, GR-121 delako ibilbidea txukuntzen.

Gipuzkoako Mendi Federazioko zuzendari-laguntzaile Igor Aldalurrek azaldu du orain dela bi urte Gipuzkoa zeharkatzen duen itzuliaren gaineko azterketa eskatu zuela Diputazioak, bi irizpide kontuan hartuta: batetik, ibilbidea Gipuzkoara mugatzea; lehen, hainbat zatitan Bizkaia, Araba eta Nafarroatik pasatzen zen. Elgeta bete-betean hartzen zuen hori, lehengo 8. etapa Ermua eta Kanpazar artekoa zelako. Bestetik, ibilbideak herrigunee-tara eraman gura zituen Diputazioak.

Azterketa egin ostean, ibilbidea egokitzen eta margotzen dabilza. Aldalurren esanetan, Hondarribia eta Zumaia arteko kostaldeko zatia dagoeneko egin dago, eta orain, Deba-Eibar etapaz gain, Eibar-Elgeta eta Elgeta-Gesalibar zatietan ari dira lan egiten. Eibar-Elgeta zatia margotuta dago eta Elgeta-Gesalibarri dagokionez, Kanpanzarerraino iritsi dira dagoeneko.

Mendizaletasunean eredu

Aldalurrek nabarmendu du Elgetari "protagonismoa" eman nahi izan zaiola etapa baten bukaera eta beste baten hasiera emanda. Haren esanetan, "euskal mendizaletasunean Elgeta oso herri inportantea da, Euskal Mendizale Federazioa bertan sortu zen-eta".

GR-121 ibilbidea marra zuri-gorriekin margotzeaz gain, ibilbidean zehar seinale bertikalak jarriko dituzte, beste ibilbide homologatuekin (PR edo SL) gurutzatzen den bakoitzean. Informazio panelak jartzeko asmoa ere badute. Dena behar bezala joanez gero, hilabete eta erdi inguru beharko dute ibilbidea txukun uzteko.

Orain arte, Eibarko Kalamoatik jaistean, Uzartza gainetik, Urkotik Ermura jaitsi izan da, eta handik Aixolako presatik Intxorta hegoaldera joaten da. Aldalurren esanetan, "Eibarko



Intxortako atea eskulturaren ondoan hainbat ibilbide homologatu gurutzatzen dira; horiek margotzen dabilza egunotan. | MIRIAN BITERI

ESANAK

"Elgeta herri inportantea da, Euskal Mendizale Federazioa bertan sortu zen-eta"

IGOR ALDALUR | FEDERAZIOKO KIDEA

saihesbidea dela-eta ibilbidea moztuta geratu da; eta orain, Uzartzatik Eibarrera jaisten da zuzenean, eta handik Elgetako herrira igoko da. Handik Intxortako ateraino doa eta handik, lehengo bidetik, Kanpanzarerraino". Hain justu, 36ko gerraren gaineko ibilbide tematikoa hartuko du Asentziaraino GR-121 bideak.

Ibilbide tematikoa, SL bihurtu Azken horrekin lotuta, Aldalurrek azaldu digu Elgetako Udalak hila-bete honetan aurrekontua eska-

tu diela ibilbide tematikoa eta PR-95 zaharberritzeko. Ibilbide tematikoa, gainera, SL ibilbide bihurtuko da, marra zuri-berdeekin. "Jendea galdu egiten ei da, eta horrelako ibilbide bihurtzeak segurtasuna ematen du; eragin-korra da jendea gal ez dadin. Mendi-ibiliak egiten dituztenendako aski ezagunak diren marrak dira".

Horretaz gainera, Gipuzkoako Mendi Federazioko kideak gaineratu nahi izan du horrelako ibilbideak egokitzea ona izan daitekeela turismoa erakartzeko: "Elgeta batendako SL bezalako ibilbide berri bat oso ona da; diru askorik eskatzen ez duen baina, aldi berean, errentagarria den inbertsio bat da. Jendea ibilbide bat egitera joaten baldin bada eta galdu egiten bada, oso inpresio txarrarekin joaten da; hobe da jendea pozik izatea; menditik buelta egitea eta gero Elgetan bazkaltzea. Hori ona da denondako".

Ibilbide tematikoa asteon bertan markatzeko asmoa dute, esan bezala, SL ibilbideei dagozkien marra zuri-berdeekin; 6 eta 7 kilometro arteko luzera izango ditu horrek.

Ibilbide tematikoa babeslekua

Espainiako gerraren gaineko ibilbide tematikoa, lubakien gunean, babeslekua egiten dabilza. Udalak garai hartako laupazbost babesbeluren toki zehatza ezagutzen du, eta horietako bat berreskuratzeotan dabilza. Oxel Erostarbe alkatearen esanetan, egunotan amaituko dituzte lanak: "Saiatu gara gerra sasoiari egin ziren moduan egiten, eta horretan lagundu digute Intxorta 1937 elkarteok". Gordelekuaren altuera 1,60 metro da eta 16 metro inguru izango ditu. Horrekin batera, hainbat lubakiren zakuak ere aldatzen ari direla esan du alkateak; telazkoak dira, eta margo berezia izango dute eguzkiak eta euriak kalte ez ditzaten.

Bisita gidatuei dagokionez, alkateak azaldu du martxoan hasiko direla osterara ere. Hilabeteko lehenengo eta azkenengo domeketan izango dira; astean zehar egiteko aukera ere badago.



Gerra garaiko babeslekua egiten dabilza. | MIRIAN BITERI



Tantaren bat egin zuen arren, eguraldia ere portatu zen azkenean eta giro ederrean egin zuten Loramendik antolatutako ibilbidea. | JULIO CALLEJA

ARETXABALETA

Etxe inguruak hobeto ezagutzen, 80 bat lagun ibilbide historikoan

Izurieta, Ametza, Galartza eta Zaloña bisitatu zituzten eta uretzak eta karobia ikusi, besteak beste

JULEN IRIONDO | ARETXABALETA
Izurietatik Ametzara bidean dauden bi uretzak; edo Izurieta Aurrekoa baserri inguruko karobia; han zirela jakin bai baina haiei

lotutako historiaren berririk ez, edo jakin ere ez zirenik. Ba herriko inguruak eta haiei buruzko kontuak hobeto ezagutzeko helburuarekin egin zuten zapatu

goizean Aretxabaletan Loramendik antolatutako bigarren ibilbide historikoa, toponimia taldearen eskutik.

Deialdiak erantzun aparta izan zuen, eta 80 inguru izan ziren Izurieta, Ametza, Galartza eta Zaloña inguruetatik ibilaldia egin zutenak, bidean, hainbat txokoren gainean, Jesus Osinagak emandako azalpenak jasoaz. Guraso gazteak umekin eta baita jende heldua ere, denetarikoa batu ziren.

Hurrengo udaberrian

Pausoz pauso eta azalpenak bata bestearen ondotik, eguerdirako gosetxo egin zuten ibiltariak, eta Galartzan geratu ziren hamaitaketa egitera. Handik Zaloñara eta, iragarritako bidea luzeagoa zen arren, bertan hartu zuten berriz ere herrirako bidea.

Loramenditik eskertu gura izan zuten auzotarrek emandako laguntza –elizako atea zabalduz, adibidez–; baita toponimia taldeak egindako lana ere –ibilbideko hainbat elementu berreskuratuz–; bidea markatuta geratu zedin plakak egiten institutukoek emandako laguntza ere eskertu zuten, eta baita hitzordura hainbeste jende joan izana ere. Gisa horretako bigarren ibilbidea izan da hau; hirugarrena udaberrian egingo dute, Arkarazo eta Koruetan inguruetan.

Gipuzkoa
elkarlanaren emaitza



2011 | **Krisiaren aurkako Plana**

100 milioi euro

2010ean, honetarako neurriak bultzatu ditugu:

- 5.000 enplegu baino gehiagori eutsi.
- 200dik gora enpresa-proiekturi.
- 181 gazte gaitu kontratatu.

2011rako, plan berri bat daukagu:

- Enplegua sortzea.
- Lan-munduratzeari bultzatzea.
- Mikroenpresak sortzea.
- Autonomoei laguntzea.
- Nazioartekotzea eta berrikuntza sustatzea.



GIPUZKOA
zurekin, aurrera

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

www.2011krisiarenaurkakoplana.net



NAZARIO MEABE
PARTE-HARTZAILEA

"Askotan ibiltzen gara leku hauetatik, baina detaileetan-eta oharitu barik. Bidea oso kurioso utzi dute markatuta, eta galduta zeuden uretzak-eta berreskuratutuzte. Ibilaldi ederra izan da, oso giro onean egin dugu."



MARIA DOLORES AKIXU
PARTE-HARTZAILEA

"Primeran egon da, ederki antolatuta. Adibidez, karobia dagoen lekuan nik beti ikusi izan dut zuloa, baina dagoeneko ez nuen gogoratzen zertarako zen ere. Kanean egin zuten lehenengo ibilbidean ere egon nintzen."



PEIO CABALLERO
PARTE-HARTZAILEA

"Oso ondo egon da. Gustatu zait Izurietako ermita; erromatarren garaiko aztarnen berri eman digute. Leku ezagunak ziren baina entzun gabeko hainbat istorio ezagutu ditugu. Hurrengoan ere etorriko gara."

ARRASATE

Mahai-jolas bitxiak larunbat arratsaldean

Zapatu arratsaldean dado hotsek eta fitxen igurtziek hartu zuten Kulturateko areto nagusia, han egin zuten-eta Gazte Txokoetakoek hitzordua mahai-jokoetan jarduteko. Ohiko jokoetatik gutxi: blokus, Ubongo, Davinci, Lobo77... Tradizionaletatik urrun, garai berrietarako jolas berriak.





Ozpinetan ondutako produktuen postua. | JULIO CALLEJA

BERGARA

Ahorako gutizien eta etxerako osagarri bitxien azoka asteburuan

Bigarren Zaporeen Azoka egin dute eguenean hasi eta domeka bitartean

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Zaporeen azoka izanik ere, erosten arreta bertan aurki zitezkeen hestebete, ozpinetan ondutako produktu, gazta eta taloez gain, etxerako produktuek erakarri zuten. Aurreko urtean erosi eta gustatuta, eguenetik domekara arte jende ugari joan zen zikintzen ez den mahai-oihalaren edota *Piedra Blanca* izeneko belakiaren bila. Espainiako eta Euskal Herriko gutizia ugari ere bazegoen.

Jateko gutizia

Jatera ere, noski asko gerturatu ziren, ahora doan zer eramana ere egon zen-eta: domeka eguerdian babarrunak banatu zituzten. Horrez gain, ez zuen ezta hutsik egin iazko *pulpeiroak*, olagarroaren maisuak eta zapore tradizionalagoen zaleek taloa izan zuten prezio eskuragarrian. Jatekoekin eta etxerako produktu zein artisautekoekin, 22 postu zeuden azokan guztira.

AZAROA - URTARRILA
SARI NAGUSIAREN
IRABAZLEA

EUSEBIO ERRASTI

26 hazbeteko telebista
ZORIONAK!

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

Zuk ere
hurrengo sari
nagusia irabazi
nahi?

goienakluba[™] 2011



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.



HECTOR ORBISO
BURGOSKO ODOLOSTEAK

"Lasai baina eguerdia aldera jendea animatzen da erostera. Guk Burgosko odolostea eskaintzen dugu eta hemen bestelako odolostea izanda ere, jendeak asko estimatzen duen produktua da. Gainera probatzeko eman eta gehienek azkenean erosi egiten dute. Oso fama ona du inguru honetan Burgosko odolostea. Kuriositatez bada ere, jende asko gerturatu zaigu."



JUAN TENA
HESTEBETEAK, EXTREMADURA

"Salmenta kontua konplikatua xamar dabil krisiak gauzak beltz jartzen baititu baina ez gara txarto ibili. Guk kalitatezko produktu iberiarak eskaintzen ditugu, Extremadurakoak, eta jendeak badaki hori oso ona dela. Gainera prezio onak eskaintzen ditugu. Zalantzan dagoenari probatzeko ematen diogu eta orduan bai, ez dago zalantzarik, azkenean erosi egiten dute."



ARETXABAETA

JULIO CALLEJA

Graffiti tailerra gazteentzat

Sprayak hartu, sormenari eragin eta graffiti ikusgarriak egin zituzten zapatu arratsaldean Aretxabaetan.

Gaztelekuan hitzordua egin eta kanpoaldean marraztu zituzten irudiak horretarako gertaturiko oholetan.

Guztira bost panel egin zituzten Haritz Inurritegi graffitilaria laguntzaile zutela. Behin bozetoak prest, taldeetan banatu eta lanari ekin zioten. 13 eta 15 bat urte bitarteko gazteak animatu ziren zapatuan Txatxilipurdik antolatutako ekintzan parte hartzera.



ARRASATE

JULIO CALLEJA

Angula eta bixiguen jabeak

Barikuan egin zuten Arrasaten Pilota Taldearen Gabonetako zozketaren sari banaketa. Eguren arrandegian egin zuten eta bertan jaso ahal izan zituzten bixigu eta angulak. Kepa Urria eta Lourdes Murgiondok eroan dituzte etxera bixigu bina eta angula kilo. Saria ikusita, ez da harrizkoa aurten ere irabazleak hain azkar agertu izana.

Bigarren uzta ematen hasi dira Garagartzako baratze ekologikoak

Kipulak, patata goiztiarra, ilarrak... landatzen dihardute orain erabiltzaileek

UBANE MADERA | ARRASATE

Konturatu orduko, urtebete baino gehiago pasatu da Garagartzan Udalak egokitutako baratze ekologikoak erabiltzen hasi zirenetik. Are gehiago, ortuen erabiltzaileak dagoeneko bigarren uzta prestatzen dabilta, orturako bidea ondo ikasita: "Jendea gero eta lotura handiagoa hartzen dabil baratzearekin, eta hori positiboa da", adierazi du Pello Garaik, Udaleko Ingurumen teknikariak.

Konpartitu eta ikasi

Ortuetan bertan sumatzen da giro ona dagoela. Erabiltzaileek elkarren artean gero eta harreman sendoa dute; elkarrekin ere osatu dutela kontatu dute: Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkarteak; eta laster udal ordezkariarekin egon gura dute, ortuen kudeaketa euren hartzeko. "Denak ezagunak gara, bata 'horrela ipini', besteak 'orain ez ezak ipini, beranduago ipini behar duk'... ortuko berriketak erabiltzen ditugu", dio Antxonek. "Abantailatariko bat hori da, harremanetarako aukera ematen duela: bati galdetu, besteak esan... dakiguna elkarrekin konpartituz ikasten jarraitzen dugu", gaineratu du Edurnek.

Transgenikorik ez, ekologikoa

Horrez gainera, eta nahiz eta oraindik negua izan, barazki asko dago lursailetan. Eta guztiak dira ekologikoak, ze horixe zen, hain justu, Udalak ezarritako irizpideetako bat: "Gure aitaita eta amamek orain dela 80 urte egiten zuten nekazaritza mota praktikatzeko da, produktu kimiko eta halako boti-



Belaunaldi askotariko pertsonak ibiltzen dira Garagartzako ortu ekologikoak lantzen. | UBANE MADERA



FABIAN MARTIN

"Lurra prestatzen gabiltza; lan handia egin behar izan dugu, harri asko zegoelako azpian. Uzta onenak hemendik aurrera hartuko ditugu. Baina asko eskertzen dugu halako leku bat izatea. Hori bai, garesti samarrak dira ortuak."



ANTXON ZUMALDE

"Oso gustura gabiltza. Etorri eta ahaztu egiten naiz guztiarekin. Gehienetan oinez etortzen naiz. Paseotxo da, ederki dago. Merkeak ez dira, baina gozatu egiten dugu. Kalean tilin-talan ibili beharrean, hemen hobeto."



JESUS MARI HERIZ

"Hasi berria naiz. Ikasten ari gara. Odol baserritarra daukat, baina kaletarra naiz guztiz. Oso gustura etortzen naiz. Psikologikoki ere oso ona da: hona etorri, izerdia bota... eta gustu bikoitza dauka norberak landatutakoa jatea."



EDURNE BALTZATEGI

"Urtebete pasa da eta nik oso gustura hartu dut erdi deskubritzeko neukan zaletasun hau. Lehen urtea ondo joan zait eta, berez, 20 urterako daukagu alokairua; beraz, ez bagara nekatzen, hemen segituko dugu."

Oraingo astean zabalduko dute Gelmako zubia

Ezustekorik ezean, datozen egunotan zabalduko dute Gelmako oinezkoen zubia. Urtarrilaren amaierarako bukatuta behar zuen, baina obretan horren ohikoak izaten diren azken ordukoek atzeratu egin dute obra amaiera. Obenerreka enpresatik esandakoaren arabera, gaur biharretan hasiko dira barandako kristalak ipintzen.



UBANE MADERA

Epele-Elorregi arteko bidegorria, gaur aztergai

Epele eta Elorregi arteko bizikleta eta oinezkoendako bidea eraikitze proiektua aurkeztuko dio gaur, astelehena, Gipuzkoako Diputazioak Udala Gobernuari, proiektua onar dezan. Horrekin batera, bidegorria eraikitze desjabetu beharreko lurren zerrenda ere aurkeztuko du; eta, era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatuko dio obra horrek daukan premia aitortu dezan.

Bestalde, Kanpanzar harrobia ere berbegai izango dute gaur arratsaldeko batzarrean. Batetik, harrobi horrek ingurumenaren duen eraginaren txostena aztertuko dute; eta bestetik, idatzi bat aztertuko dute: "Harrobian egindako meatze ikerketa lanak amaitzearekin zerikusia duen argitze idatzia", hain justu.

Urtetik urtera hobetzen doa Arrasaten arnasten den airearen kalitatea

- ▶ Orain dela hiru urte PM10 partikula gehiegizkoak atzematen ziren airean urteko zenbait egunetan
- ▶ Partikula horiek gutxitu egin dira, AP-1 autobideko obrak bukatu direlako eta San Josepe itxi dutelako

UBANE MADERA | ARRASATE

Azken egunotan bolo-bolo dabil Euskal Herriko hiri batzuetan –eta bereziki Espainiako bi hiri handienetan– kutsadura handitu egin dela.

Arrasaten ere halaxe zen orain ez urte asko. Urrutirago joan barik, 2008an bertan Ekologistak Martxan elkarteak salatu zuen Arrasaten kutsatutako airea arnasten genuela. Hain zuzen ere, hautsak kutsatutako airea, edo zehatzago esanda, suspentsioan zeuden PM10 izeneko partikulek sortutako hautsa zegoela airean.

Erabateko buelta

Bada, egoerari erabateko buelta eman dio Arrasatek azkeneko urteotan. Rafa Ugarte Ingurumen Saileko teknikariak baieztatu du halaxe dela, azken urteotan Arrasateko airean ez dutela antzeman PM10 partikulekin arazorik dagoenik. Eta udal teknikariak azpimarratu du, gainera, urtetik urtera Arrasateko airearen kalitatea hobetzen doala: "2009ko datuak oso nabarmenak dira, asko jaitsi da kutsa-



Arrasaten ez da atzematen beste hiri batzuetan ikusten den kutsadura-txapelik. | UBANE MADERA

dura, eta 2010eko datuak, Jaur-laritzatik konfirmatu barik izan arren, asko hobetu dira. 2009koak dira 2008koak baino hobeak, baina 2010ekoak dira 2009koak baino askoz hobeak. Beraz, ematen du hobera doala airearen kalitatea".

Obrak eta harrobia

Hobetze horren arrazoiak bi direla adierazi du udal teknikariak: obren bukaera eta harrobiaren itxiera: "Bere garaian egindako airearen diagnostikoan adierazten zen PM10 partikulen jatorria zirela inguruko obrak, lur mugimen-

duak eta autoen eskapeak. Zirkulazioa ez dut uste jaitsi denik, are gehiago, seguru aski gora egin du; beraz, orokorrean badirudi eragina izan dutela AP-1 autobideko obrak bukatu izanak eta San Josepe harrobia ixteak. Hala ere, kontuan hartu beharra dago datuok

KUTSATUTAKO EGUN KOPURUA

URTEA	EGUNAK
2003	41
2004	44
2005	73
2006	90
2007	52
2008	37
2009	25
2010	3

eguraldiaren arabera aldatu egiten direla, eta euria egiten badu, partikulak joan egiten direla".

Beraz, orain Arrasaten airearen erabateko kalitatea lortzeko gaintitu beharreko erronka zirkulazioa txikitzea da. Ugartek esperantza badu zerbait lortuko dela: "Udala ahalegina egiten badabil, garraio publikoa hobetu eta zerbitzuaren maiztasuna bikoiztuta. Ea igartzen den".

Sufrea, ozonoa eta beste

Laubide plazako kabinan neurtzen da airearen kalitatea. Sufrea, monoxido karbonoa, ozonoa eta PM10 partikulak neurtzen dira. Eusko Jaur-laritzak batzen ditu datuok, haren eskumena da-eta lan hori.

Jon Ugarte | Aratusteetako antolakuntza batzordeko kidea

"Bazkariko txartelak erosteko azkar ibiltzea komeni da"

Herri bazkarirako txartelak salgai daude egubakoitzetik Basati, Iluntz, Monte eta Kajoi tabernetan, 20 eurotan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Zapatua ere aratusteetako egun handia izango da. Orain dela bost urte hasi ziren zapatuko festa sustatu guran eta proposamena dagoeneko ondo erroto da Arrasaten.

Urtetxo batzuk badira dagoeneko eta jaiak leku sendoa hartu du. Espero dezakegu dagoeneko sorpresarik?

Ez, ze jaiak hartu du bere lekua. Egitaraua ere urteroko berdina izango da.

Partaidetza baina urtero bezain handia izatea esperoko duzue, ezta?

Urterik urte jende gehiago animatzen da eta hori asko da. Aurten ere espero genezake jende gehiago etortzea. Egitaraua, baina, urteroko berdina izango da.

Jendea bai, baina mozorro eta sormen aldetik ere badago mailarik? Esan daiteke baietz. Jendeak lan handia egiten du eta hori ikusi egiten da. Sormenez ondo dabilta arrasatearrak, bai.

Hain zuzen, jendearen zein koadrilen parte-hartzea ezinbestekoa izango da arrakastarako.

Uste dut jendeak dagoeneko kontuan hartzen duela zapatuko egun hau eta prestatzen hasten dira aurretik.

Gatozen egitaraua. Zer aurkituko dugu aurten?

Lehenengo hitzordua Laubide plazan izango da, eguerdiko 12:30ean. Pregoia irakurriko dute aurreko urteko mozorro lehiaketako koadrila irabazlekoek eta orduan elkartuko gara guztiak. Handik hasiko da kalejira txupina bota eta gero. Kalejiran *batukada* talde batek eta, ziurrenik, txaranga batek lagunduko gaitu. Gero, herri bazkarira joango gara.

"Jendeak dagoeneko kontuan hartzen du zapatuko eguna"

Txartelak dagoeneko salgai daude?


Uarkape pilotalekuan izango da, ohi bezala. Ostiralean ipini genituen salgai. 750 lagunendako tokia dago, pilotalekuaren edukiera guztia aprobetxatzen saiatzen gara-eta. Basati, Iluntz, Monte eta Kajoi tabernetan eskura daitezke txartelak 20 eurotan. Arin ibiltzea komeni da, ze aurreko urteetan oso azkar agortu ziren txartelak, egun pare baten.

Arratsaldean ere jarraituko du egitarauak?

Bai, bazkalostean mozorro lehiaketako sarien banaketa egingo dugu; karroza, koadrilla eta taberna onenari emango dizkiegu sariak eta ostean, amaitzeko, kalejira txiki bat egingo dugu goizean ibili ez garen kaleetatik.

Mezu ala oharrik baduzue jendeari emateko?

Batez ere azkar ibil daitezela eta animatzea karrozak egin eta jaietan parte hartzera. Karrozak egiteko Gaztetxean egongo



Jon Ugarte, aurtengo kartela eskuetan duela. | JOKIN BEREZIARTUA

"Gaztetxean karrozak hilaren 28tik aurrera egin ahalko dira"

da lekua, baina aurten bakarrik otsailaren 28tik martxoaren 3ra arte egongo da zabalik eta ostean, aratusteak eta gero, ere ezingo dira Gaztetxean utzi karrozak aurreko urteetan bezala.



Zurratik herriaren ikuspegi ederraz goza daiteke. | MONIKA BELASTEGI

Trenbide Xenda aldatuko dute homologatua izateko

Deskatalogazio arriskuan zegoen, orain arteko ibilbideak ez zituelako beharrezko homologazio irizpideak betetzen; hala, ibilbidea moldatuko dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gipuzkoako Mendizale Federazioa Gipuzkoako ibilbide homologatu guztiak berrikusten ari da, Foru Aldundiak hala eskatuta. Zeregin horretan, ikusi dute ibilbideetako batzuk ez direla behar bezala mantentzen eta mendi ibilaldiak egiteko behar diren segurtasun

baldintzak ez direla izan beharko lirakeenak. Eta horrela jakinarazi diete ibilbide homologatuak dituzten udalei.

Bergararen kasuan, bi ibilbide homologatu daude: bata da Trenbide Xenda (PR-Gi 93) deritzona; bestea, Tumulu Xenda (PR-Gi 94). Tumulu Xendaren

kasuan, egoera onargarria delad dio Gipuzkoako Mendizale Federazioak egindako azterketak. Trenbide Xendak, berriz, ez ditu gutxieneko homologazio irizpideak betetzen, eta halakoen aurrean bi aukera daude: ibilbideak deskatalogatzea eta bertan behera lagatzea, edo onartzea eta man-

tenua egiteko konpromisoa hartzea. Horrekin, eta gai horretan inplikaturako Udaleko sailek -Ingurumena, Turismoa eta Kiro-lak- hausnarketa egin eta gero, aurrera egitea erabaki dute, baina ibilbidea aldatuta.

Ibilbidea aldatuta

Trenbide Xendaren (PR-Gi 93) zati handi bat goiko trenbidetik doa, eta, goiko trenbidea asko erabiltzen den arren, mantentze-lanik ez da egiten, seinaleztape-nik ez dago eta, gainera, zati handi baten guneko urbano eta industrialak zeharkatzen ditu, eta ibilbideari kalitatea kendu.

Horregatik, ibilbidea aldatu, eta honako berria proposatzen dute: Matxiategi auzoan hasiko da, orain artekoa bezala, Agorrosin parean, hain justu ere. Handik, Goiazorako bidea hartuko du eta San Martzial ermitatik igaro eta gero, Zurrarantz egingo du, eta San Antonio auzora jaitzi. San Antoniotik trenbidera igoko da, eta, trazatu hori jarraituta, Goiko Estazinora iritsiko da. Han, Moiuua kalean barrena jaitziko da eta Agorrosinera itzuli.

Naiara Corcuera Ingurumen teknikariaren esanetan, ibilbidearen luzera 10 kilometro inguru da, eta, zorua asfaltoz, porlanez eta *todounoz* estalita dagoen arren, "paisaia, natura, kultura eta ondare aldetik balio handiko lekuetatik igarotzen da". Hain justu ere, ibilbide hori da Udalak garatu nahi duen Gerriko Berdearen ardatza.

Mendi Federazioak Udalak proposaturako ibilbide berria homologatzeko, gutxieneko ekipamendua jarri behar da: balizaia, geziak... eta gainbegiratu ere egin behar da ibilbidea. Zereginon gastua 1.136 euro da eta epe motzean eginda egongo dira.

Ibilbidean, 7 interesgune

SAN MARTZIAL Interes kultural (ermita, iturriaren kondaira...) eta naturala (Askatsuko haritzia, landaredia, leizea...) ditu; aisialdirako ekipamendua (iturria, mahaiak, umeendako ziburuak); eta paisaia ederra.

ZURRAGA

San Martin Agirrerren omenezko gurutzea dago.

Herriaren zein bailararen ikuspegi onak daude, eta landaredia interesgarria ere badu, baserri giroarekin batera.

AGARREKO GARAIA

XVI.

mendekoa da, Gipuzkoan geratzen den jatorrizko bakarra.

GABIRIA DORREA

Monumentu izenpena du.

TRENBIDEA Handik ikuspegia ederra izateaz gain, interes geologiko eta kulturalako gunea da. Aisialdigunea ere bai.

MOIUA

JAUREGIA

Monumentu izendapena du.

AGORROSIN

Ibilbidearen bukaeran dago eta bainuetxea du.

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak biltegia zabalduko du apiril hasieran San Juanen

200 metro karratuko biltegia izango da eta 35 boluntariok jardungo dute han, elikagaiak jaso, gorde eta banatze lanetan

M.B. | BERGARA

Gipuzkoako Elikagai Bankuak biltegia zabalduko du herrian. Bertako arduradunen esanetan, apirilaren zabalduko dute eta San Juan auzoko 200 metro karratuko pabiloi baten egongo da. Oraindik ez dituzte pabiloia egokitzeko lanak hasi, laster hasiko dituztela adierazi dute bankuko arduradunek, apiril hasierarako prest egotea nahi dute-eta.

Bestalde, azpimarratu dute bailarako boluntarioen artean biltegi berriak izan duen harre-ra onari esker irekiera data aurreratzeko aukera izan dute-la. Horrekin batera, gehitu dute biltegi hori irekitzeko dirulaguntza eman dutela Gipuzkoako Foru Aldundiak eta beste hainbat erakundek.

Boluntarioei dagokienez, 35 arituko dira biltegi berrian eta euren zeregina izango da elikagaiak jasotzea, gordetzea eta banatzea.

6.000 pertsona gehiago

Gaur egun Oiartzundik banatzen ditu Gipuzkoako Elikagai Bankuak elikagaiak, doan, Deba eta

Urola bailaretara. 2010ean egoera oso larrian eta gizarte-bazterketa arriskuan zeuden 2.500 bat pertsona lagundu zituzten, bi bailarotako elkarte bitartez. Bada, gurean zabalduko duten biltegi berriarekin lagunduko duten pertsona kopurua nabarmen handitzea espero dute. Hau da, beste 6.000 pertsona gehiagori laguntzeko moduan egongo direla uste dute.

Laguntzeko, izena eman

Gipuzkoako Elikagai Bankutik janaria hartu nahi duten Debagoieneko elkarteek eskaria egin dezaketela ere aurreratu dute Elikagai Bankutik.

Horretarako, 943 49 37 96 telefono zenbakira dei dezakete eta bancalig@hotmail.com helbidera idatzi.

DATUA

8.500

PERTSONA

Biltegi berriarekin Deba eta Urola bailaretako 8.500 laguni lagunduko diete.

Ur jolasak eta puzgarriak Agorrosinen hilaren 19an

M.B. | BERGARA

Udal Kirol Zerbitzuak dinamizazio ekintzak antolatzen ditu hilean behin umeendako, eta Agorrosingo igerilekuan hainbat ekintza egiten dituzte. Bada, hurrengo hitzordua hilaren 19an, zapatua, izango da, 16:30etik 19:45era.

Igerileku txikian 8 urtetik beherako haurrek jolas egiteko materiala egongo da eta jolasak ere antolatuko dituzte.

8 urtetik gorako umeendako, berriz, puzgarri handi bat ipiniko dute igerileku handian. Horrekin batera, jokoak ere antolatuko dituzte.

Ekintzetan parte hartzeko eguneko sarrera ordaindu beharko da, edo abonatuia izan.

Kart autoetan ibiltzeko irteera, Jardunekin

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarte haur eta gazte sailak irteera antolatuko du hilaren 26rako Gasteizko Karting Indoorra -kartan zirkuitu estalia-. 15:00etan abiatuko dira Gasteizera, autobus geltokitik, eta 19:30erako itzuliko dira.

Izenematea zabalik dago

Izenematea dagoeneko zabalik dago hilaren 17ra arte Jardunen bulegoan (Errotalde jauregia). 35 lagunendako lekua dago eta izena eman ahala beteko dira. Kontuan hartzea da, bestalde, elkarte Txaplignu taldean -asteburuko aisialdi talde- dabilzanek lehentasuna izango dutela. Irteeraren prezioa 25 euro da; 23 euro, elkarte bazkideendako.

Arreta integrala eskaintzea izango du helburu eguneko zentro inauguratu berriak

- ▶ Alkatea, Gizarte politikako diputatua eta Aita Menniko zuzendaria izan ziren inagurazioan
- ▶ Eguneko zentroak bereizgarri bat du: asteburuetan ere eskainiko du adindunendako zerbitzua

IRATI GOITIA | BERGARA

Eguneko zentroa joan den eguean inauguratu zuten eta han izan ziren, besteak beste, Agurte Barruso –alkatea–, Iñaki Agirre –Aita Menniko zuzendari-gerentea– eta Maite Etxaniz –Gizarte Politikako foru diputatua–. Erabiltzaileak, baina, abendua ezke-ro daude han.

Egun pozgarria

Barrusok egun pozgarria zela esanez hasi zuen inagurazio ekitaldia, iristea kostatu zaion arren. Izan ere, bi urtez egon da itxita Bergarako zentroa lanengatik, eta erabiltzaileek Antzuolara joan-etorrian ibili behar izan dute: "Gaur hona etorri eta nola geratu den ikusteak itxaronaldia ahaztarazten digu. Gainera, pozgarria da bergararrak berriz Bergarara itzuli direla ikustea eta etxetik gertu daudela jakitea". Barrusoren hitzak adi-adi entzuten zebiltzan adindunetako batek, hori entzunda: "Gu ere poztun gara berriz Bergaran izateaz", erantzun zion. Barren-barrenetik bota zuen.

Eguneko zentroak ematen duen zerbitzuaren garrantzia ere azpimarratu nahi izan zuen alkateak: "Zerbitzu honek ahalbidetzen du gaur hemen ikusten ditugun emakume eta gizonak gure etxean izatea, familiei aukera ematen baitie pertsona nagusiak etxean edukitzeko euren zereginak egiten jarraitzen duten bitartean".

Era berean, Iñaki Agirrek, Aita Menniko zuzendari-gerenteak, adierazi zuen zentroaren helburua dela erabiltzaileei balio erantsia duen arreta integrala eskaintzea: fisikoa, psikikoa, psikologikoa eta espirituala.

Helburuak beteta

Ekitaldian izan zen Maite Etxaniz diputatua azaldu zuen legealdi honen hasieran Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen bigarren mapa egin zutela 2012rako helburuak finkatzeko. Debagoieneko ezarri ziren helburuak dagoeneko beteta daudela adierazi zuen.

Mapa horrek gure bailararako 120 plaza aurreikusten zituen eguneko zentroetan, eta, Bergaran



Eguneko zentroko bi adindunek bertso bat irakurri zuten ekitaldian | IRATI GOITIA

inauguratu zutenarekin, 161 plaza ditugu dagoeneko. Horietatik, 35 Arrasaten, 30 Aretxabaetan, 30 Oñatin, 25 Bergaran, 10 Antzuolan eta 15 Eskoriatzan. Egoitzetako plazei dagokienez, 518 plaza aurreikusten ziren ibarrerako eta egun 534 plaza daukagu. Bestalde, 45 unitate psikogeriatriko ditugu Debagoieneko. Beraz, 2012rako helburuak beteta daudela adierazi zuen. Hala ere,

laneari jarraitzea ezinbestekoa dela esan zuen: "Erakundeok adi egon behar dugu herritarren beharrei erantzuteko, eta malgutasunez jokatu behar dugu".

Bailarako helburuak beteta egon arren, Bergarako zentroa plaza guztiak beteta dituela inauguratu zuten. Etxanizek esan zuen Antzuolako zentroa ere bertan dagoela bergararrei zerbitzua eskaintzeko.

DATUA

25

ERABILTZAILE

Begarako eguneko zentroa adineko 25 lagunentzat dago egokituta eta dagoeneko beteta du plaza kopurua.

ESANAK

"Pozgarria da bergararrak herrian ikustea; bi urteren ostean etxean izatea berriz"

AGURNE BARRUSO | ALKATEA

"2012rako Debagoieneko genituen helburuak beteta daude dagoeneko"

MAITE ETXANIZ | FORU DIPUTATUA

Begarako igeri elkarteko gazteek maila paregabea erakutsi zuten Zarautzen

Gipuzkoako neguko txapelketan hartu zuten parte igerilari gazteek

I.G. | BERGARA

Otsailaren 5ean jokatu zen Gipuzkoako neguko txapelketa Zarautzen eta bergarako igeri elkarteko gazteak bertan izan ziren parte hartzen.

Goiz eta arratsaldeko jardunaldiak izan ziren eta neskek eta mutilak hartu zuten parte.

Emaitza bikainak

Igeri elkarteko neskek fin aritu ziren eta sari asko ekarri zituzten Bergarara: Monika Alberdik urrezko bi domina lortu zituen 100 eta 200 metroko bizkar estiloan. Mireia Francok, berriz, brontzea eskuratu zuen estilo berean, baina 50 metrokoan. Ainhoa Osak urrezko saria jaso zuen tximeleta estiloan egin zuen lan onagatik (100 metrokoan) eta Oihana Garatek zilarrezko sari bikoitza ekarri zuen etxera estilo berean, 100 metrokoan eta 50 metrokoan bigarren iritsita.

Mutilek ere emaitza txukunak lortu zituzten: Jokin Alfarok brontzea jantzi zuen 200 metro bizkar estiloan, Oier Erañak zilarra 100 metro tximeleta proban eta brontzea 200 metrokoan, Joseba Vicentek urrea 200 metro bular estiloan eta zilarra 50 metrokoan,



Igerilari gazteak, Zarautzen irabazi zituzten sariek. | BERGARAKO IGERI ELKARTEA

Xabier Jauregik 100 metro estiloan brontzea eta 50 metro librea zilarra, Igor Okinak 50 metro librea urrea, Mikel Zubiaurrek 50 metro bular estiloan urrea eta 100 metro librea zilarra, eta,

azkenik, Joseba Osak 50 metro bizkar estiloan zilarra eta 400 metro librea urrea.

Emaitza guztiak kontuan hartuta, mutilek lehenengo postuan gelditu ziren.

Dagoeneko bidal daitezke lanak 26. Koldo Eleizalde lehiaketara

Maiatzaren 6 arte izango dute interesatuek euren lanak bidaltzeko aukera

I.G. | BERGARA

Begarako Udalak antolatzen duen lehiaketa horretan parte hartzeko beharrezkoa da Bergaran jaio, bizi edo lan egitea.

Guztira, sei arlo landuko dira lehiaketan: ipuin idatzia, bertsoa, komiki-tira, ipuin kontaketa edo antzerkia, txistea edo umorezko pasadizoak eta irrati emankizuna. Beraz, bergararrek badute nola erakutsi euren talentua. Lanek originalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Lanak nola aurkeztu

Lanak gutun-azal handi baten bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan. Ahozko generoen kasuan, bestalde, sare

bidez ere aurkeztu ahal izango dira lanak, udal webgunean horretarako gertatutako inprimakia erabilita.

Sari banaketa

Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea maiatzaren 6an bukatuko da eta sariak ekainaren 18an banatuko dira, Udal Pilotalekuan. Epaimahaia Bergarako Udaleko Euskara batzordeak aukeratutako pertsonak osatuko dute.

Parte-hartzeak ere izango du saria; izan ere, lanak bidaltzera animatzen diren guztien artean euskarazko zenbait aldizkariren harpidetzak zozketatuko dira.

Oinarriak eta informazio gehiago Bergarako Udaleko webgunean eskuratu ahal izango dituzue: www.bergara.net.



Jon Betanzos, Idoia Bollar, Maite Murgiondo eta Imanol Biain, Natur Eskolan. | MIREIA BIKUÑA

Jon, Idoia, Maite eta Imanol | Natur Eskolako arduradunak

"Baso eta zuhaitz zaharren garrantziaz egingo dute berba"

- Natur Eskolak 15. Ingurumen Astea abiaraziko du bihar
- Erakusketak, hitzaldiak eta zinema emanaldiak antolatu dituzte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bihar hasiko dute Ingurumen Astea Natur Eskolan. Hitzaldietako bat bertan behera geratu da azken orduan, baina ekintzak hasteko irrikaz daude Jon, Imanol, Idoia eta Maite.

Basoak eta natura izango dira protagonista bihurtik aurrera.

Bai, hala da. Alde batetik, basoa landuko dugu; batez ere, baso zaharrek duten garrantzia azpimarratzen ahaleginduko gara. Gure inguruan zuhaitz asko ditugu, baina basoak oso gutxi. Hori horrela, oso zuhaitz zahar gutxi geratzen dira. Bestalde, Iturrigorri eta Artasoko pago motzetan Life proiektua jarri dute martxan, eta basoei buruz berba egiteko aukera paregabea zela pentsatu genuen.

Zuhaitz zaharren garrantzia azpimarratu duzue.

Kanpotik datozen turista asko harrituta geratzen dira. Mendi asko bai, baina baso eta zuhaitz zahar gutxi daudela diote. Basoetan indusketak egiten direnean,

zuhaitz zaharrak moztu egiten dituzte, eta behar-beharrezkoak dira. Zomorroek eta animaliek zuhaitz zaharren beharra dute. Zuhaitz zaharrak ez dira hilik dagoen egurra, bizirik dauden naturako elementuak dira.

Hori guztiori lantzeko, karboniferoen gaineko erakusketa eta hiru hitzaldi antolatu ditugu. Gainera, Life proiektua gertutik ikusteko irteera egingo dugu Iturrigorri.

Bestalde, itsasoa ezezagunagoa da guretzako?

Gertu daukagu, baina ez eskura. Gure asmoa zen itsasoa eta ozeanoetako bizitza eta aberastasuna erakustea Gorka Ocio santurtziarraren eskutik, baina hitzaldia bertan behera geratu da, Playa de Bakiorekin lau hilabeteko bidaia egin behar du-eta. Dena den, zineklubeko pelikulen bidez erakutsiko dugu itsaso barruan dagoena.

Ingurumen Astea ez dira faltako zuhaitz azoka eta Zuhaitz Eguna.

Ez. Zuhaitz azoka domekan egingo dugu, hilaren 19an, eta Zuhaitz

Eguna hilaren 27an. Herri barruko berdeguneetan egingo dugu landaketa.

15. Ingurumen Astea da. Nolako bilakaera izan du?

Pozik gaude. Ingurumen Astea egiten hasi ginen Natur Eskola ezagutzera emateko. Hasierako urteetan ekintza guztiak Natur Eskolan egiten genituen, eta jendea batzen zen. Baina, ekintzak kultura etxera eroan ditugunetik, herritar askoz gehiago batzen dira.

Natur Eskola 1993ko urriaren 15ean inauguratu zen.

1993-94 ikasturtean hasi ginen lanean. Gero, hilabete batzuetan itxita egon zen. 1995eko udazkenean berriro abiatu ginen, eta oraingo lantaldekook 1997a ezkerro dihardugu. Ikastetxeekin lan egiten dugu irailetik ekainera, eta urteko 4.500 ikasle etortzen dira. Hori da gure muga. Eskola egunetan bakarrik etortzen dira taldeak, batzuk handiagoak eta beste batzuk txikiagoak. Dena den, muga hori izan arren, oso pozik gaude bilakaerarekin.

"Zuhaitz azoka egingo dugu hilaren 19an eta Zuhaitz Eguna 27an"

"Urtero 4.500 ikasle hartzen ditugu Natur Eskolan"



Lehen Ingurumen Asteko lehen hitzaldia: 1997ko otsailaren 26an. | NATUR ESKOLA

INGURUMEN ASTEA

OTSAILAK 15-27

18:00-20:00 *Karboniferoa, Euskal Herriko lehen basoak eta Oñatiko Ingurumen Astea, urtez urte erakusketak kultura etxean.*

OTSAILAK 17

20:00 Jacques Perrinen *Oceanos* dokumentala zineklubean.

OTSAILAK 19

09:00 Zuhaitz azoka Foru plazan. Askotariko mintegietako landareen erakusketa eta salmenta.

OTSAILAK 21

19:00 *Iturrigorriko pagadia gaurko begiradatik* delako hitzaldia Natur Eskolan, herritarren eskutik.

OTSAILAK 22

19:00 *Zuhaitz eta baso zaharren garrantzia ekologikoa* delako hitzaldia kultura etxean. Oscar Schwendtner, baso ingeniaria izango da hizlaria.

OTSAILAK 23

19:00 Valentin Mugartza Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariaren hitzaldia kultura etxean. Iturrigorri eta Artasoko pago motzen Life proiektuaz egingo du berba.

OTSAILAK 24

18:00 Zurrumurru antzerki taldearen ipuin kontaketa saioa, haur liburutegian.

20:00 Louie Psihoyosen *The Cove* pelikula zineklubean.

OTSAILAK 25

19:00 Juan Tomas Alcaldere eskutik *Zuhaitzak babesten aintzindari* hitzaldia kultura etxean.

OTSAILAK 26

09:00 Artaso eta Iturrigorriko Life proiektua ezagutzeko irteera plazatik.

OTSAILAK 27

10:00 Zuhaitz Eguna herri barruko berdeguneetan. Foru plazan elkartuko dira.

MARTXOAK 6

10:00 Zuhaitz Eguna Aloñan, Aloñako Lagunak elkartearekin. Plazatik irtengo dira.

MARTXOAK 13

09:00 Muniain eta Okarizko (Araba) haritz zaharrak ezagutzeko irteera.

OHARRAK

HITZALDIA

Txantxiku ikastolak antolatu, Izan proposamena aurkeztuko du Baketik erakunde koordinatorazaila Jonan Fernandezek bihar. Hitzaldia ikastetxeko aretoan egingo du, 18:30ean, euskaraz. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

HITZALDI-TAILERRA

Frustraziorako tolerantziaren beharra delako hitzaldi-tailerra egingo du Izar Mendia psikologoak Elkar Hezi ikastetxean hilaren 24an.

IZENEMATEA ZABALIK

Hilaren 26an Zubikoa kiroldegian egingo dute I. areto-bizikleta maratoirako izenematea zabalik dago. Interesatuak kiroldegian bertan eman dezakete izena.

IPUIN KONTAKETA

Boni Ofogo afrikarrak ipuin kontaketa saioa egingo du hilaren 28an Elkar Hezi ikastetxean, 6-9 urteko arteko neska-mutikoendako eta haien gurasoendako. Leku mugatua dute. Izenak 943 71 82 72 telefonon eman daitezke.

IZENEMATEA ZABALIK

Aloña Mendiko mendi taldeak hilaren 20an egingo duen irteerarako izenematea zabalik dago, hilaren 17ra arte.

Korrika Batzordeak bilera irekia egingo du etzi, hilaren 16an

Oñatiko Korrika Batzordeak bigarren bilera egingo du eguaztenean, hilaren 16an, kultura etxean, 16:30ean. Bileran irekia da, eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte.

Batzordea osatu zen bileran ikastetxeetako ordezkariek batu ziren, eta adostu zuten kultura taldeen artean ahozko gonbidapena egitea.

Lehen batzar hartan zehaztu zuten Korrika Txikia apirilaren 13an egingo dutela herriko kaleetan: 14:30etik 16:30era.

Udan Txernobilgo haurrak etxean hartzeko familiei deia

Udan Txernobilgo haurren bat etxean hartu gura duten familiei dei egiten die Banoia Txernobil elkarteak. Familiak behar dituzte. Neska-mutikoak ekain bukaeran helduko dira gurera, eta uztailean eta abuztuan egingo dira herriko familiekin bizi izaten eta oporrak pasatzen.

Interesatuak edo informazio gehiago gura dutenak Arantxa Zubiarekin jar daitezke hartu-emanetan, 943 78 13 90 telefonon.



Santa Kurtz kalearen atzeko partean, bidegorri alboan dagoen izeia beldarren poltsekin. | M.A.

ARETXABALETA

Beldarrez betetako pinuak gero eta gertuago ditugu herritik

Kezka eragin du herritarrengan, ugaritu egin direlako inguruko zuhaitzetan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Beldar edo prozesionaria izeneko harren poltsak agertu dira azken hilabeteetan pinu eta izeietan, eta hainbat herritar konturatu dira gero eta ugariagoak direla eta herritik gero eta gertuago ditugun

zuhaitzetan daudela. Hala, errepide bazterretan dauden pinu basoak poltsa zuriz beteta daude; ez hori bakarrik, herrian bertan ere badaude; Santa Kurtz kaleko atzeko partean dagoen bidegorri alboko izeietan, esaterako.

Punta moztea, w aukera bakarra

Poltsa horiek izei eta pinuen puntetan egiten dituzte beldarrek, eta punta hori erre egiten diete zuhaitzei. Gero, poltsa horietatik beldarrak aterako dira, hilabete ingururen buruan, eta lurrian ilarak egiten dituzten beldar horiek arriskutsuak dira: hazkura handiak eragiten dituzte ukituz gero eta alergiak sor ditzakete. Horregatik, hainbat herritar kezkatuta daude: "Gero umeak jolasean hasiko dira beldar ilarekin".

Aretxabaleako lorategien ardura duten Makai enpresako lorezainek onartu dute ugaritu egin direla poltsa zuri horiek, baita herri inguruko zuhaitzetan ikusten direla ere: "Uste dugu lehen baino gutxiago fumigatzen dituztela pinu basoak pozoiarekin. Gainera, negu gogorra egitea komeni izaten da horiek akabatzeke: izotza, tenperatura baxuak... Eta ez duenez halakorik egin, ugaritu egin dira". Baina herriko lorezainek ezin dutela ezer egin argitu dute: "Herriko pinu eta izei horien gainera igo eta punta moztea da irtenbidea, baina horretan ezin gara hasi; arriskutsuak dira, gainera".



Bidegorri alboan, Deba ibaiaren ertzean, botata dagoen pinua. | M.A.

Pinua motozerrarekin moztuta

Aretxabaleatik Arrasaterako bidegorrian -CVL lantegi parean-, Deba ibaiaren ertzean, pinu bat bota dute. Pinu handia da, eta motozerrarekin moztu eta alboan duen haritz baten gainera jausita dago. Makaiko lorezainak konturatu dira horrekin, eta ez dakite zergatik egin duten hori: "Gero bertan botata uzteko?", diote. Udal arduradunek jakinarazi dute baimena eskatu zuela herritar batek, eta kentzekotan geratu dela.

ARETXABALETA

Sukaldaritza eskolak hartzen dabilta gaztelekuan

M.A. | ARETXABALETA

Otsaila aurrera doa eta Atxagazte gaztelekuko kideek ez dute aspertzeko astirik. Joan den zapatuan grafitien gaineko ikastaroa izan zuten Haritz Inurritegi arrasatearraren eskutik. Espriak hartu eta lehen zirriborroak egiten ikasteko aukera izan zuten 12 eta 16 urte arteko gazteek.

Domekan, ostera, sukaldaritza kontuak izan zituzten, eta datozen

bi domeketan (otsailak 20 eta 27) ere horretan jardungo dute. Munduko beste herrialde batzuetako jakirik ezagunenak prestatzen ikasiko dute lehenengo, eta gero, bertan probatuko dituzte egindakoak.

Datorren zapatuan, hilak 19, ostera, *Altxorraren bila* jolasean jardungo dute herrian zehar. Eta hilaren 26an, zapatua, irteeratuko bat egiteko asmoa daukate.

Gazte teknikariaren ordezkioa

Bestalde, gazte teknikari Maider Etxanizek baja hartu du hilabete batzuetarako, eta orain, Larraitx Inurritegi aretxabaletarra dago haren lekuan. Lehen legez, egun batzuetan Arkupeko atzeko partean dagoen bulegoan egongo da (astelehen, eguazten eta egubakoitz batzuk) eta beste batzuetan Eskoriatzan (martitzen, eguen eta egubakoitz batzuk).

ESKORIATZA

Saneamendu hodiak garbitzen ibili dira egunotan Olazar auzoan

Gizabidez jokatzeko eskatu die Udalak herritarrei

M.A. | ESKORIATZA

Hainbat arazo izan dira Eskoriatzako saneamendu hodietan azken hilabeteotan, azkena Olazar auzoan. Udal brigadako langileak ur zikinaren hoditeria garbitzen ibili dira egunotan Bolibar erreka inguruan. Iaz Aranburuzabala kalean ere antzeko arazoa izan zuten.

Bolibar erreka gainezka

Zikin usaina zegoela zioten herritarrek aspaldian Dorleta auzoan, eta Bolibar erreka saneamenduak gainezka egin duenean agertu da Dorleta eta Olazarko hoditeriaren arazoa; arazo potoloa, gainera. Izan ere, hodieta ateratako zikinariaren ondorioz, erreka ura kutsatuta gelditu da. Garbiketa lanak egiten ibili direnean,

komuneko zulotik bota ezin daitezkeen eta kabitu ere ezin direla egin pentsa daitezkeen hainbat gauza aurkitu dituzte langileek hodieta trabatuta: jertseak, fardelak, jostailuak, konpresak...

Hori ikusita, Udalak gizabidez jokatzeko eskatu die herritarrei. Izan ere, berriro halakorik gerta ez dadin herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela uste du. "Herritarren erantzukizuna ez da etxe barruko hormetan bukatzen, geuk sortutako zabor eta hondakinak behar bezala botatzea geure erantzukizuna ere bada, eta komunitate behera zer botatzen dugun neuritzea".

Horregatik, Udalak guztien kolaborazioa eskatu du halako arazoak ekiditeko.



ESKORIATZA

MIRIAN BITERI

Hasi dute sukaldaritza ikastaroa

Sukaldaritza begetarianoa zer den ikasteko Amuskak antolatutako ikastaroa hasi zuten egunean. Sabrina Pato dietistak argibideak eman zizkien lehenengo, eta gero, aza-zopa eta hanburgesa begetala gertatu zituzten. Hamar lagun dabilta ikasten, baina izena emandakoak gehiago dira, eta bukatutakoan, martxoan, beste bat egingo dute.

ARETXABALETA

Aste Santuan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko eskaera zabalik

Aste Santuko aldi baterako egonaldiak gertatzen hasita dago Aldundia, eta etxean zaintzen dituzten nagusi eta gaixoen familiendako eskaera epea zabaldu du.

Eskaerak udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar dira eta azken eguna martxoaren 18a da. Egonaldiak egiteko hautatutako zaharren egoitzak honako herrietan daude: Donostia, Irun, Zumaia, Lazkao, Zumarraga eta Aretxabaleta.

Zaindariaren eguneko bazkarirako txartelak salgai Basotxon

Martxoaren lehen, martitzen, Aingeru Guarda eguna ospatuko dute Basotxo erretiratuen elkarteak kideek; zaindariaren eguna, hain zuzen. Ohitura duten legez, bazkaltzeko elkarteko dira; aurten, Arrasateko Sara jatetxean (autobusa egongo da). Eta izena aurrez eman behar dute joan gura duten bazkideek, gaur eta bihar. Basotxoko bulegotik pasa daitezela (11:00-12:00). Bazkaria 35 euro da.



Zabolako bidegurutzeta da bide mozketak eragin duen puntu beltzetako bat. | LEIRE KORTABARRIA

ARAMAIO

Udalak eta haren defentsak etzi egingo dute bilera kalte-ordaina eskatu gura dutenekin

Bidea hilaren 28an irekiko dutela agindu du Adifek; eguaztenerako udaletxera, bilera irekira, deitu dituzte herritarrok udal ordezkariarekin eta bi abokaturekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Aramaio eta Arrasate arteko errepidea otsailaren 28an zabalduko dute. Hala agindu dio Adifek Arabako Diputazioari. Joan den astean batzartu ziren bi aldeak Gasteizen eta Adifek agindu zuen otsaileko azken egunean zabalik egongo dela errepidea.

Beraz, aramaioarrak eta Deba-goienetik Aramaiorako bidea egin behar izan dutenak egun horretan esnatuko dira urtebete baino gehiagoz luzatu den amesgaiztotik.

Herritar zein erabiltzaileendako
Etzi, hilaren 16an, bilera irekia egingo dute, 19:00etan Udaleko osoko bilkuren aretoan. Bileran egongo dira udal ordezkariak eta bi abokatu, Maribi Joaristi eta Mercedes Zulaika, hain zuzen. Kalte ordaina eskatu gura duten herritar orori dago deialdia zuzen-

duta, baina baita errepidearen erabiltzaileei ere, Asier Agirre alkateak jakitera eman duenez: "Urte luze honetan lan kontuengatik bide mozketaren ondorioak jasan dituztenak ere badaude, eta horiek ere eskatu ahalko dituzte kalte ordainak".

Bileran hiru gai jorratuko dira. Hasteko, alkateak hartuko du hitza. 2009ko abenduaren 15etik -Jurjauzia eman aurretik, beraz- gaur arte Udalak egin dituen ahalegin eta jarduerak azalduko ditu Agirrek. Hau da, 20 bat minututan, Udalak bidearen auzian erakunde ezberdinekin egindako bilera eta kontaktuen laburpena egingo du.

Gero, Maribi Joaristi abokatuak -kalte ordainak eskatzeko informea egin zuen Joaristik- Udalar juridikoki kalte ordainak eskatzeko zer egin dezakeen azalduko du, eta horrez gain, Udala-

ren aholkularitza lanak zergatik egin dituen ere emango du aditzera. Bilerarekin amaitzeko, errepide mozketaren ondorioz kaltetuak izan diren herritar eta enpresen eskubideen berri emango du Mercedes Zulaika abokatuak. Eta ez hori bakarrik: kalte ordaina eskatzeko egin beharrekoen berri emango du.

Lana erraztea helburu

Eguazteneko bileraren helburu nagusia da horrenbeste sufritu duten herritarrei kalte ordainak eskatzeko orduan lana erraztea. Hala, erreklamazioak eskatzeko eredu bat banatuko dute bilerara joaten direnen artean. Halaxe azaldu du Asier Agirrek: "Herritarrek salaketa modu partikularrean jarrira aukera gehiago daude kalte ordainak jasotzeko; horregatik saiatu gara lana errazten".

LEINTZ GATZAGA

Zuhaitz Eguna eta Aratusteak dira Gurelen hurrengo hitzorduak

Urtarrilean egin zuen batzar orokorra eta batzordekide berriak hautatzekotan geratu dira

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Gurel guraso batzordea aurtengo erronkei heltzeko gertatzen dabil. Batzar orokorra egin ondoren, Dorleta Elkorobarrutiak eta Bea Alvarezek utzi egin dute batzordea, bi urtean lan egin ondoren, eta zuzendaritzako taldean jarraitzen duten Alberto Oñate eta Angel geratu dira bi batzordeki-

de berriak hautatzeko. Hori egindakoan, urteko egitarauaren zirriborroa zehaztuko dute.

Bien bitartean, Gureleko kideak ez daude geldi, eta joan den domekan, hilak 6, eskiatzera joan ziren Valdezcaray aldera. 33 lagun elkartu ziren eta, eguraldi ona lagun, giro ezin hobean pasatu zuten eguna. Eta datozen

bi hilabeteotan, beste bi hitzorduri helduko diete: Zuhaitz Eguna eta Inauteriak. Udalararekin adostuta egun horietako ekitaldiak gertatuko dituzte. Eta hainbat hitzaldi ere antolatzekotan daude: abenduan Ekuadorko bizimoduaren berri jakin zuten bertako bizilagun baten eskutik, eta datozen hilabeteotan Senegal eta Bosniako berri jasoko dute.

Gaur, Korrika Batzordea

Bestalde, gaur, otsailak 14, Gatzagan sortutako Korrika Batzordea elkartuko da kultura etxean (18:30). Korrikaren inguruan antola daitzekoen ekitaldien proposamenak jasoko dituzte.

Herriko merkataritza sustatzeko ideiak 'Elgeta 2020' prozesuan

Eskaeretako batzuk: kalitatezko aholkularitza zerbitzua eskaintzea eta udal tasak arintzea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hilabeteotan egindako *Elgeta 2020* prozesu parte-hartzailean herri barruko merkataritza zerbitzuaren egoera izan dute hizpide. Merkataritza aktibitate hori zela babestu izan dute, besteak beste, hizpide. "Aipagarria da dendariekin egindako bileretan jasotako ondorioetako bat", zehazten du Prospektiker enpresak egindako txostenak: "Udalak konfiantza berreskuratu beharra, eta dendari eta zerbitzuarekin elkarlan bideak martxan jarri beharra".

Sektoretik egindako proposamenak hauek dira, besteak beste: herritarrok erosketak herrian egiteko kontzientziazio kanpainak egitea, Udalaren esku-

dauden tasak arintzea eta merkatarien ekimena saritzea.

Ez dira bakarrik. Proposatu dute, gainera, Udalaren eta merkatarien arteko lankidetzaren abiatzea. Garrantzitsua iruditzen zaie, horren harira, herriko merkatariekin elkarlanean astelehenetako azokarako udal arautegia sortzea.

Bada, kalitatezko aholkularitza zerbitzua ere lagungarria izango litzatekeela esan dute, bai egungo merkatariei eskaintzeko, baita ekimen berri batekin datozenei tramitazioak errazteko. Eta udal erosketa eta esleipenetan ere herriko enpresak lehenestea positiboa litzatekeela adierazi dute.



Amagoia Irazabalen arrandegia da herrian zabaldu den azken denda. | L.Z.

ELGETA

Veronatik Budapestera bizikletaz egindako bidaia

Eguenean, otsailak 17, izango da erakusketa Olan etxeko aretoan, 18:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Antzuolako hiru mutilek euren bidaia-esperientzia kontatuko dute herritarren aurrean. Hain zuzen, Estebe Olaortua, Fernando Garitano eta Xabier Agirrek Veronatik Budapestera bizikletaz egindako bidaia azalduko dute herritarren aurrean.

Antzuolarrak munduan zehar; bidaiak argazkietan ekimenaren barruan antolatu du Kultura Sailak.

Argazkiak erakutsiko dituzte

Olaortuak, Garitanok eta Agirrek argazkiak erabiliko dituzte euren bidaia erakusteko. Italia, Austria, Eslovenia, Kroazia eta Hungarian ibili ziren antzuolarrak bizikletaz; hala, bost herrialdeotako paisaia ikusgarriak erakutsiko dituzte, eta baita bidaian bizitakoak

ere. Hitzordua datorren egunean da, otsailaren 17an, 18:30ean, Olan etxean.

Aurtengo lehena izango da

Badira urte pare bat Kultura Sailak *Antzuolarrak munduan zehar* ekimena hasi zuela. Helburua antzuolarrak egindako bidaiak herritarren aurrean erakustea izan da.

Eguenean Olaortuak, Garitanok eta Agirrek egingo dutena izango da aurtengo lehenengo hitzaldi-erakusketa. Kultura Saileko Jone Larrañagak azaldu du harrera oso ona izaten duen ekintza izaten dela *Antzuolarrak munduan zehar* ekimena. Normalean, 40 lagunetik gora batzen direla azaldu du Larrañagak, eta herritarrek gustura entzuten dituzten bidaiak izaten direla.



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa
USURBIL / 943 36 66 63

www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Eskaintza

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- "Tolare" sagardotegia.
- Txotxetik sagardo ekologikoa.



Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
begiristainsagardotegia@gmail.com
www.begiristainsagardotegia.com

Eskaintza

- Urtariletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatara, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- "Tolare" sagardotegia



Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28
www.iparragirre.com

Eskaintza

- Eguaztenetik zapatara gauzez; zapatu eta domeka eguerditan zabalik ere. Beste egunetan kontsultatu.
- Zutik edo eserita.
- Asteburuetan garraio publikoak sagardotegiraino.
- Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. "Zabadiz" banatzaile ofiziala.
- "Tolare" sagardotegia



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik. Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- "Tolare" sagardotegia



Oiharte

Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
www.oiharte.com

Eskaintza

- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatara gauzez. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.



Rezola

Santio Zeharra ASTIGARRAGA
608 14 33 32
rezolasagardotegia@gmail.com / www.rezolasagardotegia.com

Eskaintza

- Astigarraga erdigunetik 100 metrotara.
- Urte osoan txotxetik zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak: arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerditan itxita.
- "Tolare" sagardotegia



Unzueta

Zabala z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

Eskaintza

- Urtariletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- "Tolare" sagardotegia



Xabi Pavonek hamaika buruhauste sortu zizkien Berioko atzelariari. Irudian, baloia eramateko lehian. | JULIO CALLEJA

Lehen zatian barkatutako aukerak garesti ordaindu zituen Mondrak bigarreanean

Etxekoek ez zuten gaitasunik erakutsi bigarren zatiaren hasierako Berioren bi golei erantzuteko

EMAITZA	
MONDRA	0-2
BERIO	

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Futbolaren legetako batek dio ate aurrean barkatzen duenak ordaindu egiten duela gero. Zapatuan beste behin gertatu zen; oraingoan, Mojategin: Mondrak lehen zatian bospasei aukera garbi huts egin zituen eta barkatutakoak garesti ordaindu zituen gero.

Xabi Pavonek, Jon Murua-mendiarazek eta gazte mailako taldetik igotako Andoni Aizpuruak ez zuten euren eguna izan. Ez behintzat jokaldiak amaitzerako orduan. Mondrakoen akatsen edo

Berioko atezainaren lan onaren ondorioz, atsedenaldira golik gabeko berdinketarekin heldu zen norgehiagoka. Lehen 45 minutuetan gehiago izan zen Mondra.

Bigarren zatia

Bigarren zatia hasi eta berehala aukera garbi bat izan zuen Xabi Pavonek, baina kanpora bota zuen baloia. Mondrako jokalarari nabarmenena izan zen Pavon, haren hegaletik sortu zuen Mondrak arrisku handiena. Bere abiadura aprobetxatuz Berioren defentsa aurreratuari min handia egin zion erdilari arrasatearrak.

Bada, Pavonen aukera horren ostean heldu zen Berioren lehen gola. Kanpokoek ez zuten barkatu: jokaldi landu bati amaiera bikaina eman zioten; baloia eskudran jarri zuen Berioko aurrelariak. Eta bigarren gola handik gutxira heldu zen: ezker hegaletik



"Lo irten gara bigarren zatian eta bi golak jaso ostean ez dugu jakin erantzuten. Orain, Oñatin irabazi behar"

KEPA MERCADER | MONDRAKO ATZELARIA

jokaldia, atzera pasea eta area barruan bakarrik zegoen Berioko jokalaririk gola. Hortxe amaitu zen partidua, Mondrak ez zuen -eta erreakziorako gaitasunik erakutsi. Amaieran, 0-2 aurkari zuzena den Berioren kontra, eta jaitzierako postuak geroago eta hurbilago. Mondrako jokalariek arrazoi nahikoak zituzten aldegetara burumakur joateko.

J.B. | ESKORIATZA

Almeneko hondarrezko futbol zelaiak baldintzatu zuen beste behin Arizmendi eta Mondraren arteko derbia. Putzu handirik ez oraingoan; hala ere, futbol zelai horretan ez da batere erraza baloia lurretik jokatzea. Hala, Andoni Ezkurra Mondrako entrenatzailearen arabera, partidua gogorra izan zen, "joko gutxikoa eta borroka handikoa". Mondrak kontrolpean izan zuen partidua eta liderra zergatik den erakutsi zuen; "garaipen berezia eta garrantzitsua da" adierazi zuen Ezkurrak. Golak area kanpoko jaurtiketatik heldu ziren: Maialen Lopez, Aritz Etxabe eta Ainhoa Alonso izan ziren gole-gileak.

Derbi batek izan beharreko osagai guztiak izan zituen partidua: joko gutxi eta tentsio handiko lehia, jokalariek motibazio estra batekin eta ohi baino ikusle gehiago zelaiaren bueltan.



Ikusleen babesa izan zuten jokalariek uneoro. | ANDER MONEDERO

Hamarren kontra eta 3-0 joan arren ordua eskatzen amaitu du UDAk

EMAITZA	
UDA	3-2
TOLOSA	

J.B. | ARETXABALETA

Gozatzekoa eta lasaia izan behar zen partiduan ordua eskatzen amaitu zuen UDAk. Gaizka Heriz *Kika*-k penalti bat gelditu zuen partidua hasieran. Handik gutxira, Aritz Igartuak baloia lapurtu eta azken defentsak falta egin zion; beraz, hamar jokalarirekin geratu ziren tolosarrak. Gainera, falta horretan

1-0koa sartu zuen Andoni Pas-trainek eta berak egin zuen ere 2-0koa, beste falta jaurtiketa batean. Baloi geldiko jokaldietan maisua dela erakutsi zuen.

Tolosaren erantzuna

Bigarren zatiaren hasieran Julen Erañak gol ederra sartu zuen atezainaren aurrean baloia loratuz. Baina hortik aurrera okertzen hasi ziren gauzak: UDA erlaxatu egin zen eta Tolo-sak bi gol sartzea lortu zuen etxeko taldearen akats baten erruz eta estrategia jokaldi batean, hurrenez hurren. Oro har, baina, Juanan Cruz entrenatzailea pozik amaitu zuen taldeak egindako lanarekin.



Behar dena baino gehiago sufrituta irabazi zuen UDAk. | JULIO CALLEJA

Bi korerretan egindako golei esker irabazi du Bergarak (1-2)

J.B. | BERGARA

Bergararen bolada onak ez du etenik. Idiazabalera egindako bisitatik ere hiru puntuak ekarri zituzten Oskar Maiz-tegiren mutilek. Defentsako lanean eta estrategia jokaldietan egon zen lehiaren gako. Taldearen jokoarekin baino emaitzarekin zegoen gustura Bergarako entrenatzailea: "Joko aldetik taldea ez dut oso ondo ikusi baina defentsako lan ona egin dugu eta gure aukerak aprobetxatzen jakin dugu". Bergararren bi golak lehen zatian heldu ziren, bi korer jaurtiketatik, Julen Inurrieta eta Andoni Nafarrateren eskutik. Atsedenaldira 0-2koarekin joan ziren.

Bigarren zatiko lehen minutuetan larri ibili zen Bergara, baina markagailuari eustea lortu zuten. Defentsako lan ona eginda kontraerasoan min egiten hasi ziren bergararrak baina ez zuten aldea handituz lortu. Idiazabalen gola deskontuan heldu zen eta beraz, etxekoei ez zien denborarik eman norgehiagoka berdintzeko.

Partidu serioa egin arren esku hutsik bueltatu da Aloña (3-1)

J.B. | OÑATI

Partidu serioa egin zuen Aloña Mendik Real Unionen aurka, baina esku hutsik bueltatu ziren Irundik. Etxekoen golak une erabakigarrietan heldu ziren eta oñatiarrek berdinketa lortzeko aukerak izan arren ate aurrean ez ziren fin ibili. Bigarren zatiaren hasieran heldu zen 1-0koa. Golari aurre egiten saiatu ziren oñatiarrak, eta izan zuten gola sartzeko aukeraren bat, baina gutxira 2-0koa sartu zuen Real Unionek. Ate aurrean oso gutxi barkatzen duen taldea da, eta zapatuko ez zen salbuespena izan. 2-0koarekin ere Aloña ez zuen amore eman eta 25. minutuan Gorka Bernalen golak esperantzaren atea zabaldu zuen. Gertu egon zen berdinketa: minutu gutxitan hiru aukera izan zituzten baina ez zuten asmatu. Hala, kontraerasoan 3-1koa egin zuen Irungo taldeak, area kanpoko jaurtiketa geldiezin bati esker. Roberto Idigoras aurrelariaren arabera, aukerak aprobetxatuz gero berdinketa izango zen emaitza justua.

Lehen zatian 19 puntu azpitik joan ostean, MUK 88-87 irabazi zuen

Denboraldiko lehen zati txarrena egin ostean, ondo erreakzionatu zuen MUK

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak bigarren zatian izandako adoreari esker irabazi zuen zapatuko partidua. Saillkapeneko azken sailkatuaren aurka etxean jokatu, irabaztean bakarrik pentsatzen zuten Josu Larreategiren mutilek, baina lehen zatian izandako kontzentrazio faltak asko zaildu zituen gauzak. Bigarrean ordea, defentsak askoz hobeto ibili ziren eta partiduari buelta ematea lortu zuten.

Lizarrako Promociones Legarziak intentsitate handiarekin hasi zuen partidua eta etxeok ez ziren fin ibili ez defentsan ezta erasoan ere. Talde nafarrak errez saskiratu zuen partiduaren lehen zatian eta 19 puntuko aldea ere izan zuen.

Gauzak horrela, arrasatearrak burumakur joan ziren atsedendira. Atsedena ondo egin zion etxeko taldeari eta hirugarren laurdenean lehen zatian izan ez zuten intentsitatearekin jokatu zuten.

Baloiaren atzetik ibiltzeak asko nekatu zituen Lizarrako jokalariek eta partidua bukatzeko lau minutu falta zirenean, etxeko taldeak markagailua orekatzea



Muko jokalaria baloia saskira botatzeko prest. | JULIO CALLEJA

lortu zuten. Bukatzeko minutu bat falta zenean, etxekoek lau puntuko aldea atera zuten eta bukaera arte abantailari eusteko gai izan ziren. Jarraian bost partidu galdu ostean, behar zuen garaipena lortu zuen MUK.

Aloñak ere irabazi

Aloña Mendik etxeko gotorlekua aprobeztatu zuen Urdaneta 86 eta 77 menderatzeko. Oñatiarrek ez zuten partidu ona jokatu eta tentsio puntu bat ere falta izan zitzaion. Lehen laurdenean nahi-

ko txukun aritu ziren, baina bigarrenetik aurrera defentsan petral aritu ziren. Hala ere, erraz irabazi zuten; etxean hiru urte galdu gabe egoteak inertziaz irabazteko balio izan zien.

Gainera, saillkapenean eragirik ez duen partidua izan zen zapatukoa eta dagoeneko hurrengo astean Donostian Easo lideraren aurka jokatu duten partiduan pentsatzen hasteko momentua dute gorriek. Oñatiarrek irabazten badute, saillkapeneko lehen postua lor dezakete.

Nahiz eta hasieran defentsan lan eskasa egin, Eskoriatzak irabazi

EMAITZA

ESKORIATZA K.E.

63-46

ATLETICO SAN SEBASTIAN

A.M. | ESKORIATZA

Denboraldiko helburua betetzeko zapatuko partidua garrantzitsua zen Eskoriatzako neskenentzat eta horregatik normalean baino urduriago hasi zuten partidua, baina bigarren zatian urduritasuna alde batera utzi eta erraz menderatu zuten talde donostiarra.

Hori erakusten zuen parti-

duaren bukaeran Intxaurtuetako markagailuak, 17 puntuko aldea.

Esan bezala, Eskoriatzako neskek urduri irten ziren partidura eta nahiz eta erasoan ondo ibili, falta asko egin zituzten. Lehenengo zatian, Donostiako taldeak jaurtiketa libreei esker eutsi zion markagailuari. Bigarrean, ordea, urduritasunak alde egin, defentsa ona egin eta markagailuko aldea handitu zuten eskoriatzarrek.

Hurrengo astean, Añorga

Datorren jardunaldian arerio zuzen baten kontra jokatu dute. Saillkapeneko seigarren aden Añorga bisitatuko dute.



Bigarren zatian kontraerasoan min handia egin zuen Eskoriatzak. | JC

Gasteizeko Corazonistas taldeari aurre egin eta merezitako puntua lortu zuen Bergarak

Partidua irabazteko aukera ere izan zuten Josetxo Muniategiren mutilek

EMAITZA

SORALUZE BERGARA K.E.

34-34

CORAZONISTAS BM

A.M. | BERGARA

Aste hasieran Josetxo Muniategik, Bergara Kirol Elkarteko eskubaloien entrenatzaileak, zerbait lortzeko partidu borobila egin beharke zutela adierazi zuen. Esan eta egin, horrela izan baitzen zapatuan Labegarrietan jokatu zuten partidua. Gasteizeko taldeari aurre egin eta markagailuan denbora luze irabazten joatea ere lortu zuen Bergarak, baina azkenean gustu oneko berdinketa lortu zuen.

Etxeko taldeak hasieratik defentsan ondo jokatu zuen eta golak erraz sartu zituen. Bergarrek egindako joko bizkorak kanpotarren planteamendua zapuztu zuen eta etxekoek markatuta erritmora jokatu zuten.

Bergara markagailuan puntu bateko aldearekin joan zen atsedendira eta bigarren zatian hasieran hiru goleko aldea ere



Bergarako jokalaria penaltia jaurtitzen. | ANDER MONEDERO

izan zuen. Intentsitate handiko partidua izan zenez, azken minutuetan freskotasuna galdu zuen etxeko taldeak eta orduan orekatu zuten partida gasteiztarrek. Baina azken segundoetan berriz ere irabazteko aukera izan zuen etxeko taldeak: partiduko azken 15 segundoetan baloiaren jabetza izan zuten etxekoek baina ez zuten gola egiteko aukerarik sortu.

Muniategiren ustez, saillkapenean bigarren dagoen Corazonistas txapelketako talderik osoena da, eta horrelako partiduak

jokatzen ikasi dutela erakusten du zapatuko emaitza.

Bigarren itzulian hobeto

Bigarren itzuli hasiera ona egiten ari da Bergarak eta, orain arte, birritan aurkari izan dituen talde denekin puntuatu du, liderrarekin izan ezik.

Denboraldia saillkapenaren erdialdean bukatu nahi du Bergarak, eta ez hori bakarrik, denboraldia zapo gozoarekin bukatzea da Muniategiren mutilek duten helburua.

Aloñako neskek justuan irabazi zioten saillkapeneko azkenari

EMAITZA

ALOÑA MENDI K.E.

23-21

JAUJA AKILAPE

IRATI GOITIA | OÑATI

Eskubaloiko senior mailako neskek saillkapeneko azken taldea hartu zuten etxean zapatuan.

Printzipioz erraz irabazi beharreko partidua zen, baina nahiko konplikatu zitzaion oñatiarrei eta larri ibili ziren garaipena lortzeko, horixe islatzen du markagailuak ere (bi goleko aldearekin irabazi zuten).

Hasiera motela

Oñatiarrek lo irten ziren kantxara eta arerioak ezarritako erritmora jarraitu behar izan zuten lehen minutuetan. Igarri zen gorriek erasoan huts egiten dutela.

Lehen zatiko erdialdera iratzarri ziren eta bost goleko aldea ere atera zieten Jauja Akilape taldeko neskei. Eraso findu egin zuten eta euren defentsa gogorra erakutsi zuten.

Amaleran berriro behera

Bigarren zatia ere ongi hasi zuten, baina azken hamabost minutuetan berriro egin zuten behera eta larri ibili ziren lehen zatian lortutako aldea mantentzeko. Azkenean, justu-justu irabazi zuten partidua.

Ford Mugarrik ezin izan zuten Urdulizen irabazi eta esku hutsik etorri ziren Arrasatera (26-24)

Zapatuan Arrasateko Ford Mugarrikoek ezin izan zuten seigarren sailkatuaren etxean irabazi. Bizkaitarrek etxean Askartzaren kontra bakarrik galdu dute eta euren kantxan duten seriotasuna erakutsi zuten zapatuan ere. Defentsan ondo ibili ziren Orgazen mutilek, baina erasoan ez zuten bizkaitarren defentsa apurtzen jakin. Aste honetako jardunaldiko emaitzen ostean, saillkapeneko lehenengo postuak pil-pilean daude, izan ere, Ford Mugarrik lider izaten jarraitzen du, baina orain Corazonistasekin berdinduta.

Kopatik kanpo geratu da Durango, Hernaniren aurka porrot galanta jaso ostean

Bizkaitar eta arrasatearrez osatutako taldea baino askoz gehiago izan ziren kanpokoak

EMAITZA

DURANGO ILARDUYA

10-55

HERNANI

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ohorezko B mailako Durango eta Hernanik Errege Kopako partidua jokatu zuten atzo Mojategin. Kanpoko taldea jaun eta jabe izan zen hasieratik, eta Aratz Gallastegi durangarren entrenatzailearen arabera "aitzakia gabeko" porrota jaso zuen taldeak: "Askoz gehiago izan da Hernani eta merezimendu osoz irabazi dute. Hala ere, teknikoki zenbait akats egin ditugun arren, jokalariek erakutsi duten jarrerarekin pozik nago".

Kopan parte hartu ahal izatea bera sari bat izan da durangarrendako, Ohorezko B mailan

mantenduko direla esan gura du-eta. Hau da, ez dira mailaz jaisteko *play off*-etan sartuko. Dena den, kopari ez diote garrantzia handirik eman. Hernani, berriz, partidua irabazi eta Kopan aurrera egiteko asmoarekin etorri zen Mojategira.

Gainera, jokalaria aldaketa egiteko aukera barik egon zen etxeko taldea. Hala, gazte mailako zenbait jokalarik lehen taldearekin jokatzeke aukera izan zuten: "Pozik nago gazte mailakoekin egin duten paperarekin, izan ere, oso garrantzitsua da jokalaria gazteak sartzen has daitezela", zioen Gallastegik.

"Eurak ziren favorito"

Durangoko taldean jokatzen duen Ander Heriz arrasatearra ere antzeko irakurketa egin zuen partidua ostean: "Eurak ziren favorito eta partidua osoa euren menpe ibili gara", adierazi zuen.




Ander Heriz arrasatearra Hernaniko jokalariz inguratuta, baloia eramateko lehian. | JULIO CALLEJA

Arrasate: garaipen bat baino gehiago

Azkenean heldu da garaipena. Bi hilabete irabazi gabe eta burumakur egon ostean, Arrasatek 36-0 irabazi zuen zapatuan Zarautzen aurka. "Oso pozik" zegoen Igor Isasi taldeak egindako lanarekin: "Merezimendu osoz irabazi dugu, gurea izan da baloiaren jabetza eta ohi baino akats gutxiago egin ditugu. Oso ona izan da jokalarien jarrera; garaipena behar genuen, psikologikoki batez ere". Bide horretatik jarraitzea espero duela gaineratu zuen Isasik.



Arrasateko Gorka Aztiria zapatuko lehian, entsegua egitear. | JULIO CALLEJA



Eneko Muguruza egubakoitzeko partidua ostean. | JULIO CALLEJA

Ondo sufrituta irabazi du Muguruzak Euskal ligako finalaurrekoaren joanekoa

Markagailuan gorabehera handiak izan ostean, tanto bakarragatik irabazi zuen (22-21)

J.B. | BERGARA

Ugarte taldeko Errearen aurka jokatu zuen egubakoitzean Eneko Muguruza pilotari bergararrak Euskal ligako finalaurrekoaren joaneko norgehiagokoa. Ondo sufrituta lortu zuen garaipena Muguruzak, izan ere, 15-21 galtzen joan ostean markagailuari buelta ematea lortu zuen (22-21). Itzulerakoa datorren asteburuan jokatuko du eta finalera sailkatzeko 21 tanto egin behar ditu gutxienez. Kanporaketa berdinketarekin amaituko balitz, Muguruza pasako litzateke finalera, gazteagoa delako. Final handia otsailaren 25ean jokatuko da, Bergaran.

Errea, pilotari beteranoa

Markagailuan gorabehera handiak izan ziren (0-3/6-3/6-12/12-15/15-21) eta bi pilotarien sakeak baldintzatu zuen partidua. 15-21 galtzen zihanean partidua irabazteko esperantza gutxi zuela aitortu du Muguruzak: "Errea tanto bakarrera geratu zenean

Reyesi [entrenatzaileari] esan nion ea hiru tanto-edo egiteko gai nintzen, itzuliko partidura begira, eta azkenean partidua irabazi nuen".

Pilotari beteranoa da Errea, txakur zaharra, eta Muguruza-errendako aurkari gogorra: "Beteranoetako bat da. Ez da agian indartsuena, baina txakur zaharra da. Ni baino ofizio gehiago du eta halako partiduetan esperientzia izateak garrantzi handia dauka". Itzuliko lehiari begira, partidua irabaztera joango dela aurreratu du Muguruzak.

ESANAK

"Indartsuena ez da, baina esperientzia handia dauka"

ENEKO MUGURUZA | PILOTARIA

Bina berdindu du Eskoriatzak Durangon

J.B. | ESKORIATZA

Partidua irabazi edota galtzeko aukerak izan ostean, berdinketarekin konformatu behar (2-2). Irabazi beharreko partidua jokatu zuen Eskoriatzak Durangoko Sasikoa B taldearen kontra, aurkari zuzenak dira-eta. Zapatuko partidura 17 punturekin heldu ziren bi taldeak; orain, beraz, 18na puntu dituzte.

Jon Barandiaran jokalaria adierazi duenez, "nahiko partidua ona" egin zuten eskoriatzarrek. Atsedendira 2-0 joan ziren galtzen eta alde horretatik begiratuta berdinketa ez da txarra. Hala ere, erreaktziorako gaitasuna erakutsi zuen Eskoriatzak bigarren zatian eta bina berdindu ostean, norgehiagokako azken txanpan, penalti bikoitza huts egin zuten. Horregatik zapo-re gazi gozoarekin bueltatu zen taldea Durangotik. Golak Aratz Kortabarria eta Asier Soutok egin zituzten.

Hurrengo jardunaldian sailkapeneko goiko postuetan dagoen Tolosa hartuko dute Intxartxuetan.

Bizikleta maite duenik baden artean, Dorletako Ama laguntzeko prest

- ▶ Leintz bailarako klubak aurkeztu ditu denboraldi berrirako taldeak
- ▶ Nahi baino txirrindulari gutxiago, baina iaz beste, hiru modalitatetan

JULEN IRIONDO | LEINTZ GATZAGA

Errepidean, mendiko lasterketan eta ziklokrosean; hiru modalitateetan jardungo dute aurten ere Dorletako Ama txirrindulari klubeko mutilek.

Mendiko bizikletak, gainera, errepideak besteko indarra badu klubean; izan ere, 32 txirrindularietatik hamabostek jardungo dute mendikoarekin –eta hauekako bik baita ziklokrosean ere: Zigor Urainek eta Iñigo Roldanek–. Zapatuan egin zuten guztien aurkezpena, Leintz Gatzagan, Ama Birjinari ohiko lore eskaintza eta guzti. Hasi alebinetatik eta elite mailaraino, errepidean bost kategoriatan izango du ordezkaritza aurten Dorletako Amak, eta mendian lautan.

Eta denak postu onenaren bila; Dorletako Amak, baina, eskolatzat –txirrindularitzakoa–

hartzen du bere burua eta, zentzu honetan, kirol lorpenen ginetik jartzen ditu beste batzuk: "Gaztetxook ikasketak ere badituzte, eta zaila da dena uzartzeara. Guk esaten diegu lehenengo ikastea dela eta gero bizikleta; dena dela, saiatzen dira biak egiten eta ea aurten nola ateratzen den", zioen aurkezpenean Ikeia Iborra, kade-te mailakoen entrenatzaileak.

Kirol arlorra mugatuta, kadeteetako aurtengo txirrindulari guztiak lehenengo urtekoak izan arren, itxaropentsu agertu zen Iborra: "Badaude txirrindulari batzuk lauan ondo doazenak eta beste batzuk igotzen, eta nik uste lehenengo postuetan geratzeko aukera izango dugula".

Kategoria jauzia

Txirrindularitza ez da kirol erraza; banakakoa izanda eta arlo

fisikoak hainbesterako garrantzia edukita, kategoria batera egokitu orduko iristen da hurrengora jauzi egiteko ordua, eta batetik bestera aldeak nabarmenak izan ohi dira.

Horren harira, gazte mailako txirrindulari Iker Ezkibekek iazkoa baino urte errazagoa beharko luke aurtengoa, bigarrena du-eta kategorian eta errepidean: "Errepidean lehenengo urtea izan nuen iazkoa [mendian ere ibili zen; Gipuzkoako txapela jantzi zuen, besteak beste], eta kosta egiten da, tropelean joaten-eta ikasi behar delako. Zaharagoekin asko ikasten da. Aurtengo lehen asmoa da ondo pasatzea, eta podiumen bat egiten badugu, ba hobeto".

Arantzazuko igoeran eta Gipuzkoako itzulian egin gura du Ezkibekek lan ona, lasterketa inportantea delako.



ISAAK KORTABARRIA
PRESIDENTEA

"Espero ditugu podiumak, Ezkibel eta Aranbururekin adibidez"

Emitzei dagokionez itxaropentsu mintzo da Dorletako Amako presidentea, txirrindularitzak mutikoak erakartzeko duen ahalmenarekiko, berriz, ezkor.

Nola dago kluba denboraldi berrirako?

Kopuru aldetik nahiko gurena baino txirrindulari gutxiago ditugu, iazko moduan dena den. Guk egiten ditugu ahalginak mutikoak animatzeko, baina kirol nagusia futbola da eta denek hara jotzen dute.

Kalitate aldetik, nolako txirrindulariak dituzue?

Espero dugu lasterketa batzuk irabaztea. Alebinetan denak dira berriak aurten, eta ikusi egin behar beste talde batzuek zer duten. Infantil mailan espero ditugu podium batzuk, eta baita kadeteetan ere, Danel Sagastarekin. Jubeniletan, uste dut Iker Ezkibekek eta Alex Aranburuk lor dezaketela podiumen bat.

Antolakuntzari dagokionez, zer moduz dago kluba?

Nahikoa ondo gaude. Eskolarteko lasterketak gurasoen artean antolatzen ditugu. Iaz lehenengo aldiz antolatu genuen mendi bizikleta irteera Aretxabaletan, eta nahikoa ondo moldatu ginen, aurten errepikatze moduan.

Babesleak ere ezinbesteko dira klubarendako...

Babesle guztiei eskertzen diegu asko ematen diguten laguntza. Bereziki eskertu gura dut Jay, dagoen tokian egonda hona etorri delako laguntzera; eta baita Mugarriko Rafa Etxabe, ze bera proiektu honetan sartu izan ez balitz hau ez litzateke posible izango.

4,80 metroko jauziarekin, Euskadiko onena da Perez

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Pista estaliko Euskadiko txapelketa absolutuak jokatu ziren atzo Anoetako belodromoan. Pertika jauzian Jonathan Perez arrasatearra izan zen onena; 4,80 metroko jauziarekin lortu zuen urrezko domina. Edozelan ere, aste bukaera honetan Valentzian jokatu den Espainiako txapelketara begira 4,95 metroko marka gainditzea zen haren helburua eta "gutxigatik" ez zuen lortu: "Azken saiakeran oso gertu egon naiz baina ez dut lortu. Hala ere, pozik nago egindako lanarekin", adierazi du.

Belauneko minarekin egon da azkenaldian, baina atzo ondo erantzun zion. Hori bai, orain mokorra eta ipurdia lotzen dituen muskulu "arraro" baten du min. Valentziarako erabat osatzea espero du, izan ere, Gipuzkoa eta Euskadi mailan erakutsitako nagusitasunak ez du zerikusirik izango Espainia mailan: "Atleta gehienak hortaz bizi dira eta maila oso altua da; baina, finean, 20 zentimetrokoa da aldea".

Espainiako txapelketan egongo da Beñat Arnaitz

J.B. | ARETXABALETA


Espainiako duatloilari onenen artean lehiatu zen atzo Madrilan Beñat Arnaitz aretxabaletarra. Apiril erdialdean Sorian ospatuko den Espainiako txapelketarako baliozkoak diren proben artean lehena zen atzokoa, eta lehenengoan lortu du helburua. Lehen 25en artean sartu beharra zegoen eta 20. postuan heldu zen helmugara. "Oso pozik" zegoen probaren ostean: "Sekulako lasterketa izan da, korrikan egin beharreko lehen bost kilometroak abiada bizian joan dira eta lehen 30en artean sartzea lortu dut. Gero, bizikletan 20 onenen artean ibili naiz eta atzekoengandik denbora dezente nuela ikusita zertxobait erlaxatu naiz, lehen 25en artean sartzeko". Batez ere bizikleta gainean oso ondo moldatzen dela erakutsi du beste behin.

Espainiako txapelketarako gainontzeko probetan ez du parte hartuko, eta beraz, orain buru-belarri jarriko da apirilko probara begira.



IKER EZKIBEL
JUBENILA

"Aurten mendiko bizikletan Euskadiko lasterketa batzuk bakarrik egingo ditut, beste dena errepidean. Gustatzen zait Arantzazuko igoera, bertako proba delako, eta Gipuzkoako Itzulia ere bai."



IKEIA IBORRA
KADETEEN ZUZENDARIA

"Helburua da denek amaitu ditzatela lasterketak eta, ahal bada, podiumen bat lortzea. Mutikoek disfruta dezatela behintzat, txirrindularitza kirol gogorra baina polita da eta."



ZIGOR URAIN
MENDIKO BIZIKLETA

"Mendiko bizikletako lehenengo lasterketak hiruzpalau aste barru dira, eta hasteko prestatzen ari gara. Taldea koadrilakoek osatzen dugu, eta ondo pasatzera joaten gara."



Dorletako Ama klubeko txirrindulari guztiak zapatuan, denboraldi berriaren aurkezpenean, Gatzagan. | JULEN IRIONDO



ARETO FUTBOLA

JULIO CALLEJA

Ekaitz aurrena lehen fasean, Zaldibarren

Arrasateko Zaldibarko futbito txapelketako lehen fasea amaitu da. Ekaitz da liga erregularreko txapelketa; azken jardunaldira bigarren postuan heldu den eta iaz denboraldiaren amaieran txapelketa amaitu zuen Dribling taldea 4-3 mendean hartuta amaitu dute lehen faseko txapelketa. Beraz, bigarren fasean zortzigarren sailkatu denaren kontra jokatuko dute. Asteburu honetan kopa izango da protagonista: bi jardunaldi egingo dira eta final handia otsailaren 26an jokatuko da, arratsaldean.

MENDIKO ESKIA

Aloña Mendikoek aldatu egin dute datorren asteko txangoa elur eskasia dela-eta

Elur gutxi dagoela-eta Aloña Mendi Kirol elkarteak Belagua ingurura egitekoa zuen txangoa aldatzea erabaki du. Hala, larunbatean, hilak 19, Pourtaletera joango dira eta domekan, hilak 20 Panticosa aldean egingo dute igoera. Panticosako Casa de Piedra delakoan egingo dute lo eta autobusa egongo denez bertan utzi ahal izango dira arropa, jatekoak eta horiek guztiak.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Escolarteko txapelketan emaitza txukunak lortu dituzte Ariznoa eta Dragoi taldeek

Sutearen ondorioz atzeraturiko Escolarteko Txapelketa zapatuan egin dute. Arrasateko Dragoi Taldeko Aintzane Rodriguezek eta Nerea Otxoak, jubenetako A mailan, lehenak hirugarren postua eskuratu zuen eta bigarrenak zazpigarrena. Bergarako kadeteak eta jubenetako hirugarren geratu ziren eta seniorrak laugarren; Kristina Etzebarria bigarren geratu zen bakarka.

MENDIA

Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituko amaiera jai martxoaren 13an eta izenematea zabalik

Iraupen Luzeko Ibilaldien 9. Zirkuituko Finalisten jai martxoaren 13an ospatuko dute, domekaz. Mendi ibilaldia eta bazkaria egingo dute partehartzaileek eta aurtengo sariak banatzeko bozketa egingo da. Izena emateko eta informazio gehiago, honako helbideetan: www.emfvm.com eta www.zirkuitua.com.

IGERIKETA

Jon Mugika eta Ane Sanz de Galdakaok Espainiako txapelketarako markak lortu dituzte Tolosan

Oñati igerilari taldeak lan ona egin du Tolosako Gipuzkoako txapelketan. Nabarmentzekoa izan da Jon Mugikak 200 metro bizkar estiloan egin duen marka (2:11:48), Mallorcan otsail amaieran egingo den Espainiako txapelketarako. Ane Sanz de Galdakao ere han egongo da, 50 metroetan 27:88ko marka egin ostean.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Mondra-Berio	0-2
Real Union-Aloña Mendi	3-1
Anaitasuna-Hondarribia	4-1
Aurrera-Trintxerpe	2-0
Ordizia-Roteta	2-3
Hernani-Zumaiako	4-0
Pasajes-Oiartzun	1-1
Idiazabal-Bergara	1-2
Aretxabaleta-Tolosa	3-2

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	48	22
2 Pasajes	47	22
3 Real Union	46	22
4 Anaitasuna	45	22
5 Aretxabaleta	37	22
6 Bergara	36	22
7 Oiartzun	36	22
8 Tolosa	32	22
9 Aurrera	31	22
10 Trintxerpe	28	22
11 Berio	27	22
12 Hondarribia	26	22
13 Mondra	25	22
14 Aloña Mendi	20	22
15 Idiazabal	19	22
16 Roteta	18	22
17 Ordizia	17	22
18 Zumaiako	12	22

HURRENGO JARDUNALDIA

Aloña Mendi-Mondra
Hondarribia-Real Union
Trintxerpe-Anaitasuna
Roteta-Aurrera
Oiartzun-Hernani
Bergara-Pasajes
Tolosa-Idiazabal
Berio-Aretxabaleta
Zumaiako-Ordizia

ERREGIONAL PREFERENTEA

Urneta-Aretxabaleta	1-1
Antzuola-Intxurre	1-2
Euskalduna-Mondra B	3-0

GAZTE MAILAKO LIGA NAZIONALA

Aretxabaleta-Tolosa	0-2
---------------------	-----

GAZTE MAILAKO EUSKADIKO LIGA

Peña Athl. Santurtzi-Bergara	6-0
------------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA

Kostkas M. Bihotza KE-Aloña Mendi	3-2
Euskalduna-Mondra	3-3

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - IGOERA

Arizmendi-Beti Ona CD	2-2
-----------------------	-----

KADETEAK OHOREZKO MAILA

Bergara-Billabona	2-0
Touring-Aretxabaleta Arizmendi KE	2-1

INFANTILAK OHOR. TXAPELDUNEN FASEA

Ostadar FT-Bergara	4-1
Lengokoak-Aretxabaleta Arizmendi KE	3-0

EMAKUMEZKOAK IGOERA FASEA

Arizmendi-Mondra	0-3
------------------	-----

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Urduliz-Ford Mugarri	26-24
Soraluce BKE-Corazonistas BM	34-34

EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Jauja	23-21
-------------------	-------

LEHENENGO TERRITORIALA

Arrasate-Ordizia	21-37
------------------	-------

BIGARREN TERRITORIALA

Talleres Ondo-Aloña Mendi	16-36
---------------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Sasikoa CD B-Eskoriatza	2-2
-------------------------	-----

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Aloña Mendi-Hirukide Barrantol FK	3-3
-----------------------------------	-----

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Arrasate-Zarautz	36-0
------------------	------

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA

MU-Promociones Legarza	88-87
Sustrai-Aloña Mendi-Urdaneta	86-77

SENIOR GIZONEZ, 2. MAILA

Easo Zahar-Sustrai Aloña Mendi	68-38
--------------------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza KE-Krafft Athl.SS	63-46
------------------------------	-------

GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.

Aloña Mendi-Soraluce BKE	54-53
MU B-Mutriku	60-25

GAZTE EMAKUMEZKOAK, PAR.

Aloña Mendi-Bera Bera Anoeta	37-32
------------------------------	-------

KADETE GIZONEZ, PARTA.

Saskiastular-Aloña Mendi	57-62
Soraluce BKE-Easo 96 Urkitza	55-61

KADETE EMAKUMEZ, PARTAID.

Soraluce BKE-Arizmendi Esko.	39-28
------------------------------	-------

GU RE KI ROLA

GOIENA TELEBISTA HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



goiena

FUTBOLA

Juanan Cruz | UDAko entrenatzailea

"Liderra puntu askora egon arren, 3. mailara igotzeko borrokatzen jarraituko dugu"

- ▶ Ohorezko mailako taldea gidatuko du sei urtez UDAREN azpiko taldeetan ibili eta gero
- ▶ Prestatzaile aretxabaletarrak hiru aste daramatza Aretxabaletako lehenengo taldean

ANDER MONEDERO | ARETXABALETA

Juanan Cruzek (Aretxabaleta, 1978) ordezketu du Rafa Barrutia UDAREN aulkian. Orain arte, gazte mailako entrenatzailea izan da eta erronka hau pozik hartu duela adierazi du.

Zer moduz joan dira lehenengo bi aste hauek?

Ondo. Lehenengo astean urduri samar egon nintzen, ez nuelako espero nik taldea hartzea. Oiarztunen partiduaren ostean urduritasunak alde egin eta pozik nago.

Entrenatzaile aldaketa izan da baina ez taldeak izandako emaitza txarregatik. Saikapenean 6. postuan zaudete. Nola ikusten duzu denboraldia?

Bide erdian geratu gara uste dut. Denboraldi erdia pasa da eta 6. postuan gaude. Hiru edo lau partidu jarraian irabazten baditugu goian sartuko gara uste dut. Goiko taldeak oso fin dabilta eta normalean ez dute kale egiten. Egia da aurreko astean sorpresak izan direla, Hernanik Rotetaren aurka galdu duelako, baina ez da ohikoena. Aurten igotzea oso zaila da, baina matematikoki aukerarik ez izan arte lanean jarraitu behar dugu.

Hirugarren mailara igotzea al da helburua?

Bai, hori zen denboraldi hasieran finkatu genuen helburua eta nahiz eta liderrak gurekiko 12 puntuko aldea izan, bukaera arte hori lortzeko borrokatu behar dugu. Partiduz partidu joan behar gara, baina beti gora begira.

Saikapeneko laugarrenak 8 puntuko aldea ateratzen dizuete.

Lehenengo saikaketa zuzenean igotzen da bigarren mailara eta bigarrenak promozioa jokatuko du. Hori da gure helburua, bigarren postuarengatik borrokatzea, ez da erraza izango baina nik konfiantza handia dut talde honetan eta lortzeko gai gara uste dut.

Hirugarren mailatik datorren talde baten helburua hori izan behar da, ezta?

Bai, denboraldi ona egiten ari gara, baina ez guk nahi genukeen bezain ona. Helburua betetzeko lanean jarraitu behar dugu. **Nola joan dira Aretxabaletako entrenatzaile bezala egin duzun lehenengo bi partiduak?**

Bi partiduak oso gorroak izan dira, futbol gutxi egon da. Ohorezko mailako partidu gehienak horrelako izaten dira, zela erdian joko gutxikoak. Oiarztunen kontra zerbait gehiago merezi genuela uste dut, baina azkenean pun-



Aretxabaletako entrenatzaile berria Ibarra. | MIRARI ALTUBE

tu bat lortu genuen. Bergaran, berriz, lehenengo minutuetan bergararren menpe egon ginen eta gero euren mailara jartzea lortu genuen, eta etxetik kanpoko derbi batean puntu bat lortzea ez da emaitza txarra.

Zein da maila honetan emaitza onak lortzeko bidea?

Normalean Ohorezko mailan joko zuzena egin behar da, aurrelariak protagonismo handia dute. Estrategiak ere garrantzia handia du, futbol gutxi dagoenean estrategia-
ren bitartez golak lortu behar dira.

"Partiduak prestatzeko aurkari partiduak ikusten ditut"

"Denboraldi ona egiten ari gara, baina ez nahi genukeen bezain ona"

"Ohorezko mailan partiduak irabazteko joko zuzena egin behar da"

"Irabazteko kontzentrazioa eta estrategia lantzea ezinbestekoak dira"

Estrategia garrantzitsu bada, partiduan kontzentrazioa izatea ezinbesteko al da?

Bai. Oiarztunen aurka guk bi akats egin genituen eta euren ondo aprobetxatu eta bi gol sartu zituzten. Akats horiek zuzentzen baditugu eta gure lana ondo egiten badugu partidu asko irabaziko ditugula uste dut. Oso garrantzitsua zen partidu hori ez galtzea eta azkenean hamar jokalarirekin puntu bat eskuratu genuen. Taldearentzako garrantzitsua zen eta baita niretzako ere.

Taldea bat izatea ere garrantzitsua izango da

Futboleko talde izaera garrantzitsua da eta maila honetan gehiago. Taldeak kontzentrazio falta izatea garesti ordaintzen da eta intentsitate gabe jokatuta berandu heltzen da baloietara eta horrek aurkariaren lana asko errazten du.

Infantiletik Ohorezko mailara salto egin duzu. Igartzen da maila aldaketa?

Hasieran alebinak entrenatzen nituen eta hor gazteek futbolaz gozatu egin behar dutela uste dut. Alebinetatik kadete mailara izugarriko aldea dago, intentsitatearekin entrenatzen da eta lehenengo kontzeptuak azaltzeko ordua izaten da. Gazte mailan, berriz, gure maila berdinean entrenatzen dute eta horietako askok lehenengo taldearekin entrenamenduak egiten dituzte.

Partiduak era desberdinean prestatzen dira?

Nik metodologia berdina erabiltzen dut. Aurkari partiduak ikusten ditut eta informea prestatzen ditut aurkariaren aurka jokatzeke. Nik badakit nire taldeak zer egiten duen ondo eta horren arabera ikusten dut nola irabazi aurkakoari. Aurkakoari baloia nola ateratzen duen jakitea, zein estrategia erabiltzen dituen, zeintzuk diren taldeko jokalaririk onenak... Hori jakinda samurrago prestatzen dira partiduak. Baina guk gure lana ondo egiten ez badugu horrek ez du ezertarako balio.

Nola ikusten dituzu hurrengo partiduak?

Lehenengo hiru partiduak oso zailak egokitu zaizkidalda uste dut; Oiarztun, Bergara eta Tolosa gurekin batera daude saikapenean eta futbol gutxiko partiduak dira. Taldearentzako partidu zailak izaten dira halakoak. Gero etxetik kanpo Berio eta Idiazabal ditugu, eta horiek errazagoak izatea espero dut.

Izar Mendia | Psikologoa

"Garrantzitsua da frustrazioei aurre egiteko tresnak ematea"

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean izan zen eguenean; umeen frustrazioen gainean jardun zuen

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Gasteizko ISEP-Clinic kontsultako psikologoa da Izar Mendia. Hitzaldia egin zuen eguenean Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean eta beste bat egingo du hilaren 24an.

Zer da frustrazio bat?

Frustrazioa da gure nahiak edo desioak oztopo bat topatzen duenean gertatzen den egoera. Garrantzitsua da txiki-txikitatik umeei erreminta batzuk ematea frustrazio egoera horiei aurre egiteko. Helduaroan lagungarriak izango dira.

Zeintzuk dira bizitzako lehenengo frustrazioak?

Asko daude haurren egunerokotasunean ere. Adibidez, kaka eta txiza komunean egiten hasi behar dutenean, janariarekin lotutakoak ezin dutelako nahi duten guztia nahi dutenean jan, bakarrik jantzen ikasi behar dutenean... Adinaren arabera erreakzionatzen dute umeek, baina ohikoena da negar egitea eta kasketaldiak izatea.

Kasketaldi horiek ohikoak dira, baina gurasook ez ditugu onartu behar. Nola jokatu beharko genuke?

Ez zait askorik gustatzen erreze-tak ematea, ze egoera bakoitzak bere azterketa behar du-eta, baina haurrak jaso behar duen mezua da kasketaren bidez ez duela nahi duena lortuko. Zer egin behar dugun? Lehenengo eta behin, argi eduki behar dugu umeari zer eskatu nahi diogun, eta horren

arabera jokatu. Egin behar ez dena da umearen erreakzioaren arabera jokatu. Tinko mantendu behar dugu. Erakutsi egin behar diogu kasketa ez dela nahi duena lortzeko modu egokia.

Frustrazioa muga bat da, hortaz.

Muga bat da. Ondo erakutsiz gero, denborarekin umeak ulertuko du muga bat gainditu egin daitekeen oztopo bat dela, eta gauzak beste modu batera eginda, akaso ahaleginarekin eta lanarekin gaindi dezakeela. Baina frustrazio batzuk ezin ditugu saihestu eta hori onartzen ere ikasi behar dugu. Bi gauza horiek desberdintzen ikasi behar dugu, helduok ere bai.

Gaur egungo gurasook badakigu mugak ipintzen?

Ez zait orokortzea gustatzen. Denetarik dago. Egia da arrazoi ezberdinengatik oraingo joera dela muga askorik ez ezartzea, eta ezartzen ditugunean ez gara oso irmoak. Esan daiteke heziketa oso autoritariotik beste muturrera pasa garela. Baina berriro ere diot, denetarik dago eta, zorionez, muga garrantziaz bada kontzientziazio bat.

"Gurasook mugak ipintzen baditugu, mantendu egin behar ditugu"



Izar Mendia, Gasteizko ISEP-Clinic kontsultako psikologoa. | ISEP CLINIC

Autonomia sustatzeko erabakiak hartzen utzi eta erantzukizunak ematen hasi

Erantzukizunak adinaren arabekoak izango dira; argiak eta umeak egiteko modukoak



Umeak zuhaitz batera igota. | CARCA MAN

L.Z. | ARRASATE

Helduok azalpenak ematera mugatu behar dugu, zereginak nola egin behar dituzten adieraztera. Haurrari utzi behar diogu gainerakoa egiten. Aski izango da pixka bat gainbegiratzeta eta zuzenketatxo batzuk egitea. Erantzukizunak ematen hasita, adinari dagozkionak argiak eta zehatzak izan behar dute, zalantzarik ez sortzeko. Eta umeak egiteko modukoak direla egiaztatuko beharko dugu.

Nerabezaroa garai zaila izan ohi da. Ona izaten da helduek iritzia ematea, baina seme-alabei utzi egin behar zaie aukera egiten. Ez da komeni gazteen orde gurasoek aukeratzea. Eta hanka sartzen badute ere, ondo etorriko zaie. Ulertuko dute euren aukerek ondorioak ekartzen dituztela.

Iñigo Marzabal: "Zinema ahalmen didaktiko handiko hezkuntza tresna izan daiteke"

EHUko irakaslea Baketik-en guraso eskolan izan da hirugarren urtez

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Baketik-en Izan proposamenean oinarritutako guraso eskola egiten ari dira, eta zinema zerbitzuaren barruan hitzaldia egin berri du Iñigo Marzabalek. Ikus-entzunezkoek, tartean zinemak, ahalmen didaktiko handiko hezkuntza-tresna direla defendatzen du Marzabalek, baina ondo erabili behar direla dio. "Normalean egiten dena da narrazioa erabili alde aurretik definitu dugun planteamendu bat irudikatzen. Nire ustez, hori pelikularen erabilpen hutsa da, ez du benetako hausnarketa ahalbidetzen. Interesgarriagoa deritzot zalantzarria eta kontraesanez beteriko narrazio bat aukeratzeari, non ongia eta gaizkia ez dauden argi eta non pertsonaiek muga hori etengabe zeharkatzen duten. Horrek eztabaida/hausnarketa askoz ere aberatsagoa sorraraziko

du". Marzabalen ustez, alde batera utzi behar da ikus-entzunezkoen "erabilera moralizantea". Gizakiok behartuta gaude etengabe erabakiak hartzeraz eta

erabaki horiek gatazka testu-guru zehatz batean hartzen ditugu. Zinemako pertsonaia batzuek egoera horiek gorpuzten dituzte".



El club de la lucha, Marzabalek aztergai izan zituen filmen artean. | COVERALIA

OHARRAK

IKASTAROAK UEU-N

Udako Euskal Unibertsitateak Ikastetxe Nagusiko eskaintzaren barruan gurasoei zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu Eibarran: *Haurtzarora oinarri sendoekin* eta *Portaera arazoak kudeatzeko teknikak*. Lehenengoa Nerea Mendizabal psikopedagogoa emango du martxoaren 29tik apirilaren 13ra bitartean.

Bigarrena, berriz, Eli Moreno psikologoa martxoaren 12tik 26ra. Ikastaroen gaineko informazioa eta matrikulaziorako argibideak www.ueu.org gunean daude eskuragarri.

KONTZILIAZIOA HIZPIDE

Kontziliazio kontzeptuari buruzko Joera Berrien Tailerra egingo dute hilaren 16an, eguaztena,

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan. Rosana Agudok gidatuko du Lur Gozoa eta Mirra elkartearen ekimenez antolatutako saioa, 19:00etatik 21:30era. Besteak beste, kontziliazioaren egoera eta hori ahalbidetzeko hartu beharko liratekeen neurriak izango dituzte aztergai. Informazio zabalagoa gura iza nez gero: asoc_mirra@yahoo.



KULTURA

Guraso zein liburutegien ekimenez, irakurtzera goiz zaletzen dira umeak

Aurreko belaunaldiak baino gehiago eta goizago hasten dira umeak irakurtzen

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Txikienek gustuko dute irakurtzea; zalantza gutxi, liburutegietako haur eta gazte sailetan mugimendu handia egoten da isiltasuna nagusi bada ere. Zaletasun hori ez etetea eta literatura sustatzea dira haur eta gazte liburutegietako egitekoak. Hala, guraso askoren eskutik heltzen dira haurrak liburutegira ze egungo gurasoak ez ei dira lehenagoak eta haur belaunaldi berriak irakurzaleago dira hori garbi ikusten du Asun Agirianok. Bera da Arrasateko bibliotekako haur eta gazte liburutegiko arduraduna eta "liburuarekiko harreman garai bateko belaunaldietan ezagutu genuena baino lehenago agertzen" dela azaltzen du, "ohikoa bihurtu" dela "gurasoek umei etxean ipuinak irakurtzea". Liburutegietan haur eta gazte sailek garrantzia handia dute eta horren jakitun dira erakundeak..

Sustapena behar-beharrezkoa

Haurren garapen psikologikoa errentzat ezinbestekoa dela egiaztatu dela dio Agirianok. Ezinbestekoak dira harentzat, era berean, "irakurketa bultzatzeko animazio-ekintzak", aldi bereko kanpainetatik harago, "sarri eta maiztasun batekin" antolatuta. Sustapena da gakoa eta ia astero aurki ditzakegu saioak liburutegietan, Aretxabaletan zapatu goizean eginiko kontaketa bezalakoak. "Zaletasuna txiki-txikitatik hasten da eta horregatik bultzatzen goiz hasi beharra" dagoela dio bertako liburuazaina den Joseba Lopez de Armentiak. 5 urte inguruko haurrak dira gehien joaten direnak antza eta nabari da orain dela urte batzuk hasitako sustapen saioek fruituak ematen dituztela. Horrela, liburutegi berria egiterakoan zerbitzu hori indartu beharra zegoela argi ikusi zutela dio. Aretxabaletan haur eta gaztetxoentzat 5.100 ale dituzte. Arrasaten, berriz, bi liburutegitan -Kulturate eta Santa Marina- 16.673 liburu. Arrasatekoa eta Aretxabaletakoa ibarreko bi kasu dira baina gaintzeko herrietan ere antzerakoa da egoera. Liburutegi bakoitzak bere irizpideen arabera erabakitzen du ze liburu kome ni den erostea baina Lopez de Armentiak zehazten duen legez, irizpide nagusia bat eta bakarra da: "kalitatea".

Ipuin kontaketak

Zapatu goizekoaren moduko irakurketa saioek "oso harrera ona" izaten dute. Zurrumurru taldeak egin zuen zapatu goizean saioa Aretxabaletako liburutegian, Arkupe kultura etxean. Bost urteko gorako haurrendako saioa izan zen, bi txandatan egin, eta guztira 40 bat neska-mutiko batu zituen, guraso eta guzti. Ipuin bat kontatu zien antzezleak, Marius hartxoaren abenturena eta amaieran ipuin hori jasotzen duen liburua erakutsi zien.

Literatura da, ez jolasa

Aretxabaletan, hilean behin gutxienez, halako saioak antolatzen saiatzen dira. Baita Arrasaten ere, baina bertako arduradun den Agirianok argi utzi gura du ez direla "jolas saioak ezta pailazo emanaldiak ere", aitzitik, "beti literatura eta liburutegiko zerbitzuak herritarrengana hurbiltzeko" ekitaldiak dira; ez dela "ludoteka", alegia, "jolas moduan har badaiteke ere, umeek ez dutelako jolasa bezala ulertzen". Zapatu goizeko saioan Aretxabaletako neska-mutikoen arreta eta parte-hartzea erabatekoa izan zen, horren erakusgarri.

Irakurketa gidak eta aholkuak

Gisa horretako saioez gain, gurasoek haurrekin irakurketa partekatutako egiteko ala aholkuak jasotzeko gida atera ohi dute ibarreko liburutegiek elkarrekin, bat udan eta bestea neguan.

ESANAK

"Liburuak aukeratzeko orduan irizpidea kalitatea da"

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA |

LIBURUZAINA

"Saioak ez dira jolasa, baizik eta literaturara gerturatzeko ekitaldiak"

ASUN AGIRIANO | LIBURUZAINA



Aita, bi semeekin, Arrasateko Kulturateko haur liburutegian. | JULIO CALLEJA



Aretxabaletan zapatu goizean egin zuten ipuin kontaketa une bat. | JULIO CALLEJA



Jose Capel abeslariak uneoro bilatu zuen ikusleekin konplizitatea. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Kolore argia eta oso bizia

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Mestizaia nahaste-borraste zorbio-eragile koloretsuarekin etorri zen Bergarara Bartzelonako zazpikotea barikuan. Bestelakorik ezin zitekeen espero. Baxu jolas *funky* bihurriak batzuetan, ska erritmo frenetikoak besteetan

eta gehienetan perkusio latindar epelekin. Temperatura igoarazi zuten eta jendea izerdiarazi.

Atsedeen barik ia

Atsedeenik ia hartu gabe aurkeztu zuen Color Humanok Tartufon *Madibá* lan berria, bizia zein

biziduna, argitsua eta koloretsua. Estilo saltsa galanta daukate hauek baina teknika musikal hutsezinezkoa. Emaizaren kalitatea eztabaiaezina da, gustuko generoa izan ala ez.

Abeslari eta gitarra jotzaile lanak egiten dituen Jose Capel



CC628 hirukotea. | JULIO CALLEJA

Jendetza eta izerdia CC627 eta Never Surrender taldeekin barikuan

Oñatiko Zero Zabor taldeak antolatu zuen kontzertua gaztetxean

J. B. | ARRASATE

Zaborrari buruzko asteburu informatiboa antolatu bai baina ekitaldiak borobiltzeko musika erabili zuten Zero Zabor taldekoek. CC627 (Oñati-Arrasate) eta Never Surrender (Arrasate) taldeak arduratu ziren gau errebindikatiboa girotzeaz eta baita lortu ere botatako izerdia eta azkenean sortutako giroa ikusita.

Indarrez eta gogoz

Talde hasiberriak jo zuen lehenengo. Lehen diskoa atera berri-berritan, gogotsu hasi eta bukatu zuten emanaldia. Lehen unetik azkenera arte. Horren lekuko izan ziren gaztetxea bete zuten ikusleak; Oñatikoak gehienak baina asko Arrasate bertatik ere joandakoak. Izerdi asko eta zuzeneko indarra eta amorrua.

Ostean jo zuten Never Surrenderrekoek oholtza gainean inor baino erosoago egoten dakitela erakutsiz. Zuzeneko da euren bizi-elementua eta jarraitzaileei primeran pasaraztea. Eskaintza eta emaitza horrekin, aretoa jendez bete zen ia lehen unetik eta gozatzeko moduko gaua izan zuten egubakoitzean Oñatiko Gaztetxera jo zutenek.

FITXA

ARETOA

COLOR HUMANO, 'MADIBÁ'
DISKOAREN AURKEZPENA

Estiloa: Latin-rock, mestizaia.

Non: Tartufo jatetxea.

Eguna: Egubakoitza, otsailak 11.

Iraupena: Ordu eta erdi.

formula kutsagarria osatzen du eta gerri-aldaka askorentzat pozoi hutsa izan zen egubakoitzekoa. Taldea 10 urtez egon da geldia eta 2009an itzuli ziren agertokietara baina itxura guztien arabera, ez zaie nekezegia gertatu giharrak atzera ere berotzea.

Perkusioa gidari

Manu Chao etor dakiguke burura baina *funkya*, perkusio latindar ugaria eta rock formazio baten zuzenekoaren indar elektrikoa gehituta. Hainbeste estilorekin malabareak egitea konplikatu xamarra izan badaiteke ere, teknikoki aitzakiarik gabeko taldea da eta horrela, edozein estilo malabare, haur-jolas bihurtu zuten. Color Humanokoak eszenatokian dantzan eta ikusleak aurrean (egiari zor, kopuruz urri baina gogoz oparo) dantzan; eta jolasa ordu txikiak arte luzatzeko ezin prestuago. Erritmo *funky*-ei egin zieten ikusleek harrerarik beroena baina abesti guztiekin amaitu zuten txaloka.

da taldearen arima eta bera da ikusle bakoitzaren konplizitatea bilatuz, guztiak, banan-banan taldekide bihurtzen dituen iratxo modukoa. Egiteko horretan lagun ditu perkusioetako kideak, bateria tradizionalan bat eta perkusio latindarrean bestea. Erritmoa, kolorea eta entzuleak harrapatzeko amaraun itsaskorra ehuntzeaz arduratzen diren kideak. Color Humano taldearen edabeak horrela nahikoa osagai ez balitu bezala, aho-soinu urduri, biziak izaera berezi hori ematen dion

Distortsio falta sentimenduz bete eta gozatzaz gain, ikuslea gozarazi

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Pascal Briggs, Sean Wheeler eta Zander Schloss musikariak gurean izan dira. Hiru saio eskaini dituzte: egubakoitzean eta domekan Arrasaten eta zapatuan, berriz, Azpeitian.

Arrasateko gaztetxean izan zen lehen emanaldia. Ikusle askorik ez, eta giroa, tardeka, nahiko hotza. Emanaldi akustikoez arrisku hori daukate, baina jarrera zein sentimendu aldetik ezin zaie gehiago eskatu agertokitik pasa ziren musikariei. Pascal Briggs izan zen lehena; haren ahotsa eta gitarra bakarrik, eta sentimendua barabarra. Musikari alemaniarraren ostean –egun The Stokers taldearekin dihardu–, Sala, Ibi eta

Amaia arrasatearren txanda izan zen. The Clash taldearen bertsioak jo zituzten, baina baita beste talde batzuen kantuak ere; esaterako, Dropkick Murphys-en *World full of hate*. Bi txandatan jo zuten, eta tartean Sean Wheeler eta Zander Schloss izan ziren protagonistak. Schloss-en gitarra eta mandolina doinuak ederto ezkondu ziren Wheeler-en ahotsarekin.

Inprobisazioaren txanda

Gaueko protagonistek agertoki gainean amaitu zuten saioa The Clash eta Joe Strummer-ek ospetsu egin dituzten kantuak jotzen. Eta gaua borobiltzeko, inprobisaziorako tartea; Mery May eta Schlossek itxi zuten gaua.



Pascal Briggs musikari alemaniarrak hasi zuen saioa. | JULIO CALLEJA



Larrañaga, Oñatiko parrokoa, figura falta den erretaulako tokia seinatzen. | IRATI GOITIA

la 100 urteren ostean, 'Salomon' Oñatira bueltan

IRATI GOITIA | OÑATI

Orain dela hamabost egun Oñatiko parrokoa Sebas Agirretxeren (arte aditua eta kultura sailburordea 1985 eta 1987 artean) dei harrigarria jaso zuen. Oñatiko San Migel parrokiako, zehazki Rodrigo Mercado de Zuazuolaren kaperan dagoen erretaulako figura bat berreskuratu zuela jakinarazi zion. Joxean Larrañaga parrokoa harrituta gelditu zen hori entzutean; izan ere, figurak ia 100 urte zera-

matzan desagertuta eta ez zuen albiste hori jasotzea espero. Orain, pozik azaldu da.

Bi piezok aurreko mendeko lehenengo herenean lapurtu zituzten eta orain arte ez da euren berririk izan.

Ezusteko berreskuratzea

Sebas Agirretxeri, hitzaldi bat eman ostean, pertsona bat gerturatu zitzaion ea Oñatiko San Migel parrokiako erretaula ezagutzen

zuen galdezka. Honek baietz erantzun zion eta bi figura faltan zituela gaineratu. Orduan, gizonak bietako bat berak zuela esan zion eta itzuli egin nahi ziola. Horrela iritsi zen *Salomon* erregearen figura Agirretxeren eskuetara.

Oñatira itzulera

Orain etxera itzuliko dute, baina ez da data zehatzik. Lehenik zaharberri egin behar dute eta gero ekarriko dute. Larrañagak adierazi digu, orduan aurkeztuko dutela jendaurrean.

Bigarren piezaren inguruan galdetuta, beste miraritzo bat gertatu dadin nahiko lukeela adierazi zuen.

Agirreazaldegiren taldeak lortu zuen garaipena Beterriko bertso finalean

Irabazleek 71 boto lortu zituzten, Jokin Labaienen taldekoek berriz, 52

I.G. | ARRASATE

Zapatuan jokatu zen Beterriko bertsolari txapelketan finala Villabonan eta bertan aritu ziren bi debagoiendar nor baino gehiago: Ainhua Agirreazaldegia eta Jokin Labaien.

Taldea kantatu behar izaten dute bertsolariek lehia honetan. Agirreazaldegia bergararra Donuletxi taldearekin aritu zen eta bere taldekideak Uxue Alberdi eta Onintza Enbeita izan ziren. Labaien arrasatearrak, bestalde, Donelontxo izeneko taldearekin hartu zuen parte eta Ander Lizarralde eta Unai Muñoaren laguntza izan zuen.

Agurra

Txapelketa honetan agurrak garrantzia berezia izaten du. Izan ere, bertsolariek etxetik eramane behar izaten dute presatuta.

Nesken taldea jantzi mexikarrak soinean ziztuztela azaldu zen jendaurrean, *Corrido* mexikar bat kantatuz.

Mutilen taldeak publikoa aztoratu zuen munduko inprobisatzaileen bisitarekin. Lehenik Jokin Labaien azaldu zen Julian Iantzi aurkezlea imitatuz eta bertso lehiaketa bateko bikoteak aurkeztu zituzten: batek, Palestinako inprobisatzailea eta bere itzultzailea; eta inprobisatzaile latinoamerikar bat eta Jon Sarasua, bestetik. Palestinarraren papera Ander Lizarralde egin zuen eta barre algara ugari eragin zituen bere arabierak.

Umorea

Amaia Agirrek agindu zizkien gainontzeko ariketetan umorea izan zen nagusi. Bertso saio batzuk luzatu ere egin zituzten, jendea gustura zegoelako. Adibidez, Onintza Enbeita eta Unai Muñoaren arteko ligeek jendearen algarak sortu zituzten. Bi taldeek erakutsi zuten maila bikaina umore puntuan eta baita bertsoen kalitatean. Azkenean, neskek garaile; mutilak bigarren postuz konformatu behar.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 -14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011

otsailak 19
martxoak 19
apirilak 16
maiatzak 21
ekainak 18
uztailak 16
irailak 17
urriak 15
azaroak 19





Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu

Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela eta, baliteke Goiena telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea.

Ondorengo herrietan bakarrik dute eragina:

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.

Kasu honetan, zure telebista berriro sintonizatu beharko duzu. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zu zeuk eskuz) Goiena telebista.

Berriz sintonizatu, baldin-eta:

- Aipatutako herriren batean bizi bazara.
- Telebista LTD bitartez ikusten baduzu.
- Orain arte Goiena telebista ikusi baduzu, baina orain ikusten ez baduzu.

FLY SHIT

GURE MUSIKA TALDEAK



Fly Shit laukotea, zuzeneko eskaintzera Eskoziara egindako kontzertu-bidaian. | UNAI AZKARATE

"Kezkatzen gaituzten gaiak edo salatu beharreko istorioak kontatu ditugu"

- ▶ 'Arnas bakoitzeko ernetzen' lanari ikuspegi baikorra eman diote
- ▶ Hitz zuzenak eta pertsonalak dira abestien oinarria

I. BARANDIARAN / M. ARREGI | BERGARA Dagoeneko 15 urte daramatza Fly Shit talde beteranoak bazterrak astintzen. Eloy (bateria), Seti (Ahotsa), Osto (baxua) eta Ander (gitarra) dira taldeki-deak.

Erritmo aldaketekin jolasteko tre-bezia erakutsi duzue, beste behin. Beti gaude ikasten, eta, gure mugak ezagututa, gauzak ahalik eta txukunen egiten saiatzen gara. Erritmo aldaketak etxeko marka dira, eta Eloy da horren erantzule nagusia. Abesti guztiek dute lotura musikala, baina linealak

ez izaten saiatu gara. Abesti bakoitzari beste norabide bat eman nahi izan diogu.

Lan honetan emo eta post ukituak asko nabarmendu dira.

Fugazi eta tankerako beste talde batzuek hardcoreari beste dimentsio bat eman zioten, eta guk gustuko ditugu talde horiek. Jawbox, Samiam, Gaizkiñe, At The Drive In, Bluetip... eta beste talde askok guregan ere eragina izan dute. Beste musika mota batzuk jorratzen dituzten taldeek ere eragin gaituzte. Fugaziren funtzionatzeko modua ere nabar-

mentzekoa da, *Do it yourself* leloaz bat egiten dute-eta.

Bergarako gaztetxean ernatzen ari denarekin loturarik baduzue?

1987an, Canovas del Castillo orduko Espainiako lehen ministroa Arrasaten erail zuen Michele Angiolillo italiar anarkistak. Bergarako kartzelan espetxeratu eta garrote bilauaz exekutatu zuten. Haren azken aldarria "*Germinal!*" izan zen. 2000tik hona, kartzela berean dago Bergarako gaztetxea. Han zerbait ernatzen ari da, eta, guk hori bizi izan dugunez, lotura antzeko bat suma-

tzen dugu. Hala ere, ez dugu heroirik sortu nahi, hura bezalako pertsonaia asko daude. Haiengandik asko ikas dezakegu. *Germinal*, hazia ereinda gelditu da dio gure kantuak.

Oraingoan, barrura gehiago begiratu duzue kanpora baino.

Bai. Beti tartekatuta izan ditugu hitz zuzenak pertsonalagoekin. Oraingoan, batez ere, ingurura begiratu dugu hitzak idazterakoan. Egia esatearren, hau gero eta okerrago doa eta kezkatzen gaituzten gaiak, salatu beharrekoak, istorioren bat edo azpimarratu beharreko jarreraren baten inguruan idatzi dugu. *Panfletismoan* ez erortzen eta hitzei sakontasuna ematen saiatu gara.

Ikuspegi ezkorra ala positiboa azaleratzen duzue?

Beldurra diskoan azaltzen den kontzeptuetako bat da. Baina ikuspegi baikorragoa eman nahian, *Arnas bakoitzeko ernetzen* izendatu dugu lana. Daukaguna aldatzekotan, beste bide edo ideia batzuk sortu beharko dira.

Zuen kasa aurrera egin duzue.

Guk markatzen dugu gure erritmoa, konpromisoa. *Norberak egiteak* (DIY) horrek laguntzen du. Zorionez, ilusioa eta gauzak egiteko gogoia daukagu oraindik eta, gainera, asko disfrutatzen dugu. Euskal Herrian baldintzak ematen dira, kontzertuak emateko zirkuitu bat badago: gaztetxeak, tabernak, aretoak... egiten dugunean interesa azaltzen dutenek ere aurrera jarraitzen laguntzen digute!

ZERTZELADA



ARNAS BAKOITZEKO ERNETZEN

Estiloa: Hardcorea, emo eta post-hardcorea.

Egilea: Fly Shit.

Argitaletxea: Autoekoizpena

Iraupena: 31 minutu 21 segundu.

Hardcoretik haratago intentsitatearekin

Badira hainbat urte Bergarako Fly Shit taldea ezagutu genuela, eta, euren adina ikusita gezurra badirudi ere, proiektuak laster 15 urte beteko ditu. Bap!, RKL, Bad Brains eta hardcorearen halako klasikoan ildotik egin zituzten lehen pauso eta lanak. Gerora, baina, intentsitatearekin eta erritmo aldaketekin gehiago jolastuta, bestelako sonoritateak lortu dituzte, azkarrak baita, baina askoz aberatsagoak. Bizitza, baina nola bizi? Lanean antzeman zitezkeen post-hardcore eta emo ukituak, baina oraingoan bete-betean egin dute salto piszina horretara eta, nire ustetan, bete-betean asmatu dute. Taldea asko hazi da eta emaitza kategoriazkoa da. Zorionak!

IKER BARANDIARAN

Senatua gaintuta, Kongresuan onartuko dute 'Sinde' legea

Eguaztenean Espainiako Senatuan onartu zuten *Sinde* legea, eta orain, azken tramitea Kongresuak onartzea izango da, nekez gertatuko da-eta aurkakoa, senatarien %95en aldeko botoa izan zuen-eta. Berez, legearen bozketa bihar-ko gai zerrendaren barruan dago sartuta, bihar bozkatuko da-eta Ekonomia Sostengarriaren legea; haren atal bat da *Sinde* legea. Alabaina, litekeena da beste egun baten bozkatzea, hilabete bateko epean. Horrela, legea udarako sartuko da indarrean; izan ere, ezusteko politiko oso handia izango litzateke Kongresuko alderdiek legea berriz atzera botatzea. PSOEk PP eta CiU alderdiekin bi emendakin hitzartu eta gero, legeak aurrera egiteko moduko babesa izan du Senatuan.

Mugikor-kargatzaile unibertsala urte amaierarako salgai

Europako Batasunak dagoneko eman dio argi berdea oinarritzko prototipoari eta markak has daitezke diseinuak egiten, urte amaiera baino lehen merkatuan izan ditzaten modelo ezberdinak. Horrekin, mugikor guztiek kargatzaile mota bera izatea da helburua, trukagarria eta segurua. Fabrikatzaileek adostutako kargatzaile modeloak mikro-USB konektore bat dauka eta, oraingoz, 14 fabrikatzailek erakiztuko dute: Apple, Emblaze Mobile, Huawei Technologies, LGE, Motorola, NEC, Nokis, Qualcomm, Research In Motion, Samsung, Sony Ericsson, Alcatel, Texas Instruments eta Atmel-ek. Gainontzeko marken gainean, berriz, ez da ezer esan.

14.800 euro eskaini ditu Google-ek Chrome hackeatzea lortuz gero

Kanadako hacker lehiaketa baten egin du erronka Google-ek. Eta 20.000 dolar (14.800 euro, gutxi gorabehera) agindu ditu Chrome nabigatzaileari arrakastarekin eraso eginez gero. Irargarpena hackerren topaketa baten egin du Google-ek eta saria osorik eroango du egun baten lortzen duenak eta erdia bi egunean lortzen bada. Helburua, zehazki, Chrome nabigatzailearen kodean akatsak edo *zuloak* aurkitzea da. Tipping Point dauka izena urtero Kanadan antolatzen duten topaketa eta aurten nabigatzaile eta gailu mugikorren ahulguneak aurkitzea izango da helburua. Hala eta guztiz ere, antolatzaileek diote akats horiek aurkitu bai, baina ez direla haiez aprobetxatzen.

Spotify : Europako diskoetxeen bigarren diru-iturri nagusia

- ▶ Negozio eredu sendo eta errentagarria dela erakutsi du Spotifyk
- ▶ Musika deskargak eta ordainpeko zerbitzuek gora egin dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Sektorearen krisiari buruzko kezak zabaldu eta gisa horretako zerbitzuak erregulatuta eta mugatu beharra bolo-bolo errepikatzen dutenen aurrean, musika doan entzuteko zerbitzu batek eragin-kortasun eta errentagarritasun bermea erakutsi du. Spotify (Suedia) zerbitzuaren hazkunde geldiezina da Europako eta era-

biltzaileak bakarrik ez, etekinen hazkunde ere ikusgarria izan da; negozio eredu sendo eta errentagarria dela erakutsi du. 7 milioi erabiltzaile ditu; horietatik 320.000 ordainpekoak.

Deskargak ere gora

Zerbitzuetatik eratorritako musika digitalaren salmentak, esaterako, %87,5 igo dira 2009a ezker eta

are hazkunde nabarmenagoa izan dute ordainpeko zerbitzurako harpidetzek: %1.400. Hain zuzen, Spotifyk doan nahi adina musika entzuteko aukera ematen du, baina saihestu ezin daitekeen publizitatea tartekatzen du. Ordainpeko harpidetza edo *Premium* kontua eskuratuz gero, baina, publizitaterik ez da entzuten. 320.000 erabiltzaile daude

ordainpean harpidetuta, Daniel Ek zuzendariak emaniko datuen arabera; eta 7 milioi dira erabiltzaileak. Egutero 1.000 erabiltzaile berri pasatzen dira doako kontutik ordainpekorara, gainera. Gaur egun Europako bakarrik erabil daitezke Spotify (Espainia, Finlandia, Frantzia, Norvegia, Herbehereak, Erresuma Batua eta Suedia).



Gailu berriaren aurkezpeneko une bat.

HP etxeak ere aurkeztu du bere tableta, eta iPadaren antzeko neurria du

Horrela, tableten merkatuan lehia bizi egongo da datozen hilabeteotan, eskaintza zabalarekin

J. B. | ARRASATE

Tableten eskaintzaren gerran gudu bakarra da: guztiak iPadaren kontra. Hewlett-Packard enpresak ere aurkeztu du bere gailua, *HP Touchpad* izena daukana. iPadaren aurkarrietatik antzekoena da bai tamainan zein pisuan, eta, gainera, Skype erabiltzea ahalbidetzen du aurreko aldeko kamera batekin eta erabat bateragarria da Microsoften *Quick Office*-ekin eta Google Docs-ekin. Sistema operatzaileari dagokionez, WebOS da. Posta elektronikoa kudeatzeko erraztasuna, sare sozial-letarako sarbide azkarra eta liburu elektronikoa daude eskaintzen artean eta Amazonen Kindle-ekin lotura zuzena dauka HPren tableta. Palm ezagunaren ondorengo handitua da neurri baten.

Zehaztapen teknikoak

HP Touchpadak 700 gramoko pisua du, neurria 19x24x13,7 da, microUSB sarrera, 9.7"-ko pantaila eta 1024x768ko erresoluzioa eta memorian bi aukera: 16 GBkoa eta 32koa. Bateriak zortzi orduko autonomia dauka. Salmentei dagokionez, udan saltzen hasi gura dute Ameriketako Estatu Batuetan.

Merkatua gori-gorian

iPadaren etorrera, hain zuzen, geroago eta gertuago ikusten da, eta Google-ek aurkeztu berri duen Android Honeycomb sistema operatzailea abian dela ikusita, lehia bizia izango dela aurreikusten da. Apple-ek, oraingoz, 14 milioi gailu baino gehiago ditu salduta eta merkatu kuotaren %75ekin hegemonia osoa du.

Google eta Facebook Twitter erosi guran dabilta

J. B. | ARRASATE

Askoren begiek sare-sozialen lehengusu txiro moduan ikusi izan badute ere, guztiek gorietatu dute azkenean txoritxo. 10 bilioi dolarreko balio-estimazioa egin diote Twitterri eta Google eta Facebook atzetik dabilzkio, ezkon-gai handien artean.

Iraganean ere behin baino gehiagotan agertu izan dute bi konpainiek asmoa, baina, antza, interesa biziagoa izan da azken asteetan eginiko bileretan.

Askotan zalantzan jarri izan da Twitterren errentagarritasuna, ze, 200 milioi erabiltzaile izanda ere, haie-tatik errendimendua ateratzeko moduan mugak baititu; eta iaz arte ez dituzte iragarriak txertatu, adibidez. Orain dela urtebete 350 ingeniari kontratatu zituzten errentagarritasun aukera horietan lan egin zezaten. Oraingoan, aurreikusten da 100 milioi dolarreko diru-sarrerak izango dituztela 2011n eta uste dute zerbitzuaren balio potentziala 10 bilioi dolarrekoa dela. Adituek diote kopuru hori ez dela handia, potentziala oraindik guztiz garatzeko dutela, alegia.

Bada, Facebooken lehia zuzena da Twitter, ez zerbitzu motarengatik, baizik eta sare sozial moduan izaten dabilen zabalkundearengatik. Bestalde, Google ere saiatu zen *Buzz* izeneko zerbitzu oso antzerakoa martxan jartzen, baina porrot egin zuen. Aspalditik dabil Google sare sozialetan muturra sartu guran, baina oraindik ez dute behar bezala asmatu.

Sare sozialetan datozen hilabeteotan izango diren joerak

J. B. | ARRASATE

Facebook eta Twitter jaun eta jabe dira dagoeneko soziala den sarean. Iaztik geolokalizazioa da joera. *Genbeta.com*-ek egin du jarraitu beharrekoen zerrenda.

Iruzkina eta geolokalizazioa

FACEBOOK

Ezagunena, merkatu berrien bila dabilta: mezularitza, *check-in*, eskaintzak... Enpresak erosten dabilta zabalkunderako.

TWITTER

Mezuak publikatzeko modu berriak eta diseinua dabilta lantzen. 140 karaktereei zuku handiagoko aterako diete Twitterrekoek aurtan.

DIASPORA

Sare sozialen alternatiba libre eta irekia da. Oraingoan, probatan dabilta eta pribatua da, baina aurtan zabaltzea da asmoa.

TUMBLR

Blog murriztu bat edo argazki, testu eta bideoak argitaratzeko modurik errezena da. Hazkunde izugarria izan dute horregatik.

POSTEROS

Aurrekoaren antzerakoa, baina datuak eta informazioa beste erabiltzaileekin partekatzeko erre-erraztasun handiagoak dituena.

DISQUS

Beste sare sozial guztietan txertatu gura duen zerbitzuak. Webgune eta sareetan egiten diren iruzkinen batzailea litzateke.

QUORA

Ahoz aho dabilen zerbitzua. Galdera-erantzunen zerbitzua. Datu basea sortzen da horrela eta izugarri areagotu da jarduerak.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/
amaiapavon'



ETBren egoeraz

ETBren egoeraz hitz egiteko tentazioa izan dut maiz, eta, betiere, hitzak jan beharrean aurkitu izan naiz, neure teila-tuari harriak botatzen ari naizen tentsazio mikatzak inbaditu nau.

Iritzi kikildu hori aditu baten hitzetan entzun dugu aste honetan, *Berria* egunkarian argitaratutako elkarrizketa baten. Jose Inazio Basterretxea, EHUko irakaslea, egun, Aralarren ordezkaria da EITBko administrazio kontseiluan. Hitz potoloak entzun ditugu Basterretxearen ahotan:

"ETB1en egoera ez da euskaldunok nahi genukeena (...) albistegietan ez du maila ematen, eta zerbitzu publikoa kaltetua da (...) Gaixotasun historikoa da ETBk beti lotura handiegia duela uanean dagoen Eusko Jaurlaritzarekin".

"ETB1en diseinua zahar- kituta gelditu da (...) dauden saioek ez dute lortzen ikusleen fidelotasunik".

"Gure telebistak adostasun sozial bat behar du, eta berreskuratu behar du herri honetik konfiantza. Gaur egun ETB ez da sinesgarria Euskal Herriarentzat. Euskaldunak ez du bere burua identifikatzen ETBn".

Hausnarketarako bidea ireki dezatela hitzok.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 14

**Antzuolaren irteerari buruz**

19:45

Usurbilen izan dira antzuolarrak atez atekoaren inguruko informazioa jasotzen. Horri buruz arituko gara *Magazinea* saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 Ikusmira
15:45 Ikusmira
16:15 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:45 Klik
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Goiena Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Goiena Magazinea

MARTITZENA, 15

**Elkarrizketa 'Magazinea' -n**

19:45

Anjel Garai Gipuzkoako Botikarien Elkarte-ko presidenteak, besteak beste, errezeta elektronikoaren gainean hitz egingo du.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Kulturzulo
16:15 28. Klip
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Harmailatik
18:25 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:30 Goiena Magazinea
22:30 Iragana gogoratuz
23:00 Goiena Magazinea

EGUAZTENA, 16

**Metaposta hizpide**

19:45

Metaposta abiapuntuz hartuta, ordengailuan eta Interneten hartu beharreko segurtasun neurriei buruz jardungo dugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:40 Bi tartean
16:30 Leku txiki bat
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:30 28. Klip
18:30 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Goiena Magazinea
22:45 Tertulia
23:45 Ikusten

EGUENA, 17

**Haurren elikadurari buruz**

19:45

Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak haurren elikadurari buruzko liburua argitaratu du eta azalpenak emango dizkigu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:10 Nire Herria
15:35 Bi tartean
16:10 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ipupomamua
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Iragana gogoratuz
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Danbaka
23:45 Goiena Magazinea

EGUBAKOITZA, 18

**'Ipupomamua' programa**

18:15

Txikienek telebista aurrean ikasteko eta gauza berriak ikusteko aukera izango dute *Ipupomamua* saioarekin.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Kulturzulo
16:00 Leku txiki bat
16:10 Danbaka
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Gipuzkoa kultura
18:15 Ipupomamua
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Danbaka
23:45 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

'Auzolana herrira' egitasmoaren berri eguaztenean

Garaioko Naturarteak elkarrekin ibarreko hainbat ikastetxe eta udalekin batera elkarlanean burutzen ari den proiektuaren beste atal bat da *Auzolana herrira* egitasmoa. Horri buruz hitz egiteko, Arrasateko EPAko ikasleak izango ditugu irratian euren esperientzia kontatzen.

Arrasateko ortu ekologikoek ze uztza eman duten, 107.7an

Urtebete pasa da Arrasateko ortu ekologikoak herritarren artean banatu zituztenetik, eta horretaz jardungo dute asteleheneko *Igo autobusera* irratsaioan. Ortuaren arduraren duen udal teknikariarekin eta hiru erabiltzaileekin hitz egingo dute, lehen urteko balorazioa egiteko.

'Historias canallas' antzezlanerako sarrerak zozketan

Kunka antzerki taldeak taularatuko duen komedia kritikoa eta poesia uztartzen dituen antzezlana ikusteko sarrerak zozketatuko ditugu egubakoitzean. Eguenean, berriz, El Quinteto de la Muerte taldearen kontzerturako sarrerak izango ditugu. Deitu 943 35 05 05era edo *irratia@goiena.com*-era idatzi.

TELE-ALBISTEAK

Zinemari buruzko tertulia saioa eguaztenean

Kepa Errasti aretxabaletarrak egindako lehen filmari buruz hitz egingo dute, besteak beste

A.T. | ARETXABALETA

Txomin Madina aurkezlearen gidaritzapean, eguazteneko *Tertulia* saioaren solasaldian izango dira Kepa Errasti, Imanol Gallego eta Iñaki Igartua.

Besteak beste, hitz egingo dute Kepa Errasti aretxabaletarrak egindako lehenengo filmari buruz; gainera, Errasti bera platoan izango da pelikula zuzentzearen esperientzia nolakoa izan den kontatzeko.

Horrez gain, domekan izango diren Goya sariei buruzkoak ere jasoko dituzte tertulian solaskideek. Hileko film estreinaldiei buruz ere jardungo dute eta Ainhoa Sanchez zinemari buruz egindako inkesta ikusi ahal izango da. Hori guztia, 20:45ean hasita.



Kepa Errasti. | GOIENA

'Segoviako ihesa' filma

Tertulia amaitzeko, Imanol Uribe zuzendutako *Segoviako ihesa* filmaren nondik norakoak kontatuko dituzte. Hori guztia borbiltzeko, bukaeran, Uriberen filma ikusi ahal izango da.

Sharon Stoner eta Split 77 taldeen zuzenekoak

A.T. | ELGETA

Danbaka musika lehiaketa irabazi zuen lehenengo taldea Sharon Stoner izan zen eta edizio hartako talde gonbidatua, berriz, Split 77; bada, bi talde horien zuzenekoak gozatzeko aukera egongo da asteon Goiena telebistan.

Sharon Stoner

Sharon Stoner Oñatiko Iñigo Ibarrondo (baxua eta ahotsa), Mikel Zarketa (gitarra) eta Egoitz Olalde (bateria) osatzen dute. Taldea 2001ean sortu zen, eta aurretik ere ibiliak ziren beste zenbait taldetan. Hirukoteak Danbaka lehiaketa irabazi ostean grabatu zuen lehenengo lan luzea: *3.000 bira*. Rock Festivalen jotzeko aukera izan zuten, gainera, 2006an. Sharon Stonerren kontzertuaz martitzenean gozatu ahal izango da, 20:45ean.



Split 77. | SPLIT 77

Split 77

Edizio hartan, Split 77 taldea izan zen gonbidatua, eta haien musikaz gozatzeko aukera izango da eguenean. Laukote bilbotarrak popa, rocka eta elektronikaz uztartzen ditu eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokian eskainitako kontzertuaren zuzenekoak ikusi ahal izango dugu, baita egubakoitzean ere.

Olerki topaketak berbagai 'Gipuzkoa Kultura' saioan

AMAIA TXINTXURRETA | DONOSTIA

Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean olerki topaketak egin zituzten aurreko astean, eta bertan bildutakoak erakutsiko dizuegu eguenean, 22:15ean, *Gipuzkoa Kultura* saioan.

Besteak beste, Pello Otxotekoren azken poesia-liburuaren irakurketa saioa ikusi ahal izango da. Bertan, Otxoteko eta Esther Barandiaran izan ziren protagonistak.

Ana Pimenta, Asier Hernandez eta Iñaki Salvadorrek beste saio bat eskaini zuten: *Contigo hambre y cebolla*, Miguel Hernandezen oroimenez egindako.

Hori eta gehiago, eguenean, 22:15ean, *Gipuzkoa Kultura* saioan.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Leire Manso
Otsailaren 21ean, 11 urte. Zorionak, potxola, eta oso ondo pasatu zure urtebetetzea egunean.



DEBAGOIENA
Markel Berencil Anton
Urnietako Markelek otsailaren 20an, bi urte. Zorionak, pitziñ! Amatxo, aitatxo eta etxeko danen partetik patxo asko.



ARETXABALETA
Dorleta Urkia
Otsailaren 20an, 10 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danen partetik.



ARRASATE
Maider Irazola Mungia
Otsailaren 20an, 5 urte. Zorionak, familia guztiaren partetik. Prestatu belarriak!



ARRASATE
Maider Villar Iriarte
Otsailaren 20an, 5 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat etxeko danen partetik.



OÑATI
Iker eta Izar Gil Albizu
Ikerrek, urtarrilaren 19an, 7 urte bete zituen. Izarrek, otsailaren 19an, 2 urte beteko ditu. Zorionak, bikote, eta muxu handi-handia etxeko danen partetik. Mua!



BERGARA
Xabier Alberdi
Otsailaren 19an, 9 urte. Zorionak etxeko jabe txikiari. Muxu handi bat



OÑATI
Ianire Diaz
Otsailaren 19an, 18 urte. Zorionak, lan! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta juerga askorik ez ein, bale? A, zuritotzu bat edo inbitau, e? 18 patxo handi etxeko danen eta, batez be, Lideren partetik.



OÑATI
Ander eta Maialen Aitzelai Santa Cruz
Anderrek otsailaren 18an, 7 urte eta Maialenek 22an, 5 urte. Zorionak etxekuen partetik! Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu handi bana.



BERGARA
Garazi eta Libe Ugarte Leturia
Otsailaren 18an, 2 urte. Gure bi loratxuek bi urte bete dittuzte. Jarraitu oin arte bezail alegre. Zorionak eta mila patxo, potxolak! Naroa, aitatxo eta amatxo.



ARRASATE
Noa Laiseka Leturia
Otsailaren 18an, 2 urte. Gure birkixekin batera jaixo zan hirugarren larrosatuari. Zorionak eta mila patxo zuri be! Naroa, Garazi, Libe, Ion eta familia dana.



OÑATI
Maider Murillo Astigarraga
Otsailaren 16an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako, *wapisimo!* Ondo pasatu zure egunean eta mila muxu etxeko danen partetik!



OÑATI
Lihor Sancho Maiztegi
Otsailaren 17an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! 7 muxu handi etxeko danen partetik. Ondo pasatu zure urtebetetzean.



OÑATI
Irati Pelayo Osa
Otsailaren 16an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu pila bat etxeko danen eta bereziki Anen partetik.



BERGARA
Uxue Bernal Varela
Otsailaren 16an, 3 urte. Aita-amak, aita-amamak, tio eta tiak; eta batez ere lehengusina Aioraren partetik zorionak, sorgintxo!



ESKORITATZA
Bogdan Cabeza Davila
Otsailaren 16an, 5 urte. Zorionak etxeko danen partetik.



ARETXABALETA
Doltza Lizarriturri Etxenausia
Otsailaren 16an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, sorgintxo! Ondo ospatu zure bigarren urtebetetze eguna, merendola goxo-goxo batekin. Patxo potolo-potolo bat Araitzen eta etxeko danen partetik.



BERGARA
Malen Pineda Martín
Otsailaren 16an, urtebete. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure egunean! Urtetxo bat jada!



ARRASATE
Erik Delgado Ugarte
Otsailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Erik! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat aita, ama eta Aneren partetik.



OÑATI
LANDER GURIDI
Otsailaren 14an, 4 urte. Zorionak, mutikote! Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jare Berezibar Epelde
Otsailaren 14an, 2 urte. Etxeko guztien partetik zorion bero-bero bat zure bigarren urtebetetzean. Pa txikia eta pa handi-handia zuretako.



ARRASATE
MariaXiao Etxebarria Agirre
Otsailaren 14an, 4 urte. Mila pila muxu aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partetik.



BERGARA
Ismene Fernandez Masa
Otsailaren 13an, 12 urte. Zorionak etxeko danen partetik.



ARETXABALETA
Alaitz Iturbe
Otsailaren 13an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik. Bapo bazkalduko dugu, aitona, aitatxo eta zure kontu.



ARRASATE
Juana Perez de Arrilucea
Otsailaren 12an, 37 urte. Zorionak, tia Juana! Oso ongi pasatu eguna Maeztun. Muxu potolo eta belarri tirakada pila-pila, etxeko danen eta bereziki zure loba Beñat eta Marenen partetik. Igandean bapo-bapo ospatuko dugu elkarrekin. Patxoak, politto!



BERGARA
Ane Elkoroberezibar Rivas
Otsailaren 11n 4 urte Zorionak etxeko danen partetik, bereziki Eder, Paulo eta Miren.



BERGARA
Jon Etxaniz Zafra
Otsailaren 11n, 9 urte. Zorionak eta patxo handia Mikel, amatxo eta aitatxoren partetik.



OÑATI
Oihana Diaz
Otsailaren 10ean, 31 urte. Zorionak, amatxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta aber ze mouzko pintxuak urteten dauein! Muxu potolo asko eta 31 tirakada etxeko danen eta, batez be, etxeko poxpolintxuan partetik!



ARRASATE
Julen Sarabia Mendizabal
Otsailaren 10an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto pasatu ostiraleko txokolatadan. Eskuko hatzamar guztiak bete dituzu, potxolo! Muxu potolo handi bat, amatxo eta amatxoren lagun guztien partetik.

Zorionak!

Internet
Sar zaitez goiena.net atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu herria eta bete datuak.
Posta
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, urtebetetze eguna, herria eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez GOIENAKo ordezkari zure batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Uxue Larrañaga Salaberria

Osintxu 3,260 kilo. Otsailaren 4a. Gurasoak: Esti eta Mikel. Argazkian, Uxue gurasoekin.



Aitor Madina Arriola

Antzuola 3,300 kilo. Otsailaren 7a. Gurasoak: Amaia eta Gotzon. Argazkian, umea amarekin eta aittaita Angelekin.



Ariadna Anton Serrano

Bergara 3,340 kilo. Otsailaren 4a. Gurasoak: Soraya eta Aitor. Argazkian, Ariadna gurasoekin.



Xabier Roo Gardoki

Arrasate 3,250 kilo. Otsailaren 7a. Gurasoak: Itziar eta Nebat. Argazkian, Xabier gurasoekin.



Amets Zumarraga Gomez

Elorrio 2,850 kilo. Otsailaren 6a. Gurasoak: Itxaso eta Karlos. Argazkian, Amets gurasoekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Jon Alburquerque Altuna

Aramaio 3,750 kilo. Otsailaren 8a. Gurasoak: Leire eta Txema. Argazkian, Jon amarekin.



Jurgi Unamuno Garcia

Arrasate 3,620 kilo. Otsailaren 9a. Gurasoak: Miren eta Mikel. Argazkian, Jurgi gurasoekin.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	(Infin.) Asmatu	Urrun	Esaldia, esaera
Egoera itogarri	Amerikako aintzira	Oldarra	
Gai erre-txinatsua			
Lituaniako hiria			
Ez hain lagun	Pl., etxe aberea		
Barrundiko auzoa	Gipuzkoan, usaina		
		Ez du ikusten	
		Ondo, bo-kalik gabe	
* Paraguai-ko hiriburua			
Afrikako estatua			
		Kanpo, landa	
		Osmioa	
Bizkaieraz, bikea		Kobaltoa	Kontso-nantea
Emakume izena		Kontso-nantea	Bokala

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

A	I	S	V	A	T	S	V	N	A
Z	O	C	A	V	U	I	U		
T	V	A	D	N	G	U			
N	O	I	C	N	S	V			
U	S	T	I	V	Z	V			
K	U	A	T	K	E				
A	R	R	A	M	I	R	A		
S	E	S	T	R	E	S			
E	U	A							

B	I	Z	I	K	L	E	T	A	
A	I	P	A	P	E	L	R	K	
N	A	V	A	N					
O	R	A							
A	V	A							
X	A	A	K	A	A	K	N	S	
Z	B	T	R	E	N	H	N	K	
S	N								
H	E	G	A	Z	K	I	N	S	
T	H	A	V	A	N				
Z	B	E	R	E	U	T	L	I	

2	9	6	2	5	9	8	4	5	9	6	2
7	4	7	8	2	9	6	1	3	4	7	8
6	9	4	2	3	7	5	1	8			
7	8	6	3	9	4	1	2	5			
4	3	1	5	2	8	6	7	9			
5	2	9	1	7	6	4	8	3			
1	4	3	7	8	9	2	5	6			
2	6	8	4	5	3	7	9	1			
9	7	5	6	1	2	8	3	4			

SUDOKUA

			6			8	3	4		
	6	8	4			7				
					9					6
5		9			6	4	8			
4				2	8	6				
			3							
		4	2		7	5				
8										
3	7	8	4	5						


HIZKI SALDA

Topa itzazu bost garraio mota.

Z	B	E	R	E	U	T	L	I		
T	H	A	B	A	A	A	A	T		
H	E	G	A	Z	K	I	N	S		
Z	B	T	R	E	N	H	N	K		
X	A	A	K	A	A	K	N	S		
Z	A	A	U	A	T	A	E	O		
X	M	O	T	O	R	A	A	N		
A	I	P	A	P	E	L	R	K		
B	I	Z	I	K	L	E	T	A		

HIEROGLIFIKOA

Aurrerabidean: gaur bat...



Hieroglifikoak:
Bihar bi.

Hemen horrelakorik botako balu...

Japoniako errepide horri ataratako argazkian argi geratzen da elurteak direnean herrialde bakoitzak duen prestakuntza maila.
www.sarda.es



"Nahiago nuke down sindromea duen norbait edo hiesa duen norbait"

XAVIER HORCAJO | TELEBISTA AURKEZLEA

Intereconomian aurkezten duen saioan egin zituen adierazpenok Horcajok, Carla Antonelli transexuala Tomas Gomez Madrilgo sozialisten buruaren zerrendan egongo zela jakinda. Hiru kolektibo esaldi bakar baten iraintzeko meritua behar da gero!
www.20minutos.es



Max. 9°

Min. 4°

Euri gehiena goizaldean egingo du. Elurraren maila 800-1000 metrora jaitsi daiteke.
euskalmet.net

goiena

2011-02-14

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

Felix Linares Zaletasunak eta lanbidea bat datoz bilbotar honen kasuan: 23 urte daramatza irratian *Pompas de papel* aurkezten eta 15 baino gehiago *La noche de*-rekin. | TXOMIN MADINA

"Gura dutena esango dute, baina Bilboko klima gustuko dut"


1. Musika, zinema, komikiak edo liburuak. Zein izan zen lehena?
Komikiak edo zinema helduko ziren... Baina denak nahikoaldi berean. Horretarako oso goiztiarra izan naiz, uste dut DNAn daramadala.

2. Urteak daramatzazu *Pompas de papel* eta *La noche de* aurkezten. Esan daiteke harreman luze ko pertsona zarela?
Nire fidelitasuna harrigarria da, 45 urtean bi enpresatan lan egin dut. Monotonía? Argi gorria piztean salto egiten dut eta salto hori kitzikagarria da, zoragarria.

3. Esango dute: "A ze pagotxa, gustatzen zaionari buruz berbetan lan egiten du..."
Hori egia borobila da; sekulako zortea daukat. Gutxitan gertatzen da hori, eta zorte hori dugunok eskerrak eman behar ditugu.

4. Zergatik da ona irakurtzea?
Maxima batek dio: libururik txarrenak ere badu zerbaite onik. Beti erakusten dute zerbaite; gehienek entretenitu egiten zaituzte, beste batzuek gauzak sentiarazi. Eta batzuetan badago halako *flash* bat liburuan, ideia bat, eta zeurekin daramazu bizitza guztian.

5. Sute bat balego, zein komiki salbatuko zenuke?
Nire ustez, Alan Moore da inoiz egon den gidolaririk onena, eta *Watchmen* bere lanik onena.



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Denak zoriontsu izatea nahiko nuke"

"Mundu guztia zoriontsu izan zedin saiatuko nintzateke, ez badugu utopiatan sinesten... Kulturarekin? Bai, baina bakoitzari berea emanaz. Irratian piramidearen teoria dugu: programa mundu guztiari gustatu behar zaio, baina, era berean, puntu batzuk zorrotzenendako dira, eta besteak joango dira mailaz igotzen"

6. Aitortu: zenbat egin du Google-ek *La Noche de*-gatik??
Nahikotxo... Baina hasi ginenean ez genuen ezagutzen, e! Egia da denbora eta dirua aurrezten lagundu digula. Hori bai, beti kontratatzen dugu eta taldekideen memoria ere ez da nolana hiko!

7. Badago gorroto duzun klasikorik? Eta ustez txarra den arren gustatzen zaizunik?
Gorroto ez, baina *Centauros del desierto* ez zait horrenbestera iruditzen. *Con Air*, aldiz, hirutan ikusi dut; uste dut dela *Sweet Home Alabama* agertzen delako.

8. Oscarrak bertan daude. Nork irabaziko du?
Zoritarrez, *El discurso del Rey*-k eramango ditu gehiago, baina nik nahiago dut *La red social*. Gainerakoak? Ezusteko gutxi: Natalie Portman eta Colin Firthek irabaziko dituzte aktore onenen sariak.

9. Zer eskaini beharko lizukete Bilbo uzteko?
Momentu honetan ez du preziorik, baina negoziatzea da dena! Sentimentalismoak eta utzita, gura dutena esango dute, baina Bilboko klima gustuko dut: malenkonia, euria... On egiten dit.

10. Apustu batengatik *Torrente IV* ikusi beharko duzu 3Dn eta lehen ilaran. Norekin?
Zaila izango da, baina, ahal bada, asmoa da Santiago Segurarekin berarekin joatea.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



Patineteak

Paseatzen ari nintzen lehengo goizean, Arrasate-Eskoriatza ibilbidetik, eta Almen Ikastetxeko inguruetan espektakulu berri baten egiaztapeak harrapatu ninduen. Ikasleak ziren, ikasle gaztetxo ugari, eguneko betebeharrak patinetek zihoztenak. Ikuskizun bitxi hark zenbait gogoetarako aukera eman zidan, eta horietako batek nire haurtzarora eraman ninduen.

Hain zuzen ere, Arrasateko biatoristen ikastetxean ari gineneko denborak ziren, eta Aretxabaetatik ikaskide batzuk zetozkigun egunero, bizikletaz. Gogoan dauzkate, euria eta eguraldi kaxkarraren kontrako kapu luze haie tan babesturik, bi herriak haie tan zituzten lau kilometroak gaindituz. Pedalez pedal atera zituzten aurrera ikasketak.

Almeneko gaztetxoek irribarre gazi-goza lorarazi zidaten, tramankulu toleskorrari seriotasun osoz zangoen indarrarekin abiadura ematen zioten bitartean. Diferentzia bat dago bi aldiatoko kasuen artean: nire ikaskideek behartuta erabiltzen zuten bizikleta; oraingo neska-mutiko horiei, ordea, modak ekarri die patinetea. Dena den, niri orain bezala, ziur nago berrogeita urte barru eurek ere oroituko dituztela nostalgiaz oraingo joan-etorriak.



ORDUTEGIA

09:30etik 21:30era

Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es